

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Amasa-Villabona

Aurkibidea

Udalerria: Amasa-Villabona

Sarrera



Amasa-Villabona Gipuzkoa ekialdean, Tolosaldean dagoen udalerria da. Herriaren erdigunea Oria ibaiaren bazterrean kokatzen da. Honako udalerri hauek ditu mugakide: Andoain, Zizurkil eta Aduna iparraldean; Tolosa eta Ibarra hegoaldean; Irura, Anoeta eta Asteasu mendebaldean; eta Berastegi ekialdean. Antza denez, Villabonaren sorburua Amasa izan zen. Izan ere, gaur egun bertako auzoa den arren, Villabona baino lehenagokoa da. Villabona sortuta, hasieran, bi herriek komunitate bat osatzen zuten eta San Martin parrokia, herri-mendiak, burdinola, errota eta herri-bideak batera erabiltzen zituzten; 1619-20an hiribildu bakarra sortu zuten.

- **Biztanleak:** 5.864
- **Euskaldunak:** %67,89

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **34**
- Zintak: **52**
- Pasarteak: **731**
- Transkribatutakoak: **30**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **650**

Proiektuak

- Amasa-Villabonako frankismoaren aztarnak arakatzeko
- Beterriko kantak
- Elgoibarko Makina Erremintaren Historiazaleak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Pello Aranbururen fondoa

Hizlariak

Amaia Agirre Arrastoa (1977)

Hiru senidetan erdikoa. Villabonako ikastolan (orain Zubimusu) ikasi zuen lehenengo, eta Laskurain ikastolan gero. Futbolean ibili zen gaztetxotan. Bertsolaria da.



Tolosako bertso-eskolan eman zituen lehen pausoak eta Hernanikoan jarraitu zuen ondoren. Hainbat sari irabazi ditu eta hainbat txapelketatan hartu du parte (besteak beste Euskal Herriko bertso txapelketetan 2005ean eta 2009an). Euskal Filologian lizentziatua, bertso munduan aritu da beti: 'Hitzetik Hortzera' telebista-saioan erredaktore, bertso irakasle (bertso-eskolan zein ikastetxeetan), gai jartzaile, bertso transkribatzaile... Hiru alaba dauzka bere bikotekidearekin. Asteasun bizi da.

Arantxa Agirre Zabaleta (1933)

Zeberio etxean jaioa, ama Goizuetakoa zuen eta aita sortzez Gabirikoa baina gaztetan Amasara bizitzera joana. Aitak Portunean egiten zuen lana, paper lantegian. Hiru senidetan zaharrena zen Arantxa. Zeberio etxea kale baserria zen, eta baratza, soroa eta hainbat animalia zituzten (ardiak, txerriak...); sagardoa ere egiten zuten. Arantxa mojetan ibili zen, lehenengo Amasan eta gero Villabonan. Ondoren, jostungintza ikasi zuen, Villabonan hasieran eta Donostian ondoren. Jostun lanetan ibili zen gero, bizitza osoan. Ezkondu, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Jaime Altuna (1973)

Jaime Villabonan jaio zen eta Hondarribian bizi da 2002. urtetik. Aita Ataungoa eta ama hernaniarra ditu. Bi senidetan zaharrena da bera, alaba bat du eta aisialdiko hezitzaile lanetan jardun du urte askoz Urtxintxa Aisialdi Taldean. Antropologia ikasketak amaitzen ari zen elkarriketa egin genionean, eta hainbat konturi buruzko testigantzak eskaini zizkigun, baina nagusiki, aisia eta euskarari buruzkoak: gaztaroan nola erabaki zuen euskaraz gehiago egiten hastea, gazteen artean euskara sustatzeko kanpaina eta jardunbideei buruzkoak, nola ikusten dituen gazteak aisialdian euskarari dagokionean...



Arantxa Amiano Sasianbarrena

Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa, [Izaskun](#) ahizparekin batera.





Izaskun Amiano Sasianbarrena

Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, [Arantxa](#) ahizparekin batera.

Milagros Amonarriz Otegi (1935)

Loiolan jaioa, Donostian. Jaioberrian ama hil zitzaion, eta izeba-osabekin bizi izan da umetatik, Amasako Ollero baserrian. Artaldea zuten, eta gazta eta mamia egiten zituzten. Amasako mojetan ikasi zuen, eta 13 urterekin Subijana ehun lantegian hasi zen lanean. Bost urte egin zituen han. Josten aritu zen gero, ahizparekin batera.



Klarita Arin Amundarain (1931)

Gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa. Osaba Jose artzapezaren inguruko kontuak kontatu zituen.

Tomas Arrastoa Iguaran (1925-2015)



Villabonan jaioa, Kale Nagusian. Gurasoak bertakoak zituen. Aita arotza zen. Hamar hilabete zituela hil zitzaion ama, tifusarekin, eta seme bakarra da. Eskola publikoan ikasi zuen. Mutikotatik da musikazalea: abestu egiten zuen elizan eta tronpeta jo bandan. 15 urterekin Zizurkilera joan ziren bizitzera; orduantxe hasi zen lanean ere, SACEM lantegian; 17 urte egin zituen han, eta gero bere kontura hasi zen lanean. Besteak beste taxilari lanetan ibili da. Asteasuar batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Teresa Arregi



Gerra garaian famialia osoa ihesean ibili behar izan zen. Aita Santoñako kartzelan eduki zuten. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Fermina Arrillaga Iraola



"Amasa-Villabonako frankismoaren aztarnak arakatzen" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa. Daniel Arrillaga Sansebastian bere aitonaren inguruko kontuak kontatu zituen.

Maria Dolores Arrizabalaga Aizpurua (1923)



Kale Nagusian jaioa. Ama Villabonakoa zuen eta aita, berriz, azkoitiarra. Hiru ahizpa ziren. Tolosan egon zen neskame lanetan, hamar urtean, lau urtez Subijana ehun lantegian eta hiru urtez Donostiako Arakistain okindegian. 1955ean ezkondu zen Iñaxio Beñaranekin, eta bi urtez Zangotzan egon ziren bizitzen, haren lanarengatik. 1964tik 2004ra Zizurkilen bizi izan zen. Bi alaba izan zituzten. Besteak beste, gerrako kontuak jasotzeko elkarriketatua.

Pedro Artola Arbiza (1926)



Pedro Amasa auzoko baserri batean jaio zen hamar senideko familian. 1947an, 14 urte zituela, Sacem enpresako eskolan hasi zen ikasle eta langile moduan. Hasieran, doikuntzaz, kontrolaz eta muntaiaz arduratzen zen; geroago, tornu bizkorak muntatzen aritu zen, betiere "Alemaniako erara". 23 urte zituela, Elgoibarrera joan zen eta Aikartun hasi zen lanean, bere jakintasun eta ofizio ona eramanez. 1963an, Eguzki makina-erreminta kooperatibako sortzaileetako bat izan zen. Estatuko eta nazioarteko enpresa eta azoka garrantzitsuenetan ibili izan da teknologia handiko makinak martxan jartzeko arduradun; Ameriketara, Europan, Indian, Australian edo Zeelanda Berriara, besteak beste. Erretiratu baino lehenago, lau urtez egin zuen lan MCC taldeko Idekon, makina-erremintaren ikerketarako gune teknologikoan. Pedrok, berak esaten duen bezala, "denak egin eta denporia sobran" duenez, han eta hemen laguntzen aritzen da: alegia, Elgoibarko parrokian, Gabonetako jaiotzan eta Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoan lan teknikoetan.

David Barandiaran Iturriotz (1927)

Andoaingo Kale Nagusian jaioa. Gerra garaian familia Frantziara joan zen ihesi. Villabonara ezkondu zen, eta bertan bizi izan da ordutik. Taxidermista eta ornitologoa, batez ere txori kontuez aritu ginen berarekin. Margolaria ere bada: 2012an [erakusketa](#) jarri zuen Amasa-Villabonan, ornitologia eta margolaritza uztartuta.

Joxe Mari Ezeiza (1925)



Amasako Garmendin jaioa. Besteak beste, gerrako kontuak jasotzeko egiin zitzaion elkarriketa.

Maite Ezkurdia Don (1931)

Kale Nagusian jaioa. Hiru senidetan zaharrena. Ama Villabonakoa zuen, eta aita Ataunen jaioa. Iturgina zen aita, linterneroa; gerra hasi zenean, borrokara joan zen, eta gero lau urte egin zituen kartzelan. Villabonako moja ikastetxean ibili zen Maite, 14 urtera arte; gero, kontabilitatea ere ikasi zuen mojekin.

Pilar Garaiburu Beloki (1914)



Villabonako kale nagusiko kale-etxe batean jaioa. Aita villabonarra zuen, eta ama, berriz, Altzokoa. Aitak Subijanarenean egiten zuen lan, telak estanpatzen eta tintatzen ziren lantegian. Sei senidetan gazteena zen Pilar. Gerra hasi zenean hogeita bi urte zituen, eta ondo gogoan du garai hura. Etxekoak nazionalistak ziren, eta beldur galanta pasatu omen zuten.

Pedro Iraola Belza (1941)

Zizurkilen jaioa, Aizpuruneko etxean. Aita Villabonakoa zuen, Zubiaurre baserrikoa; ama, berriz, Etxarrikoa, baina hamar urtetatik Zizurkilen bizi zen. Aizpurunean egiten zuten lana biek. Pedro hiru senidetan txikiena zen. Mojetan ibili zen eskolan, Villabonan, Jaunartzea egin arte, eta gero Zizurkilgo eskola publikoan. 10 urte zituela, familia Villabonara joan zen bizitzera, Kale Nagusira. Zubiaurre baserrian ere asko egoten zen. 13 urterekin SACEMen hasi zen Pedro, lehenengo bertako eskolan ikasle moduan eta gero langile moduan. Handik urte batzuetara Tolosara joan zen lanera, paper lantegira. Beste toki batzuetan ere egin du lana, mekaniko moduan. Ibarako emakume batekin ezkondu zen, Villabonara, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Pello Iribar Perurena (1924)



Aian jaioa, Santiagoko ermitako Serorategi etxean. Bost senide ziren. Ama gazterik alargundu zen. Hamaika urte bete zituenean Villabonara joan zen bizitzera, osaba errementariaren etxera. Kale Berrian zuten tailerra eta ferratokia. Pello herri eskolan ibili zen, plazan, eta baita gau eskolan ere. Errementari lanetan ibili zen, eta baita abereak perratzen ere. Herriko antzinako ogibideak eta giroa ederki azaltzen ditu, gerra aurreko zein ondorengo hainbat kontu.

Juan Jauregi Arregi (1926)



Aita asteasuarra eta ama amasarra izanagatik, Astigarragan jaioa da, izatez. Bost urterekin, ordea, ama hil zitzaien eta Amasara joan zen bizitzera, Goikoetxea baserrira, osabaren etxera. Ondoren aita berriz ezkondu zitzaien, eta Astigarragara itzuli zen. Ez zuen han denbora asko egin, hala ere, morroi joan baitzen Hernanira. Handik Añorgara joan zen, eta halako batean, morrontza uztea erabaki eta Villabonan hasi zen fabrikan lanean, SEATen autoentzako piezak egiten. Handik hartu zuen erretiroa.

Juan Mari Lazkano Azaolaza (1925)

Amasako Muñoki-Txiki baserrian jaioa. Hamar senide ziren. Loreti Etxaberekin ezkondu zen, etxera. Gerrako kontuak jasotzeko elkarriketatu.

Fernando Letamendia Torreagarai (1927-2013)

Amasako Arratzain baserrian jaioa. Sei senide ziren. Fernandok Villabonako eskolan ikasi zuen hamar urtera arte, eta ondoren Zizurkilen gau eskolan. Baserriko lanak egiteaz gainera, lehenengo Portu papertegian eta ondoren Subijana ehun lantegian egin zuen lana. Amasako Larrarte baserriko Paulina Lizasorekin ezkondu zen, etxera. Hiru seme-alaba izan zituzten. Gerrako kontuak jasotzeko elkarriketatu.

Mahai-ingurua Amasa-Villabonan

Amasa-Villabonako kontuak jasotzeko mahai-ingurua egin genuen, Subijana etxean. Bertara bildutakoak: Juan Mari Ezkiola Garagorri (Villabona, 1948; Kale Nagusian jaioa), Benito Astiazaran Peñagarikano (1949, Asteasu; zortzi urtetatik Villabonan bizitua, igeltseroa lanbidez) eta Jose Aizpurua Arreseigor (1946, Andoain; Sorabillako baserri batekoa, 26 urterekin Villabonara ezkondua). Herriko hainbat kontu eta anekdota kontatu zituzten.

Maritxu Mendizabal

Kantak jasotzeko elkarriketa egin zieten Maritxuri (ezkerrekoa) eta [Encarna Yarzari](#).

Pepita Mendizabal Zendoia (1935-2016)



Amasako Goikoetxeazpi baserrian jaioa da Pepita Mendizabal. Amasan ibili zen eskolan, eta han bizi izan zuen umezaroa eta gaztaroaren zati bat. Etxean egin zuen lan garai hartan. Hemeretzi urte bete berriak zituela, ordea, Hernialdera ezkondu zen, Ezkamendi baserrira, eta han bizi izan da geroztik. Senarrak ere parte hartzen du tarteka elkarriketan.

Juanito Sasiain Sasiain (1939)



Igarategitxiki baserrian jaioa, Amasan. Aita bertakoa zuen, eta ama Irurako Txorrabide baserrikoa. Lau senidetan gazteena, baserrian lanean aritu izan da beti. Bost behi zituzten etxean, eta haiek gobernatzen nola aritzen zen kontatu digu batik bat.

Franzisko Sorregieta Anzizar



Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa; aitik gerra garaian bizitakoen inguruko azalpenak eman zituen.

Pilar Tolosa Amondarain (1935)



Amasako "Eusita" baserrian jaioa, oso txikia zela bere familia "Aranguren" baserrira joan zen maizter. Neskatotan esne partitzen ibili zen Villabonan, eta baita baserriko lanetan ere, baina ez omen zaio inoiz baserria gustatu. Gazterik neskame joan zen Tolosara, eta han ikasi zuen erdaraz, halabeharrez. Amasara itzuli, eta ondoren Lasartera ezkondu zen, kalera, [Antonio Sarasola](#) anoetarrarekin. Geroztik Lasarten bizi izan da.

Migel Torregarai Garmendia (1927)



Ama Amasako Arratzain baserrikoa zuen eta aita, berriz, Zizurkilgoa. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa.

Jose Inazio Ugalde Mujika Amaxa (1935)



Gurasoak alkizarrak bazituen ere, Amasan jaioa da Joxe. "Amaxa" edo "Zapaterua" ezizenez da ezaguna, izan ere, gaztetan txirrindulari profesional izandakoa da, eta txirrindularitza munduan ezaguna zen "Gaurko karreran zer egin dik Amaxak?" galdera. Oraindik gazte zela, ordea, kirola ez zela errenta, eta zapatak konpontzen ikastera joan zen Asteasuko zapatariarengana. Han ofizioa ikasi eta Villabonan zapatari lanetan hasi zen. Kolean, "Joxe Zapaterua" bezala da ezaguna.

Ixiar Urrestarazu Garmendia (1933)

Legarreta auzoko Legar-Goiena baserrian jaioa. Sei senidetan zaharrena. Eskola publikoan ibili zen 14 urtera arte. 1960an auzo bereko Juan Zurinea baserrira ezkondu zen; esnea partitzen ibiltzen zen herrian.

Puri Urrestarazu Garmendia (1945)



Villabonako Legarreta auzoko Legargoiena baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Amasako baserri batekoa. Zazpi senide ziren, baina bat umetan hil zen. Puri azkenaurrekoa da. Umeak zirenean, baserritik bizi ziren: animaliak, barazkiak... Amak behi-gazta ere egiten zuen, plazan saltzeko. Villabonako moja ikastetxean ibili zen Puri umetan, Hijas de La Cruz ikastetxean. 18 urte betetzeko zituela, SACEM lantegian hasi zen lanean, bulegoetan. Ezkontzeko utzi zuen lana. Irurara ezkondu zen, [Jexux Mari Arsuaga](#)rekin, eta bi seme-alaba izan zituzten. Umeak hazita zeudenean, berriz hasi zen lanean, Irurako medikuaren kontsultan hasieran eta Anoetako anbulategian geroago. Hortik hartu zuen erretiroa.

Valeriano Yarza

Encarna Yarza Zendoia (1915)



Amasako "Mikel Igartza" baserrian jaioa. Herriko eskolan berandu arte ibili zen, eta nerabea zela, amak Zumaiara bidali zuen, ikasketekin jarrai zezan. "María y José" ikastetxean ikasi zuen, bi urtez, eta orduko garaiaz oso oroitzapen onak ditu, diziplina gogorra ere gogoratzen badu ere. Andoainera ezkondu zen, eta azken urteetan bertan bizi izan da.

Maria Luisa Zalakain Odriozola (1930)



Villabonako kale-etxe batean jaio zen Maria Luisa. Villabonako kale-garbitzailea zuen aita, eta aguazil lanak ere egiten zituen, hark bere lanekin ezin zuenean. Funtzionarioek, ordea, soldata kaskarra izaten zuten orduan, eta nahiko komeria izan zuten Maria Luisaren gurasoek familia aurrera ateratzeko. 18 urterekin neskame joan zen Villabonako txalet batera, eta ondoren ezkondu egin zen; Villabonan bertan, kaleko etxe batean, jarri ziren bizitzen senar-emazteak errentan. Zorren beldurrez, etxea eroatera inoiz ausartu ez, eta errentan bizi da gaur egun ere.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Fabrikako lan baldintzak

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Amondarain, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: VIL-001/004
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:05:31. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Tolosaldeko lantegiak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Oihalak egiteko haria egiten zuten fabrian. Prozesua kontatzen du. Irabazi zuen soldatarik altuena 52 pezetakoa izan zen. Gizonezko eta emakumezkoen artean desberdintasun nabariak zeuden.

Transkripzioa

- Ta fabrian ze lan izaten zendun?
- Ba...guk hoi itten gendun, telak. Hariya ittenzan...bueno...nere taillerrian...nere gelan hariya itten genun guk.
- Ta nola iten zenuten?
- Makinak zien hariya ittekuak. Ta makina haietan ba itten zien...hariya itten gendun, ta geo huak beste madeja batzuk bezela itten zittuen, beste zekziyo batzutan, ta geo tela itten zien. Telarrak esaten zitzaienak, makina batzuk tela itten zuenak.
- Ta zuek ze funtzio zenuten, ze in ber zenuten?
- Guk hariya in. Aurrena guata etortzen zan, ta makina batzutan itten zuen ba... txorixua bezela hola...tira batzuk itten zittuen, ta gero beste sekziyo batian hariya itten zan.
- Ta nola ite zen?
- Ba makinak zian.
- Ze in behar izaten zenuten?
- Ez, ez, ez, ez. Pelota batzuk bezela izaten zien, haik sartzen zian zea batzutan....burni batzutan, ta geo burni haietatikan makinak, ta geo hariya

hua ateatzen zan zuk makina jartzen zenun neurrikua. Hemezortzikuak, hamabikuak...segun ze tela lorikua in nahi zendun, ba hariya neurri hartakua behar izate zan.

- Ta zuek pelota sartu behar izaten zenuten burni hoietan?

-Burni hoietan. Ta gero ez bazeunden kontu haundiz, hariya itten zan eten, odo ez zeola ondo ta eteten bazan han pilla itten zan, ta pilla itten zan haiek kutxilluakin moztu bihar izaten gendun eta geo berriro makina hua arreglatu bihar izaten gendun, al bazan makina martxan zeola! Ez giñun behatzik eta...ez genun harrapatzen ez dakit ze nolaz!

- Ta ordun...ondo kobratzen zenuten fabrikan?

-Nik gehiena kobratu nun garaian cincuenta pesetas.

- Astian edo?

- Astian [...]. Hiru ordu laurdeneko bidia in, ta cincuenta y dos pesetas gehiena irabaz giñuna. Ta uste det hasi nintzala con treinta y tantos.

- Ta ordun emakumek bakarrik izaten ziñaten?

- Ez, gizona itten zuten...beste lan klase bat itten zuen haik. Haik ez dakit ze ingo zuen...Ah! Telak zeatu, neurtu ta jarri. Karga, holako...baranda bezelako gauza batzuk izaten zien, ta han honbeste metro telako, roilluak o paketiak iten zien, ta haik itten zittuen gizonezkuak.

- Ta sekziyok izaten zian emakume eta gizon...?

- A bai, ez, ez, ez, ez, ez, ez. Emakumiak emakumiakin ta gizonak gizonakin.

- Ta antzeko xamar kobratzen zuen o gizonek gehio?

-Gizonak gehio kobratzen zuen, gizonak gehio kobratzen zuen. Baiño una miseria eh! Garai hartan una verdadera miseria irabazten zan. Eta neskame jun nitzanian ere, gehiena irabazi nunian, irabazten nun hogeiro, ehun peza.

1.2. Anaia gazteenaren bihurrikeria

- **Hizlaria(k):** Mendizabal Zendoia, Pepita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-005/008
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Anaia gazteenari gertatutako anekdota kontatzen du. Iturritik erori eta kopetan egin zuen zauri baten inguruko gertakizuna. Mojak egindako ukendu bati esker sendatu zitzaion zauri hura.

Transkripzioa

- Ta hurrek bezelako bihurrikerik itten zenittuen?

- Ez ze...nik holako zeaik...batian apuro earra bai zeatu...zein zan? Antton o Inaxio? Inaxio izan zan, anairik gaztena. Monjakin paseatzea juten giñan, harea ta honea ta...haitan ta, bezperetatik atea, ta behin basarrin alderdi batea, bestian bestea ta geo ikuillutik behera ta...hola. Eta...gu hiru txikina deu neretik bi gaztiak dittue bosna urte diferentziya, ta gazteenak dittu hamar urte gutxiyo nik baiño. Eta hua're eskola juteko adiñekua- o zean ez dakit ba bi-hiru urte o ze izango zittun...bi baiño gehio izango zittun, hiru lau bat eo?-"kuestiyua...hau usatu leiket? Jun neike honekin eskola?" Ta, han ibilikoa ta hau ta hua ta mojak. Ta bueno ba eskola hasi deu, ta ez dakit zenbat denboa izango zan. Haik lentxio atea, hamaika t'erditan o ez

dakit ze ateatzen zien mutillek, ta neskak atzetikan, ta nun ikusi nittun plazako iturrin gora iyota, monjetatik behetik gora ikusi nun, itturri gaiñea iyota. Joxe Iñazio du be izena izatez, baiño Iñixito gendun. Zeatik mutil guzik zian Joxe izena...Joxekin! Joxe Mari zaharrena, Julianek ez du Joxeik ez harek Pedro Julian zon, du, eta Joxe Antonio ta Joxe Iñaxio. Ta, Iñixito. Honek askotan esaten dio oaindik, “ze habil, zea...Iñixito!”. Eta, hala, han ikusi nun ta, jun naiz korrika, ta nunbatte hor zeagatik, ni ikusi niñunian eo bestela eonola're erotzen da! Ta holakotan siñalian du bere [...]... ebakiya. Ta asteartia zan, eta etxea eaman deu besuan o...ahal dala nolabaitte! Ta ama orduntxe etorriya, zeatikan merkatu Tolosan, ui, Villabonan asteartian merkatu izaten zan, oain'e bai, eta ta meikuta, Villabona. Ta in zizkian hola bi gantxo jarri, ta gantxok zulu hoietan dittu, ta geo zea ta handikan bi-hiru eunea o haundittu in zitzaion aurpegiya, ta eaman zioten nubaitt zea...bat ondo garbittu gabe eo...puztu pixka bat o haunditu in zien...ta kendu in zizkien zeak. Eez! Hoi pasa eta geoo mojak, ni zeatzeko, haikin juteko, hain etxea...bueno...eskolara, monjan etxea...zean izan jaiyin bazkal ondorengo eskursiyua in ta ume bat ikusi zuen, ta begik haunditzen ai zizkala, eta ukendua emango ziela, beak indakua o ukenduba. Ta hua jarri, eta zea, gantxok eta libratu zizkan, han zornia o zea euki, puztun iya nunbaitte azpitik, ta bai ta ordun han geatu zitzaion marka, gure Iñaxiok kopetian dun marka. Geo illi hoi dana juna dauka, eta galtzen badeu señalia han dauka harek.

1.3. Lehengo umeak, espabilatuagoak

- **Hizlaria(k):** Mendizabal, Maritxu; Yarza Zendoia, Encarna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ibañez Mendikute, Leire
- **Erref:** VIL-008/010
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:31:21. **Bukatu:** 00:35:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Encarnaren aitona 1937n hil zen (aita 27an); Maritxu eta anaia joan ziren Amasatik Adunara abixua ematera, zazpi urterekin. Oraingo bizimoduarekin konparatzen dute. Lehengo umeak beharrak espabilatzen zituen. Encarnak anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Maritxu: Aittona ezautu nun baiñon koxkorra nintzan. Eske goguan daukat San Jose eun batian hil zala, bai ikusten aitu giñen eun batian...

-E: Bai. Mayo treinta y siete.

- M: Treinta y siete zien

-Encarna: Attona.

- M: Attona:

- E: Aitta hil zan el año veintisiete. Atta, bai.

- M: horreatikan guk ez genun ezautu aitta. Baiña aittona bai.

- E: Umiak, oso umiak giñala hil zan. Bai.

- M: Ta nik aittona nola San Jose eun batian, eta nola

horreatikan...-len'e...kontu hau esan izandu deu, gaur eskola juateko umik ezin da utzi bakarrik, eta nik ordun, el año treinta y siete zazpi urte neuzkan, ni treintakua naiz. Zazpi urte nauzkan ta ni...ta nere anaiak hiru urte exkax ditu gehio nik baiño...-Ta biyok jun giñan Amasatik Aduna

abixua ematea aittona hil zala, zeatik gu pariente gea, eta aittona hil zala, nere...honen ta nere aittona. Nere aittona ta amonai abixua ematea, joan giñen. Bi koxkor, oste... hamar urte...zer...joxek...eta nik zazpi urte.

- E: Bai, bai, bai.

- X: Ta bakarrik jun ziñeten.

-E: Bai.

-M: Bai, bakarrik jun giñan. Ez zan klaro, bidetan ez zan klaro baiño eske baiño hua asko xamar da. Eta hoi ez xinisteko modukua, gaurkoo ikuspegitik ez xinistekua, ta nik hoi, hoi, daukat...klaru daukat nola juan giñan, nik orduako...ta ni baiño klaro hiru urte zittun honek ya, harek.

- E: Bueno baiño ordun biharra zan ezta?

- M: Bai. Jun in zan.

- E: Eta fundamentu're bai.

- M: Hoi pixka bat alderantziz e, hoi pixka bat gehiegi ez, umiak...

-M: Horreatik, hoi ba.

-X: Dituzte hamabost urte ta ematen du dituztela ez dakit, hiru ez?

- E: Bai.

- M: Bai.

- X: Ta ama ta beti beti, bueno ta...

- E: Bai. Nik esango nizuke kaso bat, egiya da eta askok dakite nik esan diyetelako ya baiño nere alaba, hil zana, hiru urte eta erdi, [...] ez zittun. Eta neri zain bat lehertu, - iñulabarren, iñulabarra zan- eta bakar bakar bakar bakarrik [...] plaza jun zan, hiru urte t'erdikin eh! Ta hoi egiya da, ta bea hor etorri zan eskutikan "meikuba , benga, guazen, korri azkar, ne ama oso gaizki do ta". Ta hola etorri zan ta, "ala meikuba, ne ama ta sendatu ezazu". Holako fundamentuakin, hiru urte t'erdia! Nik uste ez dakit, biharra argittu, biharra argittu.

- M: Bai, bai, bai, bai. Eske umia iruitzen da " es que no se entera", "no se entera?" Hoik enteatzan dia gehiegi! Gehiegi esan nahi det guk uste baiño asko! Eta bihartutzen dana , berriz, gehio. Ohitturak eta...

-E: Ohitturak, bai, bai.

- M: Bai.

- E: Baiño hiru urte t'erdikin holaxe iñolagabian hemendikan [...]

- M: Bai, hemendikan ez zeon hemen ezer'e!

- E: [...] plazan hor, hiruarren bizitzan bizi zan meikuba, ta danak hemen ume billa...

- M: Bai.

- E: Danak ume billa. Joten zian batzuk azkarro, bestik hor behera, danak jun zian ta geo plaza're jun zian ta be beheakuba...

- X: Bea bere kabuz jun zan?

- Bea, bea. Iñorri esan gabe, iñorri esan...hoi in ber due, hiru urte t'erdia. Lau urtekin hil zan, lau urtekin hil zan.

-X: A bai?

- E: Bai. Baiño hoi in in ber due eh.

- M: Hua oaingua zan?

- E: Umian.

-M: Urte zahar bezpera edo zer holakua ta noiz hil zan? Ze garaittan?

- E: Dieziete de enero.

- M: De Enero, osea ke

- E: Hoi izandu zan...

-M: Bai hori lenago, bai.

-E: Hil zan Javier jaiotzeko zeola. Jaio zitzaiten.

- M: Bai, bai, bai.

-E: Eta harek ikusi zun odola, odola pilla zan. Eta...bakarrik geunden etxian, ta hua jun zan...berez nik eniyon...eniyon nahi ezer esan.

-M: Geo beste aldetik ume billa.

- E: Bai, geo ume billa hemen, umia falta ta umia falta, ta illuna, ta umia ta...meikukin etxea umia.

1.4. Balsa dantzatzearren kartzelara

- **Hizlaria(k):** Iribar Perurena, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-016/029
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:06:12. **Bukatu:** 01:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Aian erromeri baten gertaturiko anekdota kontatzen du Pellok. Dantza soltean egin behar izaten zen eta kartzelara eraman zituzten Aiako gazteak lotuan dantzatzearren.

Transkripzioa

- Aian ba al dakizu zer pasa zan? Cuarenta y uno, ni cuarentan jun nintzen bigarren txandan, bueno, cuarentan jun nintzen hemendikan eta cuarenta y uno edo hola izango zan, dos edo hola, kartzela eraman zittuen baltsean ibili zialako neska ta mutilak, zera, Ondarretara, Donostira, [...] kartzela eraman zittuzten e.

- Aiakuak danak?

- Aiakuak!

- Bai? Zeba?

- Bai! Hori Aian galdetzen badezu hola gure adinekuei esango dizute. Hori orain dala hirurogeita hamar bederatzi hamar urte pasa zan Aian hori.

- Ta ze in zieten edo?

- Baltsen ibili zialako Aiako plazan balsen ibili zialako neska ta mutilak bazekiyen ta kastiguz alkatia ta errektorian bitartez kartzela. Orain, zenbat egun in zittuen ez dakit baiño bastante bai e! Hamabost abt egun igual e! Kartzelan. Osea que orain majinak jun beharko lukete.

2. Politika

2.1. Gerraostean goserik ez zuten pasa

- **Hizlaria(k):** Tolosa Amondarain, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-001/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraostean, gauza askoren beharra izan zuten arren, goserik ez zuten pasa. Arrautzak karetan kontserbatzen zituztela gogoan du nahiz eta ez dakien nola egiten zen prozesu hura.

Transkripzioa

- Amasan goserik pasa zan?

- Ez, guk gosia ez gendun pasa. Goseikan ez, beharra gauza askona, bai, ba adibidez ogiya, kaleko ogiya beti inbidiya ematen zigun etxian iña izaten zan, eta kalia arbiya jaten zuen bezela, guk bagiñun ezagunak gauian arbiya ostutzen zuenak sorotikan, eta gero egunez arbiya jaten zuenak. Guk goserik ez gendun pasa. Guk ez gendun izan, talua izaten gendun eta esnia're bai, eta arraultzak ere itxura iteko behintzat izaten zien, jateko askorik ez, zeatik saldu in behar zian ta. Eta gero jartzen zian gero orain oilluak urte guztin arraultza itten due, baiño ordun egun hotzakin ez zuen itten. Ta ordun karetan konserbatzen zien.

- Hori nola izaten zan?

- Karia, eman ta karen uste det sartzen zittuela. Nik oso gutxi nola gustatu zaiten, baserriko izaera sekulan ez diyot kaso haundirik hartu nik hoidi e. Nik esaten dizut, hamalau urtetako fabrikan hartu ez niñuelako, hamasei urterako hasi nintzan eta nik... gero nik handikan aurrerakua gehiena kalia bizittu naiz.

2.2. Zapata-denda utzi eta arrantzan

- **Hizlaria(k):** Ugalde Mujika, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-003/021
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:41:51. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena:** Soldaduskatik itzultzerakoan, lantegian hasi zen lanean zapata-dendako soldata osatzeko. Beranduago zapata-denda anaiari utzi eta zazpi hilabetez itsasoa arrantzan ibili zen. Legatzak harrapatzen zituzten, Pasaiatik aterata. Hogeia egun pasatzen zituzten itsasoa. Lehorrean egun bat pasa ondoren berriro itsasoratzen ziren. Dirua galdu zuela dio eta horregatik aurreko bizitzara itzuli zen.

Transkripzioa

- Ordun hemen Astiasun urte dexentetan ibili ziñan bueltaka?

- Bai. Geo soldaduskatik etorri nitzanian hasi nintzan fabrikan. Pentsatu gabe eh! Bati...esan, ez zian fabrian...eske pisu bat eosteko “tienes que sacrificar a tope!”. Ta bi suelto ateatzen nittun nik, bat zapaterin ta bestia fabrikan.

- Ta hola ze...?

- Bizimou gogorra. Hola? In nittun...lau-bost...geo itsasoa jun nitzan.

-Noa?

-Itsasoa! Arrantza!

- Bai zea?

- Bai! Zapateya utzi ta anaia utzi, Astiasun.

- Han, zapaterin?

- Bai. Ta zazpi hillaete in nittun, itsasuan arrantzan.

- Zeren arrantzan?

- Leatzetan. Bai, earrak leatzak! Eta...

- Nungo barkun o ze barkutan o?

- Pasaitikan. Haizietan, parejan, barku parejan. [...] ta...zea, bi barku. Ta pasatzen giñun hogeia eun, itsasuan etorri gabe. Itten zan hamar eun ni han...aurrena harrapatzen zendun leatzakin, frexkuakin etortzen zan barku

bat, ta geo bestia juten zan- hiru barko zien- geo bestia juten zan ta gu etortzen giñan handikan hoge eun honea. Han hamar euneko arraiakin, frexkuakin, ta eun bat eo zean, itsasuan. Osea lehorrin ta behar zenen, martxa.

- Ta hola zazpi hillabete?

- Bai. Eta dirua galdu nun.

- Bai zea?

- Bai. Diruba irabazten zala ta laun batek san zian, Villabonan hil zian bi launekin [...]. Dirua zea ta dirua zea! Dirua, "que querian dinero, eran...y uno habia que tenía que sacar de la pobreza". Eta...dirua galdu nun. Ta berriz etorri, eta berriz zapatero ta fabrikan bertan hartu niñuen.

- Mala letxe earrakin.

- Bai, neska! Baiño...bizimou ona da.

2.3. Fusilatuak eta kartzelaratuak

- **Hizlaria(k)**: Yarza Zendoia, Encarna
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: VIL-004/021
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:54:11. **Bukatu**: 00:55:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Amasan ez, baina Villabonan lau bat pertsona hil zituzten. Kartzelara ere eraman zituzten batzuk, itsasontzi batean.

Transkripzioa

- Ta Amasan bertan ordun ez zan gertatu, ez dakit ba, Astiasun bezela herritarren arteko lixkarrik, batzuk erreketek boluntario in dila, bestek nazionalistak dila?

- Hori ez det zeatu baiño hil bai in zittuen Villabonan.

- Bai ezta?

- Hil zittuen. Bai.

- Nola izan zan hori?

- Ba hori hartu ta eman ta hil ta kitto! Nazionalistak ziala ta, jakiña etorri zian beste napar hoik ta nazionalista hoik gorrik zian.

- Ta ze baserritakokok hil zittuen?

- Ez, amasan baserritakoikan ez zuen hil. Villabonakuak hil zittuen.

- A Villabonakoak?

- Villabonakoak, Amasan ez zuen iñor hil.

- Zenbat edo?

- Lau bat behintzat bai, gutxinez, gutxinez bai. Eta gero kartzela eman zittuenak'e bai. Osea que barkuba esaten zuen, barkua, barku batean eman ta eduki zittuen.

- Barkua?

- Barku batian bai.

- A bai e?

- Bai. Ez dakit ze izen izango zun baiño bastante denboan egondu zian.

- Lanen?

- Ez, kartzelan bezela.

- Baiñon barkun?

- Barkun.

2.4. Eskolatik kanpaiak jotzera

- **Hizlaria(k):** Iribar Perurena, Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-016/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Militarrek herri bat irabazten zuten bakoitzean eskolatik kanpaiak jotzera bidaltzen zituzten ume guztiak.

Transkripzioa

- Pentsa ezazu, eskolan ba horrela ba gero naparrak pasa ziran garaien danok jarri giñan pues naparren alde, eskubiran dana. Eta eskoletan eta itten ziguen hola "la toma de Bilbao" edo "la toma de Santander" ta kanpaiak jotzera, elizara bidaltzen gintuen, gu gustora eskolatik [...]
Gustoa juten giñan.
- Herri bat hartutakon kanpai hotsa aditzen zan?
- Bai, bai. "la toma de este, la toma de Zaragoza, la toma de Teruel" ta kanpaiak jotzera.
- Eskola guztiya juten ziñaten?
- Bai, bai, bai, bai. Eskolatik maisuak bidaltzen giñun "ala" ta alborotura armatzen zan, tipiti-tapa.
- Azkenian danak Francon alde.
- Bai, azkena...

2.5. Lagun artean eta etxean euskaraz

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Amasa-Villabonan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-029/004
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:09:04. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Dena erdaraz egin behar izaten zuten eskolan eta dotrina ere erdaraz. Umeen artean eta etxean euskaraz egiten zuten. Jose lantokian hasi zen batez ere erdaraz egiten. Irakasleak izendatzen dituzte.

Transkripzioa

- Jose: Dan-dana erderaz kantatzen zan.
- Juan Mari: Dana.
- Benito: Dana.
- J: euskeraz...
- JM: Euskeraz oso gaixki.
- J: euskeraz batez.
- JM: Ni...ni esateizut, hemendikan jun nitzan bost urtekin Urnieta, taa honea etorri nintzanian beatzi urtekin erderaz enakin ezertxo ere, ezertxo

erez eh!

-J: Galarazita ikasi gendun, dotriñak ta hoi danak, danak erderaz.

-JM: Bai.

-J: Denak. Dotriñak ta dotriñak ikasi behar izaten zan dana memoriz e, baiño dena erderaz.

-X: Ordun euskeraz etxian bai eta...

-B: etxian.

-J: Kalian bai.

-JM: Geuon artian ta ume tartian ta zean bai.

-B: Etxian erremiyoik gabe, gurasuak erderaz ez zekitten ta!

-JM: Karo.

-J: Ni erdera hasi nintzan ikasten ba lanea hasitakuan, hamalau urtekin.

-B: Bai.

-J: [...] lantokin zean. Lantokin'e euskalduna asko zan baiño tarteka izaten zian erdaldunak ta beaiekin...pixkana pixkana zea, oain, ondo ez baiño behintzat. Eskolan bate, beti erderaz.

-JM: Amasan akordatzen naiz ni Amasan ibili nintzanian, maisu bat Don Marcelino, ezatuko al zenuten? Maixu ttiki ttikiya zan, txepa pixka batekin ta, maixu ona zan. Geo bestia [...] Gaskon, ostra, harek...harek partittu itten zun.

-B: Gaskon.

-JM: Eta geo handikan behera jetxi giñanian, Cuevas o, nola izena zun? Cuevas.

-B: Cuevas.

-JM: Jo, harek...harek...harek behatzak hola jarri ta "¡dale!".

-B: [...] bezelako bibotia zittun.

-JM: Kalian bizi zan bera, hortxe bizi zan! Eta buenoo, buenoo.

-J: Ba ni beti maixtrak in ibili naiz eskolatan, bai maixtra beti.

-JM: Hoi suertia.

-B: Baiño maixtrak'e izaten zittuen eh...

-J: Bai.

-B: Zipriztiñak ematen zittuenak.

-J: Pixkat gogor xamar edo baiño bueno, pasabilia. Apaiza hua zeakua. Hoitan bakizu [...] maistra, esto...apaizan etxe azpin izaten zan, gela genun, ta geo zea apaizeta [...].

-JM: Beti toki guztitan.

-J: Bai.

-JM: Toki guztitan pasa dana.

-J: Beti dotriña, hau dala hau beti eliz, eliza ingurun beti bueltaka.

-X: Hori Andoainen?

-J: Andoainen, bai. Sorabillan.

2.6. Gobernuaren kontrako emakumeen bilerak

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Aizpurua, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Almorza, Karlos - Aranburu, Pello
- **Erref**: VIL-033/004
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:06:07. **Bukatu**: 00:07:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Clara Arin oso jostun ona zen eta etxe txiki batean bizi zen. Gerra zibilean etxe hartan batzen ziren gobernuaren kontra hitz egiteko. Txokolorenean ere berdin aritzen ziren. Elkartzen zirenen

izenak aipatzen ditu; bederatzi hilabetez Martuteneko kartzelan eduki zituzten.

Transkripzioa

- A bai haik e, baña hor bizi zian...gañea esangoizut hor bizi zian Clarakin ta...ta Clara in zan oso moista ona, oso...
-Jostun ona.
- Bai. Eta ordun bizi zian danak. Eta, etxean ez...ttiki bat, zaharra gaiñea! Ta horrea juten zian "en plena guerra civil" bueno...oandikan...zea...juten zian asko: Kontxixon Florenza, Lazoida Lizarraga, ta...asko juten zian, pues "a hablar mal del...del...del... gobierno!"
-Errepublikan kontra? O besteen kontra?
- Ez! Zean kontra...nazionalan kontra!
- Francon kontra?
- Nazionalan kontra. Ta geo Txokolonian rebai juntatzen zian.
-Bai, bai, bai.
-Txokolonian. Ta Txokolonetik, badakizu zeñek zeatu zittun? Horrea jutez...juten zian... sangoizut: Gregori ta Maria Jesus Txekolo, bertako alabak, bertako alabak, Txekolonian. Ta horrea juten zian..."la...dos hermanas de Arrillaga": Juanita ta Donores de Arrillaga. Geo la Inaxi Don, la Pilar García, ta ez dakit zer gehio ta geo danak, Martutenian eon zian eh!
- [...] arreba.
-La Evarista no iva...los demás le re...le...

3. Lanbideak

3.1. Hamabostean behin arratsaldea jai

- **Hizlaria(k)**: Tolosa Amondarain, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: VIL-001/028
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:54:07. **Bukatu**: 00:55:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Neskameak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Neskame zegoela, hamabostean behin baino ez zen etxera joaten. Libre zuen arratsalde hartan gainera, etxera joan eta baratzean laguntzen ibiltzen zen. Senargaia ere hamabostean behin pare bat orduz baino ez zuen ikusten.

Transkripzioa

-Ta zu etxea zenbatero juten ziñen?
- Ba ni etxea juten nitzan hama...hamabostian behin juten nitzan etxea. Ta ordun jaia...jai batian bai ta bestian ez ateratzen giñen. Jai batian ateatzen banintzen hurrunguan etxian eon bihar nun. "Cuidando la villa", esaten zan bezela.
- Zer izaten zan hoi?
- Pos etxea kontu. Eta ordun ba jaian lana iten zu... etxian gelditzen zanak astian arratsalde bat izaten zun libre. Eta arratsaldi hartan pentsatu: Tolosatik atea, atuobusak ibiltzen zian "de estos pin pan [...]" hoitakuak, eta noizpatte [...]Villabona alletzen ziñan eta geo Villabonatan etxea beste hiru ordu laurden. Eta ordun eoten zan ahizpa zai, Asteartik in nahi

izaten zun, erosten zittun batzako landariak eta haik aldatzea! Batzan lanian aittu, eta geo illuntzian beatzi t'ereditako orduba gendun etxea etorri bihar, pos "echando virutas" korrika.

- Ta mutillakin noiz geatzen ziñan?

- Hamaostian behin, ordu pare bat hiru bat eta yasta, besteik ez zan izaten. Nik enun bestetan ikusten. Jai atzaldian.

3.2. Villabonako sastreak

- **Hizlaria(k):** Agirre Zabaleta, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-021/030
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Villabonan bi sastre ziren. Gizonezkoentzako eta mutil gazteentzako arropa josten zuten. Jaurnartzeko arropa. Brich prakak.

Transkripzioa

- Bestela tela dendarik hemen Villabonan ez zan egongo?

- No habia de telas asi, no me acuerdo de Villabona, no. Sastre bat bazan bai hor Villabonan, bai. Itten zittunak trajiak eta dana pero telas no, no me acuerdo. Bueno, sastriak bi zian. Bat... pero eran este... galtzak eta hola iten zittun. Beste bat'e bai, Balerdi era. Harek galtzak itten zittun asko, ta telak edukitzen zittun hola gizonezkuantzako alkandorantzat eta zera hori. Ta gero beste bat sastia hor zan beste bat, sastre ona zan, Silasa.

- Sastriak gizonezkuendako josten zuten?

- Gizonezkuentzako, bai. Ta mutil kozkor... ordun nola komuniyoa iten zittuen mutil kozkor batzuek, ez dakit akordatuko zean, estos pantalones "breehes" ez zera gogoratuko hemen hola bolsa batekin aterata?

- Bonbatxo...?

- Bai hola hemen pantorrillan erdin hola zera batekin. Bai hori gure anaiak komuniyoa haundiya iten zuen, bat ttikiya, ta gero bestea hamaika urterekin bestea haundiya. Ta gero ordun traja in behar izaten zitzaion e! Ta hoi akordatzen, horrek iten zizkiyon ta xon "breeches" que le llamaban. Pantalones "breeches", beheraño ez zien aillatzen, pantorrilla erdiraiño con una bolsa ahi.

3.3. Xaboa egiten zuten erretxinaz eta gantzaz

- **Hizlaria(k):** Iraola Belza, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-026/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:03:16. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Lanbideak » Antzinako lanbideak
- **Laburpena:** Enkarguz egiten zuten xaboa.

Transkripzioa

- Orduan egoten zen beste posturik edo etxez etxe saltzen ibiltzen ziranak edo?

- Bueno etxez etxe ibiltzen zirenak baiño ez arraia? Hemen ez zan... beste batzuk iten zuen jaboia, grasakin ceboarekin eta resina de la papelera eta ácido ta nose que're bai ta. Hori nahastu ta pastilla, etxeko egindako jaboia saltzen zuen, baiño hori're enkarguz. Itten zuen ta basarrita ta ez dakit nora, hemen'e ta etxetan'e bai ta itten zuen jaboia ta euren bila bialtzen zuen.

3.4. Neskame Tolosan

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Aizpurua, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Almorza, Karlos - Aranburu, Pello
- **Erref:** VIL-033/041
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:39:59. **Bukatu:** 01:41:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra garaian Tolosan egon zen neskame okindegi batean eta ez zuen goserik pasatu, baina bere senar Inaxiok bai. Goseagatik nolakoak egiten zituzten kontatzen du. Maria Doloresek ogi pusketak bidaltzen zituen etxera.

Transkripzioa

- Gosea pasa al zenuten?

- Nik ez, zergatikan neskame neon panaderi batian esan dizut bezala, Tolosan. Baiño hua [...] gosia hoixe gosia, gaztaña denbuan, mendian, kastañak biltzea ta ordun pixkat poztu omen zien baiño kastellanok hartu ta berriz'e zea...ta hemen zeon bat esango dizut, la Xole Arakistain Zubeldia, no, Zubeldia Arakistain. Bi seme zea...bi zittun ba, Gregorio ta...Gregorio y Ismael.

-Bai.

-Zuk...zuk ez al dittuzu ezutzen?

-Ez.

- Honek asko.

- Bai.

- Bi mutilzahar, bakarrik bizi dia. Oso mutil onak, oso mutil onak. Ba horren ama zan Sole, horren ama de risa es e, Salvadorren itten zun lana, baiño gosia. Ta hiru eunian, jan zittun ciento tres manzanas. Attu, baiñon, hirugarren eunian akabo! Ahua ezin iriki! Del dolor! Hainbeste in zun...

-Baiña ansietatea, ansietatea...

- Aizu, ta hola, hoin ama pentsazazu, el hambre que habia, bai, el hambre que habia.

- Ta hemen, kalia, jana, nola jendea billatzen zun?

- No, nik ez dakit, nik egiya esangoisuet, ni neskame neon Tolosan, panaderi batian ta eitten nun barra osua puxketatu, puxketatu. Ta puxketak bezela etxea bialtzen nun, ahal nun guztina, aittu? Karo, puxketak bezela.

4. Baserria

4.1. Etxeko menua

- **Hizlaria(k):** Zalakain Odriozola, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-002/006
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:08:17. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Lehen egunero jaten zituzten babarrun gorriak; jaietan babarrun zuriak eta noizean behin garbantzuak eta txerriak jaten zuten. Haragia eta arraina oso gutxitan izaten zuten. Txerria hiltzen zuten etxean, baina ez zuten jakiten nola ondu eta kanpotik erosi behar izaten zuten. Ermandadeko odolkiak oso onak izaten ziren.

Transkripzioa

- Ba babarruna izaten genun urte guztiako, eunero-eunero babarrun gorriya, beste janik ez zan. Eunero babarrun gorriya, eta babarrun txuriya batzutan jaitako. Eta garbantzuba're akaso eunen batian, baiña babarrun txuriya, jayian. Gaiñontzian baldin bazan txerriki zerbait o, hari sartzeko o hola, ze arrautz prejittuk ta hola...arrautza saltzeko. Diru pixka bat ekartzeatikan arrautza oso zea zan gutzako, arrautza ba jango baiña bua...ez pentzatu -hola jaten genunik. Ta gaiñontzian ezer ez, haragiya ta arraia ta hola oso oso gutxi. Behin o behin ez dizut esango zerbait [...]
haragi gixatuba o zerbait, baiño oso gutxi.

- Txerria hiltzen zenuten baserrin?

- Beno bai, txerriya hil iten zan baiño...ez zan....ez gendun suerteik. Ez...o ez zekiyen zeatzen este...nola jartzen dittuen urdaiak eta, salmoredan eta jartzen dittue, danak harrikin ta gatzakin ta jarri, eta geo ateatzen dira kuratuta, ba ez zian ondo kuratzen! Ta ordun ez zan txerriya... etxeoik ez zan izaten. Oain, beti kaliaan...baserritan hiltzen zian txerrik, eta ordun handik bialtzen zittuen haren odolki, odolki batzu o bi-hiru odolki, zerbait ola.

- Familikok eta bizi ziñaten?

-Familikuk eta familikuk ez zianak'e bai. Ordun zan basarri dana...nola izaten zan...este...kongregaziyo bat bezela o, hola danak bakoitzan beren zea...nola deitzen ziyen horri...ermandadia, ermandadia. Ermandadekuak zianak eta bueno txerrik hil itten dia holako tokitan ta ekarriko dizkiñagu hortik eta...hoixe, haik izaten zian, odolki izaten zian.

5. Euskara

5.1. Aitaren euskarakadak

- **Hizlaria(k):** Zalakain Odriozola, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-002/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:19:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Umetan lotsa ematen zien aitzak erdaraz ez jakiteak. Aita oso gizon maitea izan zen Villabonan. Aitaren euskarakada bat aipatzen du.

Transkripzioa

- Baiño guk, esaten dizut, konplejo bezela genukan, euskeraz gure aittak ez zekilako erderaz.

- Ta burla edo iten zizuen?

- Burla'e...burla baiño're ez...burla ez dakit hola burla itte zuen e, burla ez naiz guatzen baiña kalia hola... gure aitta oso maittia izan zan eh, Villabonako barrenderu bat, oso gizon ona zan ta oso maittia izan zuan Villabonan, baiño burla iñork ez zion ingo baiño guk... guri pena ematen zigun, parra ittia gure aittai, parra ittia gaizki hitz egiten zulako. Pena ematen zigun... oin'e jendiak parra ittia... nola... harek esaten zun eskola jute zanian -Amasako eskola jute zan- eta, mojak, ta "¿por qué no viniste ayer a la escuela?" eta odolkiya... txerriya hil basarrin, "fui a partir a Amasa de odolkis".

-Beak...

-“A partir a Amasa de odlkis” zea, Amasan odolki partittu zittun ta “¿por qué no viniste a la escuela?” “fui a partir a Amasa de odolkis”. Eta oso... ta guri hola... parra ittia bueno ematen zigun izuarritzko pena!

6. Herria, azpiegitura

6.1. Emakumeei saskiarekin laguntzen, moto gainean

- **Hizlaria(k):** Ugalde Mujika, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-003/020
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:39:41. **Bukatu:** 00:41:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Asteasun etxea erosi zuenean, motoa saldu behar izan zuen. Beranduago moto italiar bat erosi zuen. Motoan jaisten zenean emakume askori saskia eramaten laguntzen zien.

Transkripzioa

- Moto hoi erosi nunian, hogeita bi milla pezta t'ardi o zan, garai haietan , ta patu nun ta... atzea zitzaidan Asteasun pixua! Erosteke.

- Aukera.

- Baai. Nik hamabi milla peztakin nun... alkitatzeko deretxokin hartu nun e! Errenta, baño geo neonek negoziatzeko ta... Eta geo atea zan saldu ingo ziela, pixu hoi. Ta dirua bihar nun, hogeita hamar milla pezta zan pixua, garai haietan. Pixu koxkor bat zan ta... Motua in nun saldu, anaiak utzi nion, saldu nion, [...] behar nittulako. Hogeita hamar milla pezta alletzeako, ta geo erosi nun Lambretta, Italianua, usatuba, Donostin.

- Ordun txirindakin, bizikletakin erosi zenun zapategia ta motuakin etxia.

- Bai!

- Earki.

-Eta.. motuan ibiltzen nitzan... Asteasutik honea bi buelta itte nittun, goizean bazkaltzea [...]. Zenbat emakume ibili nun nik zextuan, han,

motuan atzian! Exei, ta ezer pasa ez, zeatikan aseguroik eta ez zan garai haietan [...] Eta astian behin etortze zian Villabonara,, konprak ittea. Ta ez zan... autobusa're astian behin eo beste ordu batian. Eta, jode, ezaunak gañea! Ta... sextuak holakuak, kargatu, eseri, motuan atzean ta ibiltzen nittun hara ta honea!

- Asteartin azokako ardi zaharren bat ere ekarriko zenun!

- Bai. Ta gaixua gustoa ibiltzen zen, bestela oiñez juten zan beti!

Asteasu...zea, Zestua hasteko konprak harturta! Ta ne motuan exei atzian, ta jota gustoa ibiltzen zien! Beti ona iten. Beti ona iten.

- Merke don arte.

- Bai. Baiño nei gaesti're e atzeatze(n) zian e!

6.2. Ura eta garbitokia

- **Hizlaria(k):** Agirre Zabaleta, Arantxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-021/006
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:11:43. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Etxe ondoan zuten iturria eta garbitokia, baina etxe barruan ez zuten urik. Garbitokira joaten ziren arropa garbitzera. Arropa garbiketa.

Transkripzioa

- Ta ura're ez ganakan gaiñera, gero ekarri gendun ura, goitikan, Amasatikan. Bai.
- Eta nola iten zenuten ur bila?
- Ura behean ganakan guk, iturriya ta labaderua eta danak, etxean onduan. Bai, ta handikan baldiakin ekartzen gendun. Bai. Ta arropa garbitzea're, dana, barriyu guztiya iya, danak labaderoa juten zian! Inork ez zakan... ez dakit labadorik bazan ordun. Ez zan izango, keba labadoria. Ez zan izango porke danak labaderora juten giñan arropa garbitzera.
- Zuk behintzat etxe onduan?
- Nik etxe onduan naukan, bai bertan ta gure aittonak nere aittak in zun labaderu hori. Bai.
- Baiña ur hotzakin?
- Bai, ur hotzakin baiño etxian itten genittun pues ur berua jarri zera barreñu batian, ta Bilore hautsa bota ta gero jarri, han erropa jarri ta beratu, ta gero harrekin pues gero labaderora.
- Aklaratzera?
- Aklaratu ta pixka bat marruskatu ta zea in ta [...] jarri ta zabaldu're han bertan ganakan alambria, batetik bestea zabaltzeko. Holaxe.
- Eta han inguruko etxetakuak ere hara?
- Haik bere etxian bazauzken ta bere etxeta eramaten zittuen.

6.3. Autoak eta tranbia

- **Hizlaria(k):** Ezkurdia Don, Maite

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: VIL-023/040
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:53:27. **Bukatu**: 00:54:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Maite umea zela automobil gutxi ibiltzen zen. Villabonan bi edo hiru automobil zeuden. Tranbian ibiltzen ziren batera eta bestera.

Transkripzioa

- Zu umia ziñala esan dezu lehengo jolasak eta, hemen kalia trafikorik eta ez zen izango? Kotxeak gutxi... izango zen.

- Nada. Gutxi, hombre, gero bai. Por ejemplo ayuntamiento pasatzeko edo dendetan uzteko kamioiak eta, pero ya ya giñen hamalau urtekin edo hola, porque antes... oso gutxi. Hombre, bazegon, kotxiak orduan'e bazian hemen baiño bi edo hiru Villabonan bertan. No, hori ez zeon ezer.

- Eta tranbia?

- Tranbia.

- Ibiltzen ziñeten tranbian?

- Hombre, playara juteko ta Tolosara juteko ta beti, beti-beti! Hemen zeon kruzeta bat, etortzen bazan Donostilua lehenago Tolosakua baiño, itxoin in behar bat, kruzia itteko ta, bestela zan Tolosaraiño bat, direkto. Oseake...

- Direkto baiñan?

- Direkto ez, paradas, baiño...

- Baiña bai.

- Baiño ez zan kruzatzen, eta gero Tolosan itten zan al final de San Francisco.

7. Ohiturak eta bizimodua

7.1. Zumaiko kolegioko bizimodua III

- **Hizlaria(k)**: Yarza Zendoia, Encarna
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: VIL-004/014
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:36:04. **Bukatu**: 00:37:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Kolejioko jantziekin kexatzen ziren ikasle batzuek. Oso tapatuta ibiltzen ziren. Galtzerdiak nolakoa ziren. 17 urterekin irten zen handik.

Transkripzioa

- Keizatzen zian, batzuk keizatzen zian jantziya ta zeatikan erropak ya berezik zian garai hartan. Osea que kuleruak eta gaurko modako zeak ez zian, beste era batekoak zian.

- Baiño beraiek keizatzen zian erropa?

- Bai, bai, bai. Zeatikan ibili behar zan hala, osea que azpiko gona ta besuak honaino motxakin ta hola ta a ver zeatik ta hola bai, esaten zian.

- Zer nahi izaten zan ba, modernogo jantzi edo?

- Etxian ibiltzen zian bezela gutxinez.
- Hobeto ibiltzen zien etxian?
- Etxian ariñago, esango dizut, galtzerdik'e ordun de punto ingles izaten zian. Te estoy hablando del año treinta y... treinta y tres, y treinta y cuatro. Ez zian gaurko nailonezko galtzerdik.
- Haiekin ibili behar! Udan ta negun.
- Bai, bai, hala zan, hala zan. Hala izaten zian. Ta orduntxe hasi zian fiñaguak e, orduntxe hasi zian ibiltzen.
- Ta kolegioan bertan ibiltzen zenuten erropa hura?
- Dana garbitzen zuen.
- Beraiek garbitzen zuen?
- Mojak. Danak garbittu ta danak jartzen ziguen... guk zikiña gendunian gendun toki bat botatzeko. Ta han bota eta beak ekartzen zuen.
- Pare bat edukitzen zenituen?
- Gehio ere bai, bai.
- Bai e?
- Mudak? Bai, bai. Mudak bagiñun. Bai aldatzen giñan.
- Ta geo handik zenbat urterekin atea ziñan?
- Hamazazpi. Hamazazpikin.

7.2. 7 urte zituela, tifusa

- **Hizlaria(k)**: Garaiburu Beloki, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: VIL-007/003
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:02:10. **Bukatu**: 00:03:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Zazpi urte zituela tifusa arrapatu eta negu osoa ohean pasa zuela kontatzen du. Oinez ibiltzea ere ahaztu egin zitzaiola dio.

Transkripzioa

- Zazpi urterekin negu guziya ohean pasa nun.
- A bai?
- Bai. Esango dizut. Nere ahizpa zegoen neskame notarioanian. Eta notarioan semiak tifus harrapatu. Tifus. Eta bi neskame izan zian, bi neska horiek kontajiatu tifusekin. Nere ahizpa ere... ni ttikiya nintzan, harek hemeretzi urte zittun, nik zazpi urte. Ni katarrokin ohean, "catarro viejo". Ta gauerako, hura burutik nahastuta ibiltzen zan, ta gaberako monja etorri zitzaion, kontu itteko ahizpari, hura gaizki... nik katarrua, nik gosia, "ama, ekarri nei [...]" esaten niyon, baiña ez zidan ekartzen.
- Ta urte guztiya in zendun, e?
- Martxora arte, ya eguzkiya atera zanian. Medikua egunero etortzen zitzaigun e! Ta hasi zanian eguzkiya ateratzen bueno ale, altxa. Oinez ta dana ahaztu in zitzaigun ibiltzen, hainbeste denboran, urte guztiya ohean [...]!
- Ta nola hasi ziñaten berriz'e ibiltzen?
- Ez dakit nik.

7.3. Liburu bakarra

- **Hizlaria(k):** Ezkurdia Don, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-023/005
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:08:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Villabonako mojen ikastetxean zer ikasten zuten. Liburu bakarra erabiltzen zuten ikasgai guztietarako, "el libro gordo" esaten zioten.

Transkripzioa

- Ta monjetan zuk zer ikasi zenun edo? Gogoratzen zera?
- Kultura general. Porke ordun zeon... ez zeon orain bezelaxe un libro para cada... liburu bat gauza batetako, nola esaten genun guk ordun... "el libro gordo". Danetatik etortzen zan han, gramatika, geometria, geografia de todo de dena, fisica y quimica, historia de españa, konpleto! Konpleto, konpleto iten gendun! Bai, danak. Orduan ez zeon hainbeste liburu orain bezela. Bueno orain ez dakit nola dian. Orain paperan dana, los informatikos eta hoik ez due itten ezer.

8. Ekonomia eta industria

8.1. Txanpon desberdinak eta hauen balioa

- **Hizlaria(k):** Garaiburu Beloki, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** VIL-007/037
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:56:47. **Bukatu:** 00:57:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena:** Orduko txanponak izendatu eta deskribatzen ditu

Transkripzioa

- Bi errealetako ttikiya, zilarra, ezagutu dezu zuk? Ez-
- Bai.
- Bi errealetako ttikiya, zilarra. Gero pezeta zan, zilarra. Gero bi peztako hori, bi pezta, zilarra. Gero durua. Durua ikusiko zendun! Alfonso trece ta Alfonso niño ta? Durua. Durua, ez zitzaigun gustatzen durua asko ibiltzia. Karga! Ta papera orduan hoge duro zan.
- Eduki in behar!
- Duruak asko pisatzen zuen ta bestia papera ta. Baiño zilarra papera balioa zera...

8.2. Tornuak egin eta biltegira

- **Hizlaria(k):** Artola Arbiza, Pedro

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bernabe, Ainhoa - Historiazaleak, Elgoibarko Makina Erremintaren
- **Erref**: VIL-013/009
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:14:49. **Bukatu**: 00:16:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak
- **Laburpena**: Tornuak seriean egiten ziren, hamabinaka. Hilabete eta erdi inguru irauten zuten. Gero seinaka egiten zituzten. Biltegietan gordetzen zituzten egindakoak, Bartzelonan eta Madrilan.

Transkripzioa

-Gogoratzen zara tornuak eta...zekin iten zian...gutxi gorabehera zenbat makiña hillian edo?

- Hillian zen... zena treinta y dos coches zan...zeakin...haiekin iten zian hamabi, hamabi bai, tardaten genun ba hillaete t'erdi. Ta Arrieta beti ba keja izan zan, joe, jendia, klientiantzako ta, geo hasi giñan ba zeanaz ordea, berehala hasi, seriean hartu baiño, dozena erdi bat o hola, lehenengotik amaitzea. Jendiak preferentzia eukitze zaben ta, bestela, ba, hilabete t'erdi eo igual. Bai, laneako ona zan [...] baiño...baiño... tardau itten gendun asko, makina asko zien ta! Ordun ba pasatze zan ba karo, taillerrian makina faltia, dana ez zen saltzen! Nik e...nik enetxian ezer'e, Eibarren, oan hil da, ta danak gue makinak. Ta sartzen geben..." Pedro e tornuana heldu da" ta "Tornua? Ez dakau ba bate!" Dana, karo, taillerretik erten itten zaben, zea bat, saldu, jarri, ta hola ta hola ta, "tornua, jesus, mordua do!". "Ze mordua?" Karo guk, almazeneta bialtzen genun, nahiz Bartzelona nahiz Madridea. Beti, ba, dozena erdi bat lantzen zanakin. Ta nik enakixen hoi. Esan...bea jun zen harea ta segittun jarri zaban ta, pixka bat garbiu ta, berriz'e zea in. Baiño, guk pentsatzen genun ta salduta juden ziala! Baiña ez zan salduta juden. Makina falta barrenen, soberan, guk ya hoi konsegitzen gendun. Karo, [...] eon ezkeo, geo [...] itten zun, zeoze apurtzen baldin bazan, bertatik desmontau, nik re palatilla buelta bat in, ta zer falta zan han ta, berriro zarratzen genun ta bueno, guk pentsatzen genun bezela ez zan izaten hua. Ez zigun iñork ezer esaten ta...guk pentsatzen genun taillerretik ateraz geo saldu iten zela, baiño ez zan saldutzen...

8.3. Ehun-lantegian hasi

- **Hizlaria(k)**: Amonarriz Otegi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: VIL-024/003
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:02:34. **Bukatu**: 00:03:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- **Laburpena**: 13 urte zituela, Subijanako ehun-lantegian hasi zen lanean. 14 urtera arte ezin omen zen lanean hasi.

Transkripzioa

- Eta gero ba hori, geo esan dizutena, hamahiru urte, hamahiru urtekin hasi nintzan Subijananian, esan dizuten bezela telaretan lanian. Hor edukitzen giñuen deskuidon baten bat, jefen bat etortzen baldin bazan, ez zitzaidan tokatu baiño! Gorde iten giñuen zeatik hamalau urte arte ez zegon lanean hasterikan. Ta hamahiru urtekin orduan badakizu, "laguna Subijananian hasi da" ta bestia "a ba nik ere apuntatu in behar det" ta orain bezala ez zan, orduan juten ziñan ta segittuan apuntatzen ziñuzuen ta hortxe, hor jolasten ta ibiltzen giñan.

8.4. Jesusen Bihotza Eguneko bazkaria

- **Hizlaria(k):** Amonarriz Otegi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-024/008
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:08:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- **Laburpena:** Jesusen Bihotza Egunean festa eguna izaten zuten lantegian, eta bazkaria ematen zien nagusiak. Subijanarenean bertan izaten zen bazkaria.

Transkripzioa

- Baiña ordun izaten zan Jesusen Bihotza Bionako elizan zea, eta ordun Subijanak festa itten zigun, oseake bazkariya'e bai ematen ziguen, ta oso zera politta izaten zen. Hori denak bukatu in zian baiño nere denbuan bazkariya Jesusen Bihotzan egunian bazkariya izaten genun, jaia, jai ta gero bazkariya ta zera.

- Bazkariya nun izaten zen?

- Ba hor bertan, Subijananian bertan ematen ziguen, ez dakit nundikan ekartzen ziguen ta hor.

- Ta asko elkartuko ziñeten egun horretan?

- Bai, egun hartan ba...bai.

8.5. Mekanikariak, igandetlan lanera

- **Hizlaria(k):** Iraola Belza, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-025/017
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:17:19. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

- **Laburpena:** Tolosako paper-lantegiko kontuak. Lantegia igandetan itxi egiten zen, ez zuten lanik egiten. Igandetan makina gelditzen zenez, mekanikariak joaten ziren lanera aberiak konpontzera.

Transkripzioa

- Gero Tolosara jun nintzanen, igandian ta dana lana itten nun. Bueno, igandetan ta larunbatetan gu jai, taillerrian jai itten gendula, papelerako nola itten gendun lana Tolosan? Ordun larunbata ta igandian nola papeleran lan itten zuen, ixten zuen edo geldittu zuen, ordun juten giñan larunbatetan igandetan ta lanera papelera edo harea edo honea edo...
 -Papelera beti zabalik egoten zen? Igandetan ere bai?
 -Eske igandetan garai hartan ez zuten lana itten igandian. Baiño aste guztian nola lana itten zuen, igandetan prepatu iten zan makina, geldittu nola iten zan makina, ba aberiak eta arreglatzera. Papelerak. Batzuk gero hasi zan hori, hiru errelebo bai itten zuen baiño hasi zan bost edo sei errelebo jartzen zala. Tipo americano edo ez dakit zer esaten duten. Baiña ordun igandean gelditu iten zan, orain ez da gelditzen, ez larunbata ez igandea ez ezer. Edo erabat geldittu edo bestela ez da gelditzen.

9. Aisia

9.1. "Behar zana" Elkartea

- **Hizlaria(k):** Arrastoa Iguaran, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** VIL-011/022
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:37:53. **Bukatu:** 00:40:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola
- **Laburpena:** Pilota zalea izan da betidanik. 1940. urtean sortu zen "Behar zana" elkarteko lehenengo kideetako bat da Tomas. Erreboteko partidak antolatzen ziren, baita zesta-puntakoak ere.

Transkripzioa

-Galdetu nahi nizekizun...pelota kontuak ere bai. Badakit zalia zeala, ta pelota elkartiaa..."behar zanan", zu elkartekua zea gatzetatik?
 - Ya. Baiño pelotan ni ez naiz zeatu...ni beti izan naiz jostaketan gutxitan e, pelotan baiño. Pelotan ibiltzen giñaen e, baiño ez.
 -Eta ikusteko...ikustia...gustatuko zaizu?
 -Bai. Zea're bai. Hor [...] ta.
 -Hor elkartia in zanian milla bederatzirehun eta berrogeian uste det izan zala, gogoratzen duzu hori?
 - Zer, "behar zana"?
 - Bai.
 - Bai, ni're aurreneko soshiyo bat naiz e, oandik're soziyo no.
 -Ta nolatan sortu zan elkarte hori?
 - Bai hoi bai, kuarenta o hola zan, bai. Kuarenta... bai hola eo bai, bai. Kuarentan nik hamabost urte nittun bai.
 - Ta nola sortu zan?
 - Bueno, ordun ya, bai afiziyu zekana asko zeon ta, pelotan ta aitzen giñanen ba lagun...laguntza batzuk zeuden ta hortik dirua. Errebotia, errebotia ta.

- Errebotia da pelotan joko zaharrenetako bat ez?
 - Bai, bai.
 - Ta nola...nola jokatzen da edo?
 - Ez dezu beiñe ikusi?
 - Hor biyak zea, batetik bestea, sakatze....sakatzeue gupil eo botilla batetik ta [...] ta beste aldea ta, hemen ta Zubietan ta geo Iparraldean'e asko jokatzen da. Baiño gaiñontzian hemen, ingurun Zubieta ta hemen. Baiño lenoo Astiasun ta etortzen da, ta Zizurkillen ta jotzen zien e herri batea plazak eta, bai, karo, errebotia zaharra.
 -Hemen asko jokatzen zan errebotean?
 - Bah...gutxi. Eskuz gehio ta, geo zesta puntan're bai. Villabonan zesta punta asko izan da. Ameriketara ta.
 - Asko jun zian hemendik Ameriketara?
 - Bai. Pelotari asko, bai.

9.2. Bertako euskara

- **Hizlaria(k)**: Sasiain Sasiain, Juanito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: VIL-012/026
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:51:36. **Bukatu**: 00:54:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
 Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Amasatik Villabonara hitz egiten den euskara ez da oso desberdina. Tolosakoarekin ere ez dauka alde handiegia. Euskara batua ulertzeko arazoak izaten zituen hasieran. Telebistako esatarien euskara batuaren inguruko anekdota.

Transkripzioa

- Ze galdetu nahi nizun... euskerana ta...hemen nola punta batetik bestea kanbiatu iten dan hitz egiteko era ta...
 - Bai.
 - Hemen Amasatik Villabona kanbiatze alda hizkera?
 - Bah... ez. Oain, batua... euskara batua atea da ta hoi batzuk ikasi in due. Ta gu...lengo zea... esango nuke hitz batzuk hartuta dazkau batuanak baiño...gutxi. Oain batzuk... batua gehio hitz egiten due ta... Ni askotan...askotan akordatu izandu naiz [...] idatzi igual [...] ta ze... hor... ze esan nahi du idatziak? Eta zea, oan bai, oan badakit, irakurrita. Idatzizko [...] irakurri, letu. Aurrenetikan, ze esan nahi du hitzak? Holako zeak bai! Ta batzuk, noski, gehiegi hitz egiten due holakua, kanbiatu... hoixe. Gañontzian...
 - Ta telebision aitzen dezuenean, entenditzeko moun bai?
 - Telebixiyun ta...hor...pelotan ta Eguskitza ta Joxean Tolosa ta ibiltzen dia ta “a dos jaun andre, a dos ta a dos” esaten dittuenian aurrenetikan “zer da hoi?” ta oan biak igual, san nahi du, oseake enpate.
 - Ta “punta laster” ta...
 - “Punta laster” ta bai holakuak bai! Holakuak, hoik, hoik ateatakuak dia! Hoik ateata ez dakit... zeñek ateatakuak izango dian baiño...! Hoik esaten dute behintzat! Aurrenetik “punta laster” ta...
 - Ta telediariorik eta aitutakon, entenditzeko moun bai?
 - Telediariorik eta nik ez diet holako kaso haundiyoik iten telediariorik ta hoidi

eh! Nik telebisiyuan...pelotako partiduk o hola baldin bada ta bai gustatzen zait [...] kustia ta, baiño gainontzean ni oso...oso antiguala naiz eh! Telebisiyua ta txoakeyak ta... batez! Ez diot holako kaso haundiyik iten. Aitzen eoten naiz baiñon... holako zea haundirik ez.

- Ta geo euskeran kontua dala ta... hemendik Tolosa're kanbiatze al da?

- Gutxi! Ya pixka bat hor... Alegia aldea ta pixkat gora aldea hasi ezkeo pixka bat geixio igual baiño... [...] Tolosa... ez daka asko kanbiatzen.

- Esaten baitue Tolosako hizkera dala polittena ta garbiña ta...?

- Bai?

- Ez al due esaten?

- Ez dakit ba... hemendik Tolosa ez da asko...nei ez zait iruitzen behintzat!

- Tolosaldekua behintzat...hemen ingurukua ote dan hola...euskerarik garbiña ta polittena ta... ez al dezu beñe aitu hoi?

- Ez det aittu beñe...

10. Natura

10.1. Txantxangorria eta kukua

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Iturriotz, David
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: VIL-031/013
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:22:45. **Bukatu**: 00:24:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Txantxangorriari kukuak arrautza jartzen dio habian. Beste txori batzuei ere jartzen die. Hamabi-hamalau arrautza jartzen ditu kukuak. Kukua arrautzatik besteak baino lehen jaiotzen denez, inguruko arrautzak kabitik bota egiten ditu.

Transkripzioa

-Txantxangorriaren kabian...besten batek...

- Kukuba. Kukubak jartzen dio asko. Ta beste ba...beste batzueidi're bai. Kukubak ekibokaziyo haundiyak jende askok..."kukuba nola izango da asko, arrautza bakarra jartzen dik eta!". Hiri arrautzak zenek esan dik bakarra jartzen dula? Bakarra jartzen zio kabi bati! Baiño hamabi-hamalau arrautz itten dizkik eta lurrean uzten dizkit. Harek kabiya billatuko du baiña bakitte eh gutxi gorabehera ze kolore o ze...ze tamaña ta zea...hari jarriko dio eh! Jarriko dio arrautza hua, ta jeneralmente ekoiziyua...lenao jaiotzen da kukubana. Kuriosua da eh, zeatikan hoi? Zeatik hua jaiotzen da aurrena, ta han don inguru guztik heguakin dan...dana bota itten dittu, bea jabetzen da. Hoi hala da.

- Eta hori txantxangorriari hori gertatzen zaio orduan?

- Txantxangorriyai bai, beste bazuni're bai eh! Kukurruka ta hoiei ta...hoiei'e jartzen dizkiye baiño! Txantxangorriyai're jartzen dio.

-Bai, kantuak ere badaude eh, horrekin...hori esaten dutenak.

Txantxangorriai...kukua kabian...jartzen diola...arrautza jartzen diola ta...

- Bai, bai, bai, bai. Geo han bestia baldin bado hola... bota iten dittu heguakin hola...zea...bota iten dittu. Eta...hantxe, hua...huua eten, be... eten behari janaria eman ez ta...kukubak hoi du. Geo beste bat da "el quirrial" o kukuban berdiña iten...beste bat badao holaxe iten duna. Baiñon guk hemen ezautzen deu kukuba asko.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Baserriko lanak egin behar eta eskolara gutxi (VIL-001/002)

Eskolan oso gutxi ibilitakoa da. Neguan, irakaslearen etxean hartzen zituen eskolak. Udan, baserriko lanekin lagundu behar zuen etxean. Hamazazpi urterekin neskame joan zen

2. Sakamantekasen istorioaren jatorria (VIL-001/003)

Villabonanko Subijanan ibili zen lanean neskame joan aurretik. 45 minutuko bidea egin behar izaten zuen egunero oinez. Sakamantekasen beldur izaten zela kontatzen du. Sakamantekasen istorio hura, organoak lapurtzeko gertatzen ziren bahiketa eta hilketekin lotzen du.

3. Neskamea eta morroia zituzten baserrian laguntzeko (VIL-001/006)

Baserriko lanetan laguntzeko neskamea eta morroia zituzten baserrian. Baserrian nola hartu zituzten kontatzen du.

4. Baserriko bizimodua (VIL-001/007)

Lanerako bi idi eta bost edo sei behi izaten zituzten baserrian. Esnea eta txekorrak saltzetik ateratzen zuten bizimodua. Eguneroko jatorduak eta jai egunetakoak oso desberdinak ziren. Morokila zer den kontatzen du.

5. Zergak saihesteko trikimailuak (VIL-001/008)

Jasotzen zen uztaren zati handi bat zerga moduan herriari eman behar izaten zioten. Zerga hauek saihesteko ezkutuan ibili behar izaten ziren. Aita gauez joaten zen errotara gari-irina egitera.

6. Baserriko lanekin lagundu behar (VIL-001/010)

Nahiz eta gustuko ez izan, baserriko lanetan lagundu behar izaten zuen Pilarrek. Esnea partitzen lagundu behar izaten zion amari. Behorrek esnea lurrera bota zionekoa kontatzen du.

7. Esnea saltzera (VIL-001/012)

Esnezaleari saltzen zioten baserriko esnea. Ordainetan jasotako diruarekin ogia erosi ohi zuten. Esnea garraiatzeko astoa edo behorra erabiltzen zuten. Lagun batekin egiten zuen bidea Pilarrek.

8. Jateko berdina egunero (VIL-001/013)

Esnea zen baserriko diru-iturri bakarra. Jatorduak berdinak izaten ziren ia egunero: taloa eta esnea gosaltzeko, babarrunak bazkaltzeko eta gaztainak afaltzeko. Zerri edo ardiren bat ere hiltzen zen urtero. Haragia kontserbatzeko "zezindu" (zezinatu, gatzatu) egiten zuten. Prozesua kontatzen du.

9. Olio, gutxi eta garesti (VIL-001/014)

Errazionamendu garaian, olio urria eta garestia zen. Etxean bizi ziren pertsona kopuruaren arabera hainbeste olio jasotzen zuten. Olio asko zuten familiek, saldu egiten zuten. Zerriaren koipea ere erabiltzen zen sukaldean.

10. Errazionamendu garaia (VIL-001/017)

Gerraosteko errazionamenduaren funtzionamendua. Jakiak hartzeko ilara luzeak egoten ziren. Ogi beltza ematen zuten. Ogi zuria erosteko aukera egon zenean, etxean egindakoa baino askoz ere goxoagoa zela gogoratzen du.

11. Argindarra bai baina urik ez (VIL-001/018)

Argindarra betidanik ezagutu izan du etxean. Hala ere, huts egiten zuenean, kinkeak erabiltzen zituztela dio. Urik ez zuten. Euri-ura jaso eta hura erabiltzen zuten. Edateko ura iturritik ekartzen zuten. Hozkailua eta irratia askoz beranduago etorri ziren.

12. Garbiketa kontuak (VIL-001/019)

Lixiba egitera iturrira joaten ziren. Prozesua kontatzen du. Garbitasun pertsonala ere iturriko askan egiten zuten. Negu partean, erreina ur beroarekin bete eta etxean moldatzen ziren.

13. Betiko infernura (VIL-001/023)

Betiko infernura joango zenaren ideiarekin sufritzen zuen Pilarrek umetan. Garai hartako apaizak ahaltsuegiak zirela dio. Kongregazioko partaide ere ez zen sekula izan. Zergatia eta ondorioak kontatzen ditu. Bere bizitzan zehar, kristau fedea zalantzan jarri izan du behin baino gehiagotan.

14. Neskame izatea, lan nekeza oso (VIL-001/026)

14 urterekin lanean hasi zen fabrian. 18 urte egiteko zituela berriz, neskame joan zen Tolosako etxe aberats batera. Lehenengo egunetik etxeko nagusiaren irainak jasan behar izaten zituen erdaraz oso gutxi zekielako. Uniformea deskribatzen du. Lan baldintzak oso gogorrak ziren etxe hartan.

15. "Segunda doncella"ren zereginak (VIL-001/029)

"Segunda doncella" zen Pilar Tolosako etxean. Bere zereginak deskribatzen ditu. Etxeko sukaldariak alde egin zuenean, lan hura ere bere gain hartu behar izan zuen Pilarrek.

16. Ugazabaren kapritxo ulertezinak (VIL-001/032)

Udan, nagusiak Donostiara joaten zirenez, haien Tolosako etxeko altzari guztiak desmuntatu behar izaten zituzten. Pilarrek gaur egun oraindik ez du zergatia ulertzen.

17. Fabrikan baino hobe, neskame (VIL-001/033)

Alde handia zegoen bere baserriko bizimodu eta neskame zegoen etxeko bizimoduaren artean. Oso gaizki pasa zuen Pilarrek fabrian lanean igaro zuen sasoi hartan. Pilarren senargaiak animatu zuen fabrika utzi eta neskame lana hartzera.

18. Aita Villabonako kale-garbitzailea (VIL-002/002)

Aita kale-garbitzailea zen: esku-karroa, erratza, pala eta behiak erabiltzen zituen zaborrak biltzeko. Villabona lehen txikiagoa zen orain baino.

19. Diru gutxirekin moldatu behar (VIL-002/003)

Lehen baserrian behia, oiloak... zituzten. Aita funtzionarioa zen eta oso jornal baxua zuen. Senarrak zer soldata zeukan aipatzen du. Errazionamendu garaian, olio gutxi zegoen, baina harekin moldatu behar izaten zuten, bestela oso garestia baitzen.

20. Gerra osteko elikadura (VIL-002/004)

Etxean 10 senide ziren, baina goserik ez zuten pasa. Gerra ostean taloak, esnea, morokilak... jaten zituzten. Morokilak nola prestatzen zituzten azaltzen du.

21. Etxearen egitura (VIL-002/009)

Urte batean, uholdeak izan ziren, eta beheko ukuiluan zegoen behia lehenengo solairura igo zuten. Baserritik kalera etorri ziren bizitzera, eta etxearen antolamendua nolakoa zen aipatzen du.

22. Ikatza saltzen zuten beraiek (VIL-002/010)

Ikatza etxean zeukaten eta saldu egiten zuten: kiloka saltzen zen orduan, jendeak ez baitzuen gehiago erosteko dirurik. Ikatza Pasaiaitik ekartzen zuten kamioiez.

23. Erdaraz ez jakiteagatik lotsatuta (VIL-002/013)

Lehen beraien etxean ez zuten politikaz hitz egiten. Francoren garaian ez zegoen hauteskunderik, ezin zen euskaraz hitz egin... Erdaraz ez jakiteak lotsa ematen zieten; Maria Luisaren aitak ez zekien ondo erdaraz, eta bandoa jo behar izaten zuenean, etxeko leihoak ixten zituzten lotsagatik. Baserritarrei mespretxu egiten zitzairen. Gaur egun, senideen artean erdaraz egiten dute, hala ohitu baitziren txikitan.

24. Etxean politika gutxi (VIL-002/016)

Umeek ondo zekiten erdaraz, eskolan hala ikasten baitzuten. Umetan Francoren aldeko abestiak eta ekintzak egiteko esaten zieten eta ez ziren konturatzen zer egiten zuten. Franco Villabonatik pasatzen zenean, herria tente egoten zen. Beraien etxean ez zuten politikari buruz hitz egiten, baina beste etxe batzuetan kontzientzia politikoa txikitatik izan dute.

25. Gerra garaian, Zarautza joan ziren (VIL-002/017)

Gerra garaian, aita Villabonan gelditu zen, baina besteak Zarautz aldera joan ziren. Kanoi bat Amasan eta beste bat Fraisoron jarri zuten; bonbardaketa zenean, herrian beldurra pasatzen zuten. Zarautza ezkutuan nola joan ziren kontatzen du.

26. Euskara zapalduta (VIL-002/019)

Errazionamendu garaiko bandoa aipatzen du. Maria Luisaren alabari maistrak masailekoa jo zion euskaraz hitz egiteagatik.

27. Mojetan eta Bilboko eskola partikularrean ikasia (VIL-002/020)

Maria Luisak mojen eskolan ikasi zuen. Familia handia izateagatik, ez zuten ordaindu behar izaten. Eskolara gutxi joan ziren, ume txiki asko baitziren etxean. Bilbon egon zen izebaren etxean eta han eskola partikularretan ibili zen; asko ikasi zuen orduan.

28. Arroparekin nola moldatzen ziren (VIL-002/022)

Lehengo janzkera nolakoa izaten zen deskribatzen du: soinekoak, jertseak, berokiak... Caritasek arropa banatzen zuen garai hartan, baina beraien etxera ez zen horrelakorik iritsi.

29. Arroparen materiala (VIL-002/023)

Orduko arropa nolakoa zen azaltzen du: materialak, estiloak... Txankuluak erabiltzen zituzten lehen.

30. Karminaren prezioa eta neskamearen soldata (VIL-002/025)

Lehen karmina erabiltzen zuten ezpainak margotzeko. 18 urte zituela, neskame joan zen eta orduko jorrala zenbatekoa zen azaltzen du.

31. Udaletxeko funtzionarioentzako gordetako dirua (VIL-002/028)

Lehen ere diruarekin ordaintzen zuten errenta beraiek. Aita udaletxeko funtzionarioa zen, eta hil ostean seme-alabei eman zieten harentzako gordetako dirua.

32. Ezkondu aurreko lanak (VIL-002/030)

Eskolara gutxi joan ziren, etxean lan egiteko beharra baitzegoen. 18 urte zituela, Subijana tela-fabrikan egiten zuen lan; ahizparekin txandaka moldatzen zen lanera joan eta etxea gobernatu ahal izateko. Gerora, neskame joan zen, baina handik urtebetera ezkondu egin zen eta utzi egin zuen lana.

33. Lehengo jolasak (VIL-002/031)

Lehengo jolasak aipatzen ditu: sokasaltoko abestia, tabak, pilota, gordeketan, lau izkinak...

34. Euskaraz egiteko lotsa (VIL-002/032)

Kalean erdaraz egiten zuten, ez baitzuten euskaraz hitz egiten uzten. Erdaraz ez jakiteagatik lotsa pasatzen zuten beraiek, baina behin emakume batek euskal hiztunak defendatzeko emandako erantzuna gogoan du. Beraiek etxean erdaraz hasi ziren hitz egiten senideen artean.

35. Kongregazioetako ohiturak (VIL-002/036)

Orduko kongregazioetako ohiturak aipatzen ditu: mezak, debekuak, elizara joateko janzkera...

36. Villabonako festetako giroa lehen (VIL-002/041)

Lehengo festa-giroa oraingoa baino hobe zen: musika, txaranga, nesken leiho azpian abesten... Dantza asko egiten zuten herrian.

37. Diru gutxi zuten, baina hura ondo administratzen zuten (VIL-002/045)

Diru gutxi zegoen garai hartan, baina hura ondo administratzen ikasi zuten. Ama ondo moldatzen zen diru gutxirekin janari goxoa prestatzeko.

38. Zapatak kalamuarekin konpontzen (VIL-003/005)

Asteasuko zapata-dendan lana egiten zuen erositako motor txiki baten laguntzaz. Motor harekin konpontzen zituen zapatak. Zapatak eskuz josten zituzten, kalamuz. Ez zeukan osteko makinarik, oso garestiak zirelako.

39. Kalamuz zapatak nola konpontzen zituzten (VIL-003/006)

Kalamuz zapatak nola josten zituzten azaltzen du. Ondoren pikia (argizariaren antzekoa) ematen zioten.

40. Donostiara zapatak egiten ikastera (VIL-003/009)

Beti izan ditu bezeroak. Zapatak ere egiten zituen. Donostian ikasi zuen zapatak egiten. Atzeritarrentzat egiten zituzten zapatak Donostian. Txinatik datozen zapatak penagarriak iruditzen zaizkio. Neurrira egiten ziren zapatak beti pixka bat handiagoak egiten ziren. Lehen ez zen moda jarraitzen. Elizaren atarian janzen zituzten zapatak, besterik ez.

41. Zapatak eta arropak asko irauten zuten (VIL-003/010)

Zapata pare bat lau edo bost urte irauten zituen. Trajeak ere asko irauten zuten.

42. Zapaten zola eskuz nola konpontzen zuten erakusten digu (VIL-003/012)

Zapaten zolak nola konpontzen zituen erakusten dio kamerari. Zola larruzkoa zen eta busti ondoren kolpeka gogortu egiten zuten.

43. Zapatak egiteko larru desberdinak (VIL-003/013)

Zapatak erabat larruzkoak izaten ziren. Larru mota desberdinak zeuden, goikoari 'boskala' deitzen zaio, 'tafiletia' (ahuntz-larrua) behekoari, finagoa. Zola da azpiko larrua. Ganaduaren larrua eta ondutakoa desberdinak dira. Garai batean sei urtean uretan edukitzen zuten larrua ontzeko eta orain berriaz hil eta segituan erabiltzen da. Horregatik oraingo zolak okerragoak dira eta hezetasuna pasa egiten zaie.

44. Bere kontura lanean jarri zen (VIL-003/017)

Ikasten ari zen bitartean egunean bost ordu egoten zen eta astean 40 pezeta ematen zizkioten. Bere kontura jarri zenean zerbait irabazten hasi zen. Gaur egun konponketetatik ezin da bizi. Ordutegirik gabe egiten zuen lan. Zerbait nahi duenak sakrifikatu egin behar duela pentsatzen du.

45. Udara batean morroi bizikleta lortzeko (VIL-003/023)

Txirrindularia izan da. 11 urte zituela morroi bezala udara pasatzeagatik bizikleta emango ziotela agindu zioten. Ama haserretu egin zitzaion egindako tratuarengatik.

46. Txirrindulari-lasterketak (VIL-003/024)

Txirrindulari-lasterketetan parte hartu zuen. Bizikletan arrakasta izateko ezin da besteen errukirik izan. Tolosan izan zuen lehen lasterketa eta zazpigarren iritsi zen. Profesionalekin ere korritu zuen Bizkaian.

47. Txirrindulariek babes gutxi zuten (VIL-003/026)

Txirrindulari afizionatuek ez zuten ezer kobratzen, nahiz eta marka onak egin. Aurrera ateratzen zirenak dirua zutenak ziren, autoen babesa zutelako. Frantziako itzulira joaten zirenei hiru urte beranduago ordaintzen zien.

48. Euskal txirrindulari ezagunak (VIL-003/027)

Euskal txirrindulari ezagunak: Pasaia Otañtilde, Hondarribiko Errandonea, ... Txirrindulari horiek dirua zuten eta ongi jaten zuten eta autoz eramaten zituzten.

49. Nolako bizikletak zituzten (VIL-003/031)

Bizikletak altzairuzkoak izaten ziren. Garai hartan atera zituzten bi platerekoak. Aurreko belaunaldikoek pinoi bakarreko bizikletetan ibiltzen ziren. Oraingo erraztasunik ez zegoen.

50. Garai bateko txirrindulariak eta txirrinak (VIL-003/032)

Frantziako itzuliak lehen ere bazuen ospea. Ez zeuden gaur bezain beste karrera. Garai hartan ez zegoen dirurik. Afizio handia zegoen. Bizikleta asko gustatzen zitzaion. Garai bateko txirrindulari onak aipatzen ditu.

51. Errepideetan gauzak asko aldatu dira (VIL-003/038)

Orain beldurra ematen du errepidean ibiltzeak. Lehen autoak ez ziren apenas ibiltzen baina errepideak okerragoak ziren. Bizitzak buelta handia eman duela pentsatzen du.

52. Lutoa (VIL-004/003)

Nahiz eta umeak izan, aitaren heriotza zela eta, urte bete pasa zuten lutoz jantzita. Bigarren urtean, "luto erdia" zeritzona betetzen zuten: arropa ilunak edo zuri-beltzak. Ama alargunak bi urte pasatzen zituen lutoz jantzita. Nola jantzen zen azaltzen du.

53. Argizaiolak, kandela zuriak eta ofrendak (VIL-004/004)

Elizan, familiako ehorztokiaren gainean, argizaiola bat egon ohi zen. Heriotzaren bat gertatzen bazen, argizaiolaz gainera, bi kandela zuri pizten zituzten bi urtez eta igandero, ogia eraman behar izaten zuen sendiak ofrenda moduan.

54. Katgoria desberdineko hileta elizkizun (VIL-004/005)

Kategoria desberdineko hileta elizkizunak zeuden. Desberdintasun nagusiak aipatzen ditu. Elizkizunak nolakoak izaten ziren kontatzen du.

55. Zumaiako "María y José" ikastetxeko oroitzapen onak (VIL-004/007)

Amasako eskolara joan zen hasieran. Hamabost urterekin Zumaiako "María y José" ikastetxera bidali zuen amak bi urtez. Barneko ikasle moduan egon zen. Oso oroitzapen onak ditu garai hartaz.

56. Ikasle garaia (VIL-004/008)

Erdaraz egin zituen ikasketak. Bi ikasliburu zituzten: "La perla de la juventud" eta "Flora". Irakasgai desberdinak buruz ikasten zituzten, erdaraz, zer esaten zuten ulertu gabe gehienetan. Oso gustura joan izan da beti eskolara.

57. Villabona "Pequeño París" zen (VIL-004/009)

Nahiz eta Amasan euskaraz egiten zen, nola edo hala ikasi zuten erdaraz. Gerra hasi zenean, euskaraz hitz egitea galarazi zuten. Villabonari "Pequeño París" zergatik esaten zitzaion kontatzen du. Kanpotar gutxi zeuden, hala ere. Euskaraz ez dakienari erdaraz egin izan dio beti berak.

58. Zumaiako kolegioko bizimodua I (VIL-004/011)

Zumaian ikastetxean egon zeneko kontuak, 15 urterekin. Goiz jakitzen ziren. Komunak handiak ziren. Hotza pasatzen zuten. Egunero meza zuten, gosalduta aurretik. Gosari ona izaten zuten. Jolastordua baloiarekin ibiltzea gustuko zuen. Arratsaldean arrosarioa errezatu ondoren, merienda. Jaten zutena aipatzen du. Berandu arte zituzten klaseak.

59. Zumaiako kolegioko bizimodua II (VIL-004/012)

Ostegunetan paseoa izaten zuten, mojekin. Igandetan ere bai. Ikastetxeko jantziak eta uniformeak; kapela. Hondartzan, bainujantzi gabe, jantzita; ez ziren bainatzen. Lehengo bainujantziak. Bainulariak (bañeroak). Albornoza jantzi beharra. Interna gehienak familia dirudunetakoak ziren; baserritarak bi.

60. Zumaia tik baserrira buelta (VIL-004/015)

Zumaia tik bueltatu zenean, etxeko lanak egiten eta josten ikasten ibili zen. Nahiko libratu zen baserriko lanetatik. Gerra hasi zenean, anaiei soldadu joatea egokitu zitzaion. Orduan bai, baserriko lanak egin behar.

61. Gerraren hasiera nola izan zen (VIL-004/016)

Gerra hasi zenekoa. 1935ean, errege egunean, irratia iritsi zen etxera. Gerraren hasieraz irratitik jakin zuten. Ama kalera joaten zen, astoarekin enkarguak egitera; ahizpa biak ez zituen bidaltzen. Bankuko enkargatuak diru pixka bat etxera eramateko aholkua eman zion, eta beldurtuta bueltatu zen ama. Telefonen markako irratia zuten. Orduko emisorak.

62. Lehen tirohotsak; nafarrak sartu ziren (VIL-004/017)

Aitonarekin nobenatik bueltan zetoze la, metraila hotsa entzun zuten. Aitonak gurdi hotsak zirela esan zien. Handik gutxira nafarrak sartu ziren herrian, eta bi kanoi jarri zituzten Amasan.

63. Anaiak gerrara eraman zituzten (VIL-004/018)

Nafarren beldur ziren, eta anaiak ezkutatu egin ziren, leizezulo batean. Ez zuten asko iraun. Gero gerrara deitu zituzten. Bigarrena erreketen joan zen.

Margaritak paketeak eramatera joaten zirela frontera, eta konbentzitu egin zuten.

64. "Gorrien" zein "zurien" beldur (VIL-004/019)

'Gorriak' eta 'zuriak', denak ei ziren arriskutsuak. Politikaz ez zuen ulertzen, baina ezagutu zituen mutilak jatorrak iruditzen zitzaizkion, errepublikanoak zein nazionalistak. Beldurra.

65. "El abuelo" hegazkina (VIL-004/020)

Erretoreak meza isila eman zuen. "El abuelo" hegazkina ikusi zuten etxerako bidean. Koltxoia jarri zituzten leihoetan. Kanoikadak.

66. Gerra urteak, tristeak (VIL-004/022)

Gerrako urteak tristeak izan ziren. Mutilak falta ziren, eta berririk ez zuten. Eskutitzak idazten zituzten; zentsura pasatzen zuten. Erdaraz idazten zuten, hala baitzeuden ohituta. Soldadu joandakoak bisitan etortzen ziren. Soldadu andaluzak Amasako etxeetan hartu zituzten. haiek ez zuten gerrako kontu asko esaten.

67. Fusilatutako herritarrak (VIL-004/023)

Alkatea hil egin zuten, nazionalista, eta alkate karlista jarri. 16-17 urteko mutila, txistularia, hil zuten, euskal kantak jotzen zituelako. Eliza nazionalen alde zegoen, eta haiek esaten zutena egiaztat zuten. Arin apaiza ere hil zuten, Ararsaten. Isildu, beste erremediorik ez.

68. Soldaduen ibilera penagarriak (VIL-004/024)

Gerra urteak gogorak izan ziren. Senarra ere soldadu joan zen. 1937ko abuztuan senarrari bi tiro eman zizkioten, eta anaia biharamunean hil zuten. Senarra libratu egin zen. Anaiez gainera, lagun asko zituen soldadu, eta kezkatuta egoten zen. Fronteko kontuak gerora kontatu zituzten. Hotza eta garbitasun falta.

69. Gerraosteko miseria (VIL-004/025)

Gerra ondorenean, gosea. Andoainera ezkondu, eta berehala hasi zen eskasia: ogi falta. Baina baserrian jatekoa ez zen falta, baina oliorik ez. Isilka hiltzen zituzten abereak. Kontrabandoa. Errotak itxi egin zituzten, eta artorik ezin eho. Patatak salbatu zituen.

70. Gerraostean babarruna eta patata entregatu beharra (VIL-004/026)

Babarruna eta patata errekisatu egiten zituzten. Lursailen arabera kalkulatzeko zuten zenbat kendu. Isuna jartzen zuten esandako epean entregatzen ez bazuten. Baina patata eguraldi txarrarekin ateraz gero, hondatu egiten da. Entregatu, eta zkuetan usteltzen bazen, baserritarrari botatzen zioten errua.

71. Gerraosteko errazionamendua (VIL-004/027)

Errazionamendua. Boniatoak. Hiru kategoria zeuden; okerrera 'primera' zen (jan gutxien jasotzen zuena). Ogia gogorra zen. Haragia ere errazionatuta zegoen. Kartila zuten. Dendara joaten ziren janaria erostera. Kafearen ordezkia egiten zuten, artoa edo garia labean erreta.

72. Amasatik Andoainera ezkondu (VIL-004/028)

Amasatik Andoainera joan zen bizitzera, ezkondu zenean. Ama faltan somatzen zuen. Koinatarekin oso ondo moldatu zen. Andoain Villabona baino gehiago zen, handiagoa; industria gehiago eta inportanteagoa. Kanpotar gutxi zen orduan Andoainen zein Villabonan, eta euskaraz egiten zen kalean. Euskara berdina da bietan; Urnietan, Usurbilen eta Alegian diferentea.

73. Frantsesa noiz entzuten zuen (VIL-004/030)

Zumaian kolegioan zegoela, neska frantses baten oso laguna egin zen. Bi izeba mojek ere frantsesez hitz egiten zuten, Uztaritzen. Amasako mojek ere frantsesez egiten zuten beraien artean.

74. Apaizen garrantzia (VIL-004/032)

Apaizen garrantzia. Apaizen zereginak zeintzuk ziren. Meza isila zer zen azaltzen du (gerra garaikoa). Apaizaren esana inportantea zen. Bekatuak. Kristauaren betebeharrak. Bataioak.

75. Dirurik ez zen etxeetan (VIL-004/033)

Orain normala da arrimatzea, ezkondu gabe. Dibortziorik ez zen lehen. Emakume batzuek asko sufritu zuten. Diru gutxi zen etxeetan, eta miseria handia. Inbidia handirik ez zuten pasatzen, hala ere, denak berdin zeudelako. Bziio gutxi orduan.

76. Amasako festak (VIL-004/035)

Amasako festak, San Martinak. Oilasko jokoak. Ttun-ttuna Mayok jotzen zuen. Ilundu orduko etxera. Zumaiaitik bueltatu zenean, nobioarekin hasi zen. Anaiaren bitartez ezagutu zuen.

77. Oilasko jokoak nola izaten zen (VIL-004/036)

Oilasko jokoari buruzko azalpenak. Oilasko edo dirua ematen zuten baserrietan. Norbait hil bazen, errezatu egiten zuten. Oilaskoak nola hiltzen zituzten, plazan.

78. Amasako festak II (VIL-004/037)

Amasako festak. Erroskila saltzaileak eta barkileroak. Dantza pixka bat egin, eta goiz erretiratzen ziren. Gabonetan ere etxez etxe ibiltzen ziren kantuan, eta Santa Agedan ere bai. Bertsolaririk ez zen Amasan.

79. Bertso paperak eta kantuzaletasuna (VIL-004/039)

Bertso paperak saltzera joaten ziren Amasara. Goizeko meza ondorenean, kantatu eta saldu egiten zituzten. Kanta asko zekizkiten.

80. Bizimodua nola aldatu den (VIL-004/041)

Gaur egungo gazteen gustuak eta lehengoak desberdinak ziren. Txaketarik gabe ezin zen ibili kaletik lehen, Donostian. Beatles taldea. Sudurrean belarritakoak jartzea.

81. Goikoetxeazpi baserria (VIL-005/002)

Goikoetxeazpi baserriaren kokapenaz ari da. Iturriaren eta labaderoaren aldamenean kokatuta zegoen baserria. Hala ere, betidanik ezagutu izan du ura etxean. Argindarra ere bazen bera jaio zenerako.

82. Baserriko lanak (VIL-005/003)

Baserrian egiten zituzten lanak izendatzen ditu. Idiak hartuta, basoan botatako enborrak garraiatzen ibiltzen zen aita.

83. Mojen eskola (VIL-005/006)

Moja eskola zegoen Amasan, elizaren aldamenean. Neska zein mutil joaten ziren bertara. Eskolako ikasgaien artean, laboreak egiten irakasten zieten. Euskaraz ikasi zuten.

84. Odol transfusioak etxean (VIL-005/009)

Praktikantea eta medikua ibiltzen ziren etxez etxe. Bere anaiari umea zela pneumonia diagnostikatu ziotenean ere beharrezko odol transfusioak etxean egin zizkion medikuak.

85. Santuei promes egin (VIL-005/010)

Santuei promes egitea ohizkoa zen. Seme gazteena sendatzen bazen, Amasatik San Rokeraino (Arano, Nafarroa) oinez joango zirenaren promesa egin zuten Pepitaren gurasoek.

86. Umetan bakarrik sekula ez (VIL-005/014)

Umetan ez ziren sekula jolasean bakarrik aritu. Baserriren batean edo mojekin tertulian pasatzen zituzten igande arratsaldeak; bakarrik sekula ez. Asteasuko jaietara, egun argiz itzultzeko, lagun taldea korrika nola joan ziren kontatzen du.

87. Ezkontza eguna (VIL-005/021)

19 urterekin ezkondu zen Pepita. Ezkontza eguna dakar gogora. Ezkondu eta hurrengo egunean, Madrilera joan ziren. Han gertatutako gorabeherak kontatzen ditu senarrarekin batera.

88. Ikaragarria zen Madril (VIL-005/025)

Ezkonberritan, Madrilera joan ohi ziren urtero. Hiri ikaragarria iruditzen zitzaien. Metroz ibiltzen zirela kontatzen dute. Pepitaren senarrak kontatzen du pasartea

89. Morroi, Hernanira (VIL-006/002)

Astigarragako kaletik Amasara joan zen bizitzera. Osabaren baserrira. Aita berriz ezkondu, eta Astigarragara bueltatu zen. 12-13 urterekin, morroi joan zen Hernanira.

90. Igande arratsaldeak libre (VIL-006/005)

Morroi denboran, igande arratsaldeak jai izaten zituen. Jolastera joan ohi zen. Txori habi bila ibiltzen zen.

91. Dotrina, derrigorrezkoa (VIL-006/009)

Dotrina ikastea derrigorreko kontua zen. Ez zegoen huts egiterik. Astigarragan bizi zela ikasi zuen dotrina.

92. Mezara joan behar (VIL-006/010)

Jaiero mezara joaten ziren. Mezara joan gabe geratuz gero, zigorra aste guztirako. Apaizak etxekoei abisatzen zien mezara joaten ez baziren, eta amaordeak jan gabe uzten omen zituen.

93. SACEMen hasi eta apopilo Legarbarrenan (VIL-006/022)

Hernanin morroi egon eta gero, Villabonako SACEM lantegian hasi zen lanean. Autoentzako piezak egiten zituen. Lanean zortzi ordu egin eta gero, baserriko lanetan aritzen zen. Apopilo zegoen Legarbarrena baserrian.

94. Mutila izan banintz, gerrara (VIL-007/007)

Gerra hasi zenean 21 urte zituen. Asteasun zegoen amarekin. Hiru egun baino ez zituzten egin kanpoan. Bizilagun bati gertatutakoa kontatzen du. Hura bezala, beste asko izan ziren erailak.

95. Lehengusu errepublikanoaren gorabeherak (VIL-007/012)

Errepublikak aldarrikatu zen garaian Villabonako bizilagun gehienak kontra zeudela kontatzen du. Etxean hartu zuten lehengusu umezurtzak ordea, errepublikaren aldekoa izanik, alde egin beharra izan zuela dio. Haren bizipenak kontatzen ditu.

96. "¡Chicas milicianas con pantalones!" (VIL-007/014)

Emakumezko milizianoek galtzak erabiltzen zituztelako harritu ziren. Nafarroa aldetik etorri ziren.

97. Villabonako batzokia (VIL-007/016)

Villabonako batzokira joaten zirela kontatzen du. Mitinak egoten ziren. Poxpolinaren ereserkiaren zati bat dakar gogora. Nazionalista eta Karlisen arteko gorrotoa oso nabaria zela dio.

98. Baserriko produktuak azokan eros zitezkeen (VIL-007/018)

Baserritarrak merkatura etortzen ziren jakiak saltzera. Udaletxearen aldamenean egiten zen merkatua. Laranja azalak bolbora egiteko erabiltzen zirenez, zuritutako laranjak merke erosten omen zituzten.

99. Donostiatik arraina saltzera (VIL-007/020)

Donostiatik etortzen ziren arrain saltzaileak. Emakumezkoak izaten ziren normalean. Antxoa merke izaten zen eta baita bisigua eta angulak ere. Haragia baino merkeagoa izaten zen arraina normalean.

100. Aitaren ogibidea (VIL-007/022)

Soldatak baxuak izaten ziren orduan. Aitak Subijanarenean egiten zuen lan oihalak tindatzen.

101. Eroketak (VIL-007/023)

Eroketak egiteaz ari da. Nola eta zenbatean behin egiten zen kontatzen du. Zer erosi eta hura nola ordaindu.

102. Villabonako inauteriak (VIL-007/025)

Herririk herri ibiltzen ziren festetan. Tolosan bezala, Villabonan ere ospatzen ziren inauteriak. Hauek deskribatzen ditu

103. Igandero musika plazan (VIL-007/026)

Igandero musika izaten zuten plazan. Bekatua zenez, dantza lotuan egiten ez zuela ikasi dio. Nesken artean egiten zen dantza eta noizbehinka, mutilak gerturatzen zitzaizkien eskean.

104. Mojen eskola (VIL-007/031)

Hasiera batean Amasan baino ez zegoen moja eskola. Indarra hartzen joan ziren heinean, Villabonara etorri ziren. Desberdintasun handia zegoen mojen eskolan ala herriko eskolan ikasi. Alde ekonomikoa ere nabaria zen.

105. Etxean euskaraz, eskolan erdaraz (VIL-007/032)

Eskolan erdaraz egiten zuten, etxean aldiz euskaraz. Senideen artean erdaraz egiten zutenean, aita errieta egiten zien gurasoek ez baitzekiten erdaraz. Pilaren aita, eskolan erdaraz egiten zelako, 8 urterekin lanean hastea erabaki zuen .

106. Eskean ibiltzen zirenak (VIL-007/036)

Sukaldeko ateak irekita egoten zirenez, limosna eske bertaraino sartzen ziren. Inguruko herrietako jendea izaten zen eskean ibiltzen zirenak. Fraide eta mojak eskean ikustea ere ohikoa zen.

107. Koinatu jostunari debalde laguntzen (VIL-007/038)

Koinatua jostuna zuen eta hari laguntzan aritzen zen Pilar. Atari berdinean bizi ziren. Hark erakutsi zion josten. Ordu asko pasatzen zituen lanean eta debalde gainera. Lan handia zuen trajea josteak, merke saltzen ziren hala ere. Bilbotik ekartzen zituen oihalak.

108. Orduko janzkera (VIL-007/040)

Orduko janzkera deskribatzen du. Oinetan alpargatak eta eskalapoiak euria zenerako. Eskolara uniformeak jantzita joaten ziren baina irten orduko aldatu egiten zituzten arropak. Fabrikako mantak tindatu eta berokiak egiten ituztela kontatzen du. Soineko berririk bazen, Aste Santurako josten zen.

109. Elizaren indarra (VIL-007/043)

Konfesatzea, nahi zuten bezain beste aldiz joaten zen. Nola izaten zen kontatzen du. Jaunartzea ere gehiengoak egiten zuen. gaur egun duena baino indar handiagoa zuen elizak lehen.

110. Villabona zingira bat izan zen (VIL-007/045)

Garai batean Villabona ez omen zen existitzen. Amasan zegoen eliza. 1909. urtean eraiki zuten Villabonako eliza nahiz eta Amasako apaiza kontra egon. Villabona garai batean zingira bat zela kontatzen zuen Pilarren amak.

111. "Suilla" eta "burukotia" (VIL-008/007)

"Suilla" zer den azaltzen du Maritxuk. Bere amonaren kontuak. "Burukotia". Iturrira ur bila joateko suilaren uztaiak distiratsu eramaten zituzten. Iturria non dagoen.

112. Labaderoak (VIL-008/008)

Encarnak beti ezagutu du ura etxean. Bi labadero zituzten etxean; batean, hankak ur barruan sartuta garbitzen zen.

113. Etxean egindako abarkak eta "mantarrak" (VIL-008/009)

Gizonezkoen jantziak eta oinetakoak. Etxean egindako larruzko abarkak. Uretan sartzen zituzten. "Mantarrak", galtzerdien orde. "Bruxa" beltza eta panazko txalekoa zeraman Maritxuren aitak. Brusa zeinek erabiltzen zuen. Trajea.

114. Eskolan kantuak eta otoitzak (VIL-008/012)

Eskola garaiko kontuak. Maritxu ahizpa txikiarekin joaten zen. Mojetan zebiltzan. Neska-mutilak batera. Otoitzak euskaraz ziren, baina eskola erdaraz. Kantatu egiten zuten. Encarnak "España querida" abestia kantatzen du, 1921ean eskolan kantatzen zutena.

115. Eskolako liburuak (VIL-008/013)

Eskolako liburuak eta dotrina. "La perla de la juventud" eta "La flora". Ondo ikasi zuten idazten. "Lección de cosas" liburutik ikasi zituen hilabeteen izenak Maritxuk. Ezer ez zekiten erdaraz, eta buruz ikasten zuten. Mojak frantsesak ziren, baina euskaldunak ere baziren tartean; frantsesez hitz egiten zuten beraien artean.

116. Bazkariarekin eskolara (VIL-008/014)

Ume batzuk urrutitik joaten ziren, eta bazkaria eramaten zuten. Sor Monicak prestatzen zien. Jaurnartzea egin ondoren, mutilak aparte jartzen zituzten. Komuna. Urik ez zen eskolan. Eskola non zegoen.

117. "Jesus Jesus" kantua (VIL-008/018)

"Jesus Jesus" kanta erlijiosoa kantatzen dute, Gabonetakoa.

118. "Artzain buru zuri bi" (VIL-008/020)

"Artzain buru zuri bi" kantatzen dute. Gabonetako kanta.

119. "Erregiak datoz" (VIL-008/022)

"Erregiak datoz" gabon kanta.

120. "Hiru errege" (VIL-008/023)

"Hiru errege" gabon kanta, elizan kantatzen zutena.

121. Lehengo bideak (VIL-008/025)

Encarnaren etxera bide ona zegoen, baina beste etxe batzuetan ez. "Bidetxur" beltza, ikatzez eginda. Senide elbarriengatik egin ei zuten lehen bidezidorra, haiek astoan joateko. "Gorputz bideak".

122. Amasa, Villabona baino zaharragoa (VIL-008/027)

Amasa-Villabona. Villabonako baserriak aipatzen dituzte. Oso gutxi zeuden. Barrenetxe, Zubiaurre... Villabona oso txikia zen sasoi batean; industriarekin handitu zen. Amasa lehenagokoa da. Amasako parrokia eta Santa Kruz ermita.

123. Amasako prozesioak eta Aste Santua (VIL-008/028)

Amasako prozesioak. Aste Santuko ospakizunak.

124. Elizako kantak, gaztelaniaz (VIL-009/003)

Amasan elizan gaztelaniaz eta latinez kantatzen zuten. Aste Santua. Maiatzean kantatzen zuten kanta abesten du, amabirginari eskainia: "Adios, Maria". Maiatzeko loreak.

125. Mezak eta arrosarioa (VIL-009/004)

Gerra aurrean sermoia euskaraz zen, eta meza latinez. Gerra ondoren euskara galarazi zuten. Don Jose Bastarrika apaiza erdaraz ezin moldatu, eta denak barrez hasi zirenekoa. Arrosarioak euskaraz izaten segitu zuen. Etxean egunero errezatzen zuten etxean. Misterioak, letaniak... aitonaren oroitzak amaigabeak ziren.

126. Pazkoakoa egiteko txartela (VIL-009/005)

Garizuman suaren bueltan elkartzen ziren Encarna eta. Pazkoazkoa egiteko txartela ematen zuen apaizak; horretarako dotrina jakin behar zen.

127. Pazkoakoa egiteko txartela II (VIL-009/007)

Amasako erretorearengana joaten lotsatu egiten zen. Errespetua eta beldurra.

128. Amasako jaiak, oilasko jokoa eta dantza soka (VIL-009/008)

Amasako jaiak, san martinak. Oilasko jokoa betidanik egiten da. Dantza soka. Gaur egun Andoainen azeri dantzari neskek ez ei dute dantza egin nahi izaten. Erroskila ematen zieten dantza sokan ibilitakoei. Tomaxa erroskila saltzaileak egiten zuen jokoa. Zentimoak, errealak eta pezetak.

129. Ezkontzako txanponak (VIL-009/010)

Encarna ezkondu zenean, bi errealeko zilarrezko txanponei urre bainua eman zieten. Duro zilarrak ditu gordeta Maritxuk, ezkontzakoak. Hiru kiloko ogiak pezeta bat baino gutxiago balio zuen.

130. Hildakoen omenez (VIL-009/011)

Santu guztien eguneko ogiak hagetan sartzen zituzten. Hiru adarreko ogia ofrenda moduan, eta kandelak. Eskubilduak. Errespontsu motak.

131. Maritxuren amonaren hileta (VIL-009/012)

Bere amona hil zenekoa kontatzen du Maritxuk. Pilarica egunez egokitu, eta guardia zibilak izan ziren aldarean, elizkizunean.

132. Amasa eta Villabona, pikea (VIL-009/015)

Villabonakoak dotoreak ziren, eta Amasakoei burla egiten zieten. Neska haiek airean bidaltzen zituzten. Baserritarrak gutxietsi egiten zituzten. Villabonari "Pequeño Paris" deitzen zioten. Industria zegoen Villabonan. Maritxu Villabonan egon zen lanean, eta hangoak ere denak ezagutzen ditu.

133. Subijana etxea (VIL-009/017)

Villabonako handikiak. Subijana etxeari buruzko kontuak. Bi bizitzakoa zen. Maritxuk lagunak zituen han neskame. Irualdetan lo ere egin zuen behin Maritxuk, etxeko nagusiak kanpoan izan eta jaietan, santiotan.

134. Irualdeta etxea (VIL-009/018)

Irualdeta etxean nor bizi zen eta nolakoa zen. Kristau ez zirenak ez zituzten kanposantuan lurperatzen. Don eta Doña ziren, eta orain ere hala gogoratzen dituzten.

135. Umetako kantak, erdaraz (VIL-009/020)

Txikitako Amasako kantak, erdaraz. "Tengo una muñeca de color azul" eta "Lindo ratón"; jolasa egiten zuten kanta horrekin, zapi batekin.

136. "A la kinkirriñera" (VIL-009/021)

Korroan kantatzen zuten "a la kinkirriñera". Jolasa nola zen azaltzen du.

137. "Kukurruku" kantu-jolasa (VIL-009/022)

"Kukurruku" kantu-jolasa.

138. "Pater noster txikiya" (VIL-009/023)

Aitonak erakutsi zion "Pater noster txikiya" esaten du Encarnak, otoitza.

139. Goizeko eta gaueko otoitzak (VIL-009/024)

Goizeko eta gaueko otoitzak. "Amandre Santa Ines" aipatzen dute. "Agur Maria".

140. Ordua jotzen zuenean abesten zutena (VIL-009/025)

Ordua jotzen zuenean eskolan kantatzen zuten abestia kantatzen du Maritxuk.

141. "Haurtxo txikia" kanta (VIL-009/027)

"Haurtxo txikia" sehaska kanta

142. "Pello Joxepe" (VIL-009/028)

Ahizpa loarazten egoten zen Maritxu, eta behin nahi gaba airean bota zuen. "Pello Joxepe" kantatzen dute.

143. San Nikolasen kanta (VIL-009/030)

San Nikolasetan etxez etxe ibiltzen ziren kantu eskean. Kantatu egiten dute. Erdaraz hasten dira eta gero euskaraz. Urte batean mutiko bat gotzainez jantzi zuten.

144. Inauterietako kantak (VIL-009/031)

Inauterietan ez ziren etxez etxe ibiltzen. Inauterietako hartza. Orduko kanta, erdia erdaraz eta erdia euskaraz. "Ikusi nuenian". Santa Ageda eskerako ohiturarik ez dute izan. Gabonetan mutilak ibiltzen ziren etxez etxe.

145. Aita, arotza (VIL-011/002)

Arotza zen aita. Pinuzko oholak, listoiak eta antzerakoak egiten zituen. Hil kutxak egiteko oholetan hildakoaren inizialak idazten laguntzen zion umetan Tomasek. Hamabost urte zituela, aitaren nagusiak Zizurkilen etxea utzi zien eta bertara joan ziren bizitzera.

146. Eskola garaia (VIL-011/003)

Villabonako eskolan hamabi urtera bitartean ibili zen. Mutilen eskola zen. Eskolako irakaslea nolakoa zen eta irakasgaiak zeintzuk ziren kontatzen du. Zizurkilera etorri zirenean, aparteko eskolak ematen zizkion Imaz zeritzon irakasle batek.

147. Tranbiarako dirua gorde eta Donostiara bizikletaz (VIL-011/004)

Jolasei buruz hitz egiten du. Pilota eta bizikleta zituen gogokoen. Villabonako Aierdiren bizikleta tailerrera joaten zen laguntzera. Enkarguak egitera bidaltzen zuten sarri Donostiara. Tranbiarako dirua gorde eta bizikletaz joaten zela kontatzen du.

148. Hamabi urterekin hasi zen tronpeta jotzen (VIL-011/005)

Hamabi urte betetzerako Villabonako musika-bandan tronpeta jotzen zuen. Hilean hamabost pezeta ordaintzen zituen solfeo eskolengatik eta tronpeta ere bertan lagatzen zioten. 1951. urtean, Andoaingo jaietara joan bezperan zuzendaria hil zela kontatzen du.

149. Dena zen bekatu (VIL-011/006)

Villabonako plazan igandero jotzen zuen musika-bandak. Dantza lotuan egitea debekatuta zegoela ondo gogoratzen du. Kongregazioan eta apaizarekin arazoak izaten zituzten horregatik.

150. "Primera", "segunda" edo "tercera"ko hiletak (VIL-011/007)

Elizan abesten zuen Tomasek. Hiru klase desberdineko hileta elizkizunak zeuden. "Primera"koetan abesten zuten bakarrik. Hauen arteko desberdintasunak kontatzen ditu. kanpaiak jotzeko modu desberdinak bazeuden baina ez ditu oso gogoan.

151. Uretako jolasak (VIL-011/009)

Igeri egiten ikasi zuen. Presa azpian ibiltzen ziren igerian bainujantzi eta guzti. Neskak ez ziren joaten. Piraguetan ere ibiltzen ziren.

152. "Otxote beandu" (VIL-011/010)

Kantuan aritzeko diru-laguntzak izaten ziren. "Otxote berandu"ko partaide izan zen Tomas.

153. "Etxe hontako kristau guztiei" kanta (VIL-011/012)

Villabonako organistak idatzitako "Etxe hontako kristau guztiei" kanta abesten du.

154. Tolosako Beotibarrera dantzara (VIL-011/015)

Tolosako Beotibar pilotalekura joaten ziren gaztetan dantzara. Itzultzeko azken tranbiaren ordua inguratzen zenean, frontoiko argiak itzali eta pizten ziren pare bat aldiz seinale gisa.

155. Hamabost urterekin lanera (VIL-011/017)

Hamabost urterekin hasi zen aprendiz. Limarekin egiten zuen lan. Orduko soldata eta lan baldintzei buruz ari da. Greba batzuk ere bizi izan ditu. 1957. urtean bere kontura hasi zen lanean. Makina batekin hasieran eta taxilari amaitu zuen.

156. Madrilen kotxea erosi eta etxera bidean komeriak (VIL-011/018)

Taxiarekin nola hasi zen kontatzen du. Lagun bati Madrilera lagundu zion. Handik ekarri zuen auto berria. Bidean gertatu zitzaizkion komeria guztiak dakartza gogora.

157. Garraren hasiera (VIL-011/025)

Hamaika urte zituen gerra hasi zenean. Aitaren baserrira joan ziren kalea utzita. Villabonan ez zen erresistentzia handiegirik egon. Ihesi joan ziren asko, beste batzuk fusilatuak izan ziren.

158. Geltokira iritsi aurretik patatak trenetik behera bota behar (VIL-011/029)

Gerraostean, Nafarroatik patatak ekartzen zituzten trenez. Geltokian kontrola egoten zenez, Villabonara iritsi aurretik trenetik behera botatzen zituzten patatak, kontrola pasata bila joan ahal izateko. Villabonan ezkutuan egindako irina Donostian saltzen zuten. Nola eramaten zuten kontatzen du.

159. "Carrera de lentitud"en ona (VIL-011/031)

Nahiz eta bere bizikleta ez zen markakoa, bazeuden marka ezagun batzuk. "Carrera de lentitud" egiten zen Tomas abila. Nor beranduago iritsi, hark irabazten zuen.

160. "Ixikiel" tabernako kontuak (VIL-011/033)

Villabonan zeuden tabernak izendatzen ditu. "Ixikiel"en tabernan esaterako gazta mahaira eraman aurretik pisatzen zuten. Amaitutakoan ostera berriz pisatu eta horrela kalkulatzeko zuen bezeroek jandakoa. Honi gertatutako anekdota kontatzen du.

161. Katua sarri-sarri jandakoa (VIL-011/035)

Sagardotegira norberak eramaten zuen jakia. Tabernetan aldiz, preparatzen zuten. Katua sarri jandakoa dela dio. Katu bat nola harrapatu eta prestatu zuten kontatzen du.

162. Taberna giroa (VIL-011/036)

Emakumeak tabernan ikustea gaizki ikusita zegoen. Gizonezkoak egoten ziren normalean. Karta-jokoan, tokan, bolotan eta horrelakoetan aritzen ziren

163. Auto-lasterketak Lasarten (VIL-011/039)

Kotxe gutxi zegoen Villabonan. Auto-lasterketak egoten ziren Lasarten. Ostegunetan, eskolatik irten eta entrenamenduak ikustera joaten ziren bertara. Juan Manuel Fangio pilotua zen oso ezaguna.

164. Euskara desberdinak (VIL-011/042)

Euskalki desberdinak. Herri batetik bestera dauden desberdintasunak.

165. Baserriko lanak (VIL-012/002)

Baserritik bizi ziren. Behiek emandako esnea saltzen ateratzen zuten bizimodua. Baserriko lanak nolakoak ziren kontatzen du: behiak gobernatu, soroa, belarra, etab.

166. Zelaiak etxetik urrun (VIL-012/003)

Zelaiak etxetik urrun egoten ziren normalean. Goizean goiz abiatzen ziren beharrezko erreminta eta jakiak gainean zituztela. Gaur egun sobera dagoen arren, asko estimatzen zen belarra garai hartan.

167. Almitza eta pagotxa (VIL-012/004)

Almitza zen orduan ugariena. Belar ona lortzeko zelaiak zaindu egin behar izaten zirela dio. Pagotxa ere estimatua zen ganaduarentzat. Esne hobea ematen zutela dio. Igitaiaarekin mozten zuten eta gordinik, lehortu gabe, ematen zitzaion ganaduari.

168. Belarraren inguruko lanak (VIL-012/005)

Segarekin mozten zuten belarra. Gaur egungo makinekin baino denbora gehiago behar izaten zuten. Baserri bakoitzak bere sailak izaten zituen. Belarra moztu ondoren lehortu egin behar izaten zen. Uztailetik irailera egiten zen. Euriak bustitako belarra belztu egiten omen da behiek hura ez zuten gustuko. Garraiatzeko behiak eta lera erabiltzen ziren. Hura deskribatzen du. Etxe-ordekoan gordetzen zuten belar lehorra.

169. Behiak ahalik eta ondoen zaintzea (VIL-012/007)

Behiak elikatzeko belarra, arbia, pagotxa eta pentsua erabiltzen zen. Azpiak egiteko, garoa eta orbela. Egunero aldatzen zitzaizkien azpiak soroan botatzeko erabiltzen ziren.

170. Orduko behiek 20 litro esne egunean (VIL-012/008)

Garai hartan hogeit hamar litro esne ematen zituen behi batek. Gaur egun bikoitzera hel daitezkeela dio. Behi arrazak ere badu zerikusia emandako esne kopuruarekin. Esnea emateaz aparte, baserriko lanak egiteko ere balio zuten behiek.

171. Abereen gaitzak etxean sendatu (VIL-012/009)

Abereen gaixotasun desberdinak etxean sendatzen saiatzen ziren lehendabizi. Errapeetako mina nola sendatzen zen kontatzen du. Behia galduko balitz, baserri desberdinen artean sortutako elkarteak ordaintzen zuen honen balioa. Ermandadea esaten zitzaion elkarte horri. Nola antolatzen zen kontatzen du.

172. Ermandadea (VIL-012/011)

Ermandadearen funtzionatzeko modua kontatzen du. Urtean kuota bat ordaindu behar izaten zen eta baita txekor bat jaiotzen zen bakoitzeko ere. Ermandadean bi arduradun zeuden. Hauen funtzioa azaltzen du. Liskarrak ere izaten ziren tarteka.

173. Etxe-erre batza (VIL-012/012)

Amasako baserritarrek ere bazuten etxe-erre batza. Honen funtzionatzeko modua kontatzen du Juanitok.

174. Argindarra (VIL-012/016)

Nahiz eta askotan gabe geratzen ziren, betidanik ezagutu izan du argindarra baserrian. Kandela eta kinkeak erabiltzen ziren honek kale egiten zuenean.

175. Iturriko ura etxerako (VIL-012/017)

Etxe aurrean zuten iturriko ura erabiltzen zuten etxerako. Gertu zutelako zorteko ziren. Auzotar ugari etortzen ziren bertara uretara. Lixiba egitera errekarara edo labaderora joan behar izaten zuten etxeakoandreek. 83. urteko uholdeaz geroztik ezin da errekarara jaitsi.

176. Orduko janzkera (VIL-012/018)

Soinean zuten arroparekin pasatzen zuten aste osoa. Arropak ez ziren hainbeste garbitzen. Gomazko abarkak erabiltzen zituzten uda nahiz negu. Jai egunetarako beste arropa batzuk izaten zituzten.

177. Pilotan eta "buleketan" (VIL-012/019)

Kaminoan kotxerik ez zebilenez, pilotan ibiltzen ziren jolasean. Orduko jolasei buruz ari da: "buleketan" nola jolasten den azaltzen du.

178. Eskolara neguan eta euria zen egunetan (VIL-012/021)

Baserrian lanik bazen, ez ziren eskolara joaten. Itzain lanetan lagundu behar izaten zuen gehienetan.

179. Erdaraz hitzegiteko komeriak (VIL-012/022)

Erdaraz izaten ziren eskolak. Soldaduskara joan zenean ere nahikoa komeria pasa zuen erdaraz ez zekielako. Villabonan garai hartan ez zegoen erdaraz hitz egiten zuen kanpoko biztanlerik.

180. "Kastellanoak" etorri zirenean (VIL-012/024)

Gaztela aldetik Villabonara jendea etortzen hasi zenean herritarrak ez ziren oso konforma agertu. Hasiera batean, behargin asko behar izaten ziren lantegietan eta jende asko etorri zen kanpotik. Gazteleraz hitz egiteko komeriak izaten zituzten Villabonako bizilagunek.

181. Sacem enpresan aurreneko ikasketak (VIL-013/003)

Eskolan ibili eta gero, Sacemera joan zen. Geometria, limarekin lanean eta marrazketa ikasten zituzten. Urte eta erdiren ostean, lanpostua aukeratu behar izaten zuten. Berak doikuntza aukeratu zuen. Zertan aritzen zen aipatzen du.

182. 1950ean CAFentzako lanean (VIL-013/004)

CAFek eskatu zien 1950 inguruan trenerako hainbat lan egitea. Zer lan egin zuten kontatzen du.

183. Elgoibarrera lanera (VIL-013/006)

Ramon Etxanizek ekarri zuen Elgoibarrera hogeita hiru urte ingururekin. Fagorreko zuzendari teknikoarekin izan zuten harremanari buruzkoak kontatzen ditu. Errodamenduak egiten zituzten eta nola moldatu ziren kontatzen du. Ondoren izan zituzten lanak izendatzen ditu.

184. Erreminta-makinak ospitaleetan (VIL-013/008)

Italiarrekin automatizatu zuten tornua. Kostatu zitzaizela esaten du. Probak egin behar izan zituzten asmatzeko. Ameriketako Estatu Batuetako zein Valentziako ospitaleetarako makinak egin zituzten. Titanioa eta altzairuaren arteko desberdintasunak aipatzen ditu.

185. Nazio bakoitzak bere torlojua (VIL-013/010)

Bilboko Betara itsasontziak etortzen ziren. Nazio bakoitzak bere torloju mota zeukan eta bakoitzari behar zuena egiten zitzaion. Torloju estandarra adostu zutenean, lantegia lanik gabe geratu zen.

186. Corte Ingleseko makinak (VIL-013/011)

Corte Ingleseko makinetan konponketak egiten aritu zen. Urtero makineria aldatzen zuten. Bostehun josteko makina inguruko lantegia zen. Corte Inglesean erabiltzen zuten materiala, ez zen berdina izaten Euskal Herrian, Bartzelonan zein Madrilan.

187. Atzerriko makinak eredu (VIL-013/012)

Eguzki kooperatibaren ibilbidea kontatzen du. Japoniatik zenbakizko kontroleko tornua ekarri eta hura aztertuta, tornu propioak egiten hasi ziren. Atzerrian ongi egindako makinetatik zer ikasi egoten dela dio eta adibide batzuk ematen ditu.

188. Errodamenduetaz Alemanian ikasitakoak (VIL-013/013)

Kontaktu angularreko errodamenduei buruz Alemanian ikasitakoak azaltzen ditu. Saltoa kenduta, asko irauten omen du errodamenduak. Adibide bat jartzen du.

189. Idecon ikerketa lanetan (VIL-013/014)

Idecon sartzeko nola ibili zen kontatzen du. Patxiren ideia izan zela dio; nazioarteko azoketara asko joaten ziren elkarrekin. Ikerketa lanean ibili zeneko hainbat pasarte kontatzen ditu. Ikerketa behar-beharrezkoa dela dio.

190. Danobat bide onetik (VIL-013/017)

Danobatek ongi jarraituko duela dio. Tornuak zarata egiten duenean, gelditu egin behar izaten da. Errodamenduak bere tolerantzia baldin badu, ez dela erraz izorratzen dio. Hala ere, errorea daukate.

191. CAFeko makinaria (VIL-013/020)

Sacemeko ingeniariarekin CAFera joaten zen makinak martxan jartzera. Makinei buruzko zehaztapenak ematen ditu.

192. Elgoibarko Aikartu lantegian lanean (VIL-013/023)

Aikartu lantegira zela joan zen kontatzen du. Lehenengo muntaian aritu zen. Han hariztatzeko ardatzekin nola lan egiten zuen kontatzen du.

193. Elgoibarko Aikartu lantegiko langileak (VIL-013/026)

Aikartu enpresan zeinek eta zertan lan egiten zuten kontatzen du. Kalitate handiz lan egiten zutela dio. Jabeen artean oso harreman ona zutela dio.

194. Sacem, oso enpresa aurreratua (VIL-013/029)

Sacemenetik Elgoibarrera zelako aldea zegoen kontatzen du. Buruak eta denak erlojuarekin montatzen ziren Sacemen. Alemaniarekin kontaktu asko zuten eta gauza asko ekartzen zituzten handik. Han zeuden makinak zerrendatu egiten ditu.

195. Elgoibarko Eguzki kooperatiba (VIL-013/032)

Eguzki kooperatibaren sorrera. Hasierako langileak izendatzen ditu. Han gertatutako pasadizoak kontatzen ditu.

196. Gizarte Antropologian Gradua amaitzear (VIL-015/002)

Hogei urtez haur eta gazteekin aisialdian lanean aritu eta gero, Gizarte Antropologian Gradua bukatzen ari zen Jaime elkarrizketa egin genionean.

197. Euskaraz bai, baina zenbaitetan gaztelararako joeratxoa (VIL-015/004)

Euskara da lagun artean eta etxean erabiltzen duen hizkuntza. Hala ere, esamolde mailan eta erregistro informalean gaztelararako joeratxoa sumatzen du Jaimek bere inguruan. Aldea sumatzen du horretan aitaren eta bere artean.

198. Belaunaldi aldaketa, hizkera aldaketa (VIL-015/005)

Gurasoen belaunaldikoen hizkeraren eta berearen edo ingurukoenaren artean aldea dagoela dio Jaimek. Galerak izan dira, baina baita irabaziak ere. Aldaketa logiko gisa ikusten du, bizimodua bera ere asko aldatu delako.

199. Euskararen transmisioan zailtasunak (VIL-015/006)

Garai aldaketek hizkuntzatan aldaketak eragiten dituzte, baina hizkuntza guztiak ez dira maila berean aldatzen. Jolasetan suma liteke hori: "el corro de las patatas" eta "alakinkirrinera" k ez dute transmisio modu bera. Lehenengoa ia ahaleginik egin gabe transmititzen da. Bigarrenarekin, aldiz, eragin egin behar da transmititu dadin.

200. Esamoldeak eta irainak (VIL-015/007)

Irainak eta hitz larriak gazteleraz botatzeko joera du Jaimek. Euskarazkoak berreskuratzen eta sorkuntza bultzatzen hamaika ahalegin eta lan egindakoa da, eta horiek gazte jenerazioen hizkeran txertatzeko modu posibleez hausnartzen du.

201. Irainak eta esamoldeak euskaraz sortzeko joeraz (VIL-015/008)

Euskara osasuntsu sumatzen den eremutan, Azpeitian, esate baterako, irainak eta esamoldeak euskaraz sortzeko joera dute gazteek, eta horri eutsi beharraz ari zaigu Jaime. Fermin Etxegoien kazetari, artikulugile, idazle, kazetari eta irrati esatariaren euskararen gaineko zenbait ideia eta iritzi ere hizpide ditu.

202. Hitanoaren presentzia (VIL-015/009)

Jaimeren inguruan hitanoak dezenteko presentzia du, baina berak gutxitan heltzen dio tratamendu informal horri.

203. Hizkuntzak ikas-prozesu amaigabeak dira (VIL-015/011)

Hitanoa, ikas prozesu amaigabe baten moduan bizi du Jaimek, eta hala bizi ditu ikasten dituen gainontzeko hizkuntzak ere.

204. Aniztasuna aberastasuna da (VIL-015/012)

Garai bateko ETBko marrazki bizidunek eskaintzen zuten hizkuntza eredua gustukoa zuen Jaimek. Aniztasuna aberastasun moduan ikusten du bai hizkuntza kontuetan eta bai bizitzako beste hainbat alorretan ere. Hizkuntza kontuetara itzulita, Jaime atsekabetu egiten du Hondarribian bertako hizkerak presentzia gehiago ez izateak, eta batez ere, gazteengan sumatzen duen ausentzia ia totala.

205. "Doraemon"eko erraldoi (VIL-015/013)

"Doraemon" marrazki bizidunetako erraldoi pertsonaiaren alde onak eta txarrak aletzen.

206. Erregistro informala telebistan (VIL-015/015)

Kalean entzuten den erregistro informala telebistara eramatearen zailtasunez.

207. Hitanoak badu tokirik gaur egungo euskal hiztunen artean (VIL-015/016)

Jaimeren ustez hitanoak badu tokirik gaurko euskal hiztunen artean, bai helduen eta baita gazteen artean ere.

208. Gizarte Zientzietako Fakultateko aisialdi uneak (VIL-015/020)

Gradua ikasten ari da Jaime, Gizarte Antropologian, eta fakultateko aisiaz galdetuta, hizkuntzari dagokionean, bere inguruan euskara asko entzuten duela dio, baina ez dela hori Donostiako campuseko errealitatea. Orokorrean, gaztelera da nagusi unibertsitateko gazteen artean.

209. Gazteleraz ikasten hasi eta euskaraz bukatu I (VIL-015/027)

Aita ataundarra du Jaimek. Haren aldetik, aitona Lazkaomendikoa eta amona ere ataundarra zituen. Aitaren aldetik euskara jaso dute, baina ez amaren aldetik, eta amarekin denbora gehiago igarotzen zutenez, gaztelera izan zuten nagusiki etxeko hizkuntza. Eskolan ere gazteleraz egiten zuten nagusiki, gurasoetako bat erdaraduna zeukaten ikasleak bereizten baitzituzten. 15-16 urte betez gero, ordea, bere jarduna euskalduntzen hasi zen, eta aurrekoak gazteleraz egin bazituen ere, behin unibertsitatean hasiz gero, ikasketak euskaraz egiten hasi zen.

210. Gasteleraz ikasten hasi eta euskaraz bukatu II (VIL-015/028)

Gaztetan maila formalean euskaraz ongi moldatu arren, lagun artean euskaraz aske ezin mintzatzeak sentsazio gazi-gozoa eragiten zion; zeozer faltako balitzaio bezala. Koadrillako bi lagunek lagundu zuten euskaraz trebatzen.

211. Euskara. Ideologia eta kontzientzia (VIL-015/030)

Duela 20-25 urte, euskarari loturiko ideologiak eta kontzientziak presentzia handiagoa ote zuten dago Jaime. Gaur egun ikusten dio sufrimendu punttua euskaraz bizitzeko erabakia hartzen duen gazteari, ingurukoak gaztelerazko jarduna ezin eramanda edo.

212. Guraso euskaldunak eta erdaldunak dituzten ikasleen banaketa (VIL-015/031)

Guraso euskaldunak dituzten ikasleak eta erdaldunak dituztenak gela desberdinetan banatu izan dira askotan. Gaur egun, jarrera inklusibo batetik begiratuta, Jaime ez banatzearen aldekoa da, baina hala ere, kasuak banaka aztertu behar direla dio, eta baliabideak erabakiorrak direla uste du.

213. Baina, zuk gazteleraz badakizu? (VIL-015/034)

Jaimek hizkuntzaren inguruko anekdota pare bat kontatzen du: alabarekin gertatua bat, eta lagun batekin bestea. Biak iruditu zitzaizkion bitxiak, eta biek eman diote zer pentsa.

214. Euskaraz edo gazteleraz egitea tokatzen den pentsatu beharraz (VIL-015/036)

Etxean eta ohiko hainbat egoeratan ez du pentsatzen euskaraz edo gazteleraz egin behar duen, baina beste egoera batzuetan erreparatzen dio aukera egin beharrari. Jarrera hori nekeza egiten da batzuetan.

215. Elebidun eta elebakarren barne-gatazkei buruz (VIL-015/038)

Elebidun orekatua izan eta, hala ere, hizkuntzaren inguruko gatazkak bizi behar izateari buruz ari da Jaime. Hala ere, elebakarrek ere barne-gatazkak badituztela uste du.

216. Euskararen erabilera sustatzeko kanpainak (VIL-015/040)

Jaimeri iruditzen zaio azken 30-40 urtetan hizkuntz(ar)ekin zerikusia duten politikak, kanpainak eta diskurtsoak gizatalde jakinei edo jendarteari zuzenduak egin izan direla, eta ez ote den garaia, horiek kontuan izateari utzi gabe, norbanakoari erreparatzen hasteko.

217. Norbanakoari erreparatu, gero taldean lantzeko (VIL-015/041)

Jaime Urtxintxa Aisialdi Eskolan aritzen da lanean, eta kontatzen du nola lantzen duten gazteekin hizkuntzekiko atxikipena eta nola sustatzen dituzten hizkuntzekiko jarrera positiboak, eta aldi berean, txarrak nola bideratzen edo kudeatzen dituzten. Gazteei iritzia eskatzea gakoa dela uste du; zer egin behar duten esatea baino eraginkorragoa. Ikastetxeetako ikasle eta irakasleekin elkarlanean aritu izan dira hainbat proiektutan, eta haiekin bizitutako bitxikeriak eta adibideak kontatzen ditu.

218. Diskurtso ofizialen eta praktika errealen arteko aldeari buruz (VIL-015/042)

Jaimek bereizi egiten ditu hainbat gairi buruz eraikita ditugun diskurtso politikoki zuzenak eta gai horiei lotuta izaten ditugun jarrera errealak. Euskararen inguruko hainbat diskurtsoren eta jarreraren artean aldeak daude, eta horiek berdintzeko egin behar da lan.

219. Gerra hasiera Villabonan (VIL-016/002)

Gerra Zibila hasi zenean Pello Villabonan zegoen, eta lehenengo egunak nolakoak izan ziren gogoratzen du. Jendeak ihes egin zuen, eta beraiek geratzea erabaki zuten. Villabonara sartzeko zubia dinamitarekin bota zuten, kamioiekin pasa ez zitezen.

220. Andoaingo frontea (VIL-016/003)

Gerra hasi eta Billabonara frontea iritsi zenean Pelloren etxe azpian egon zirela kontatzen du. Andoain aldera joan eta lehenengo tiro eta borrokak entzuten zituen etxetik. Soldaduekin bizi izandako anekdota bat kontatzen du. Fronterik gogorrenak Bizkaian izan zirela azaltzen du, bertan iraun baitzuen denbora gehien borrokak.

221. Miliarrak umeei instrukzioa irakasten plazan (VIL-016/005)

Umeak militarrez jantzi eta instrukzioa erakusten zieten. Plazan egoten ziren; nola ibili eta taldean nola joan ikasten zuten. Besteak azpian hartzen zituzten, beldurra eragiteko.

222. Errepresioa Villabonan (VIL-016/007)

Gerra hasi eta miliarrak Villabonan ezarri zirenean, kuarteletik administratzen zuten herria. Herrian Batzokian ibilitako emakumeei zigorra ezarri zieten: ilea moztu, eta egunero sinarazten zieten. Gizonak, ihes egin ez zutenak, hil egiten zituztela gogoratzen du Pellok.

223. Umetatik errementari lanetan (VIL-016/009)

Pello errementari lanetan hasi zen osabarekin. Eskolara joan aurretik eta ondoren ere lanean ibiltzen zen. Ofizioa ikasten joan zen, eta hamabi urterekin ferrak egiten ibiltzen zen.

224. Errementariaren lana (VIL-016/011)

Ganaduak ferratu eta baserrietako erremintak egin eta konpontzen lan egiten zuen Pellok osabarekin. Gurdientzako gurpilak egiten ere ibiltzen ziren. 1955etik aurrera egitekoak aldatu zirela dio. Idi eta behiekin lan egiten zenez lan ugari izaten zuten.

225. Erremintariaren lantegia (VIL-016/012)

Pellok errementariaren lantegia nolakoa zen azaltzen du. Lana nola egiten zuen, suarekin eta osabarekin lanak nola txandakatzen zituen kontatzen du. Industria garatzen hasi zenean aldatzen hasi zen lana, baina ordura arte lana beti antzekoa izan zen.

226. Asto eta behiak ferratzen (VIL-016/013)

Astoak eta behiak nola ferratzen ziren azaltzen du, behientzako ferratoki berezia erabiltzen zuten.

227. Ferra denek prezio bakarra (VIL-016/014)

Ferrak jartzeak prezio bat izaten zuen, berdin zuen zein abererentzat zen; ferra berria edo zaharra konpontzea desberdintzen zuten soilik. Behiaren ferrak desberdinak izaten ziren: txapak erosi, eta tamaina desberdinetakoak egiten zituzten trokela erabilita.

228. Sutetik soldatzera (VIL-016/015)

1950. urtetik aurrera, industrializazioarekin, suteak alde batera utzi, eta soldatzen hasi ziren. Desberdintasuna nabarmena dela azaltzen du Pellok.

229. Lanean segurtasuna (VIL-016/016)

Lanean babesa erabiltzen zuten soldatzen zeudela: begietarako babesa. Eskularruak erabiltzea ez zaio inoiz gustatu.

230. Animaliak ferratzen (VIL-016/018)

Errementariak animaliekin izaten zituzten arazoak azaltzen ditu Pellok. "Iltzekoa" esaten zioten iltzearekin mamia harrapatu, eta ganadua herren

geratzen zenean. Bost iltze sartzen zizkieten, eta kaskoan sartu behar izaten zen. Gaizki egindakoak konpontzen ere ibiltzen ziren.

231. Animalien kaskoak konpontzen (VIL-016/019)

Kaskoa konpontzeko lanetan aritzen ziren. Abereek izan ditzaketen arazoak azaltzen ditu Pellok.

232. Erremintak San Telmo museoan (VIL-016/021)

San Telmo museoari oparitu zizkion etxean zituen makina eta erremintak. "Martillo pilon" zenaren funtzionamendua azaltzen du Pellok.

233. Errementariaren bizitza (VIL-016/023)

Erremintari lanetik bizimodua ateratzen zuten garai batean. Soroan edo baratzean lan egiteko astirik ez zutela azaltzen du Pellok. Orduari begiratu gabe lan egiten zuten, goizeko bostetan lanean egoten zen eta auzokoen kexarik izaten ez zuela azpimarratzen du.

234. Soldatak eta estraperloa (VIL-016/026)

Gose garaian soldata txikiak ziren eta, mendian lanean gehiago lortzen zuten arren, estraperloan jatekoak lortzeko dirua ere behar izaten zela azaltzen du Pellok. Baserriko bizimodua errazagoa zen, nahiz eta lan asko izan.

235. Erromerian gaztetan (VIL-016/028)

Inguruko auzo eta herrietako erromerietara joateko ohitura zuten; San Pedro eta Aian adibidez. Asteazkenean zehar aurreko asteburuko erromeria eta hurrengokoaren inguruan hitz egiten pasatzen zuten.

236. Neska-laguntzen (VIL-016/030)

Neska laguntzen ibili izan zen Pello. Aian baserriak urruti egon arren ez zuten trabarik izaten. Erromerian dantza egiten zuten soilik, bekakua baitzen dena. Neska laguntzen eta bikote kontuez dihardu Pellok.

237. Euskara desberdinak (VIL-016/033)

Hizkuntzan gaur egun sumatzen du Pellok kostaldekoekin dagoen desberdintasuna. Gazteen artean ikasketen ondorioz hizkuntza asko berdindu dela azaltzen du. Gipuzkoako herri desberdinetako euskara alderatzen du.

238. Umetatik auspoari eragiten (VIL-017/002)

Pelloren aita errementaria zen. Umetan, Pello eta anaiak aritzen ziren sutegian auspoari eragiten. Auspoa nolakoa zen azaltzen du.

239. Sutegia eta ferrak (VIL-017/003)

Erremitteriko sutegia nolakoa zen azaltzen du. Ferrak nola egiten diren azaltzen du.

240. Zaldientzako eta behientzako ferrak (VIL-017/004)

Zaldientzako ferrak nola egiten diren azaltzen du. Dena eskuz, burdina bero dagoela. Erabilitako materia: burdin errefusak, ingudea ("txinguria"), puntzoia... Behientzako ferrak hotzean egiten egiten dira.

241. Mailuak eta tenazak (VIL-017/005)

Errementarien mailuei buruzko azalpenak. Pellok berak egindako mailua erabiltzen zuen. Altzairuzko mailua. Tenazak. Landu behar zen pizaren arabera tenazak erabiltzen zituen.

242. Burdina eta altzairua (VIL-017/006)

Errementari lanari buruzko azalpenak. Burdina eta altzairua nola landu behar diren kontatzen du. Altzairua gehiegi berotuz gero, hautsi egiten da. Burdinaren malgutasuna: behientzako ferra batekin ematen ditu azalpenak. Altzairuzko tresnak: aizkorak eta aitzurrak.

243. Neguan, igeltsu lantegirako tresnekin lana (VIL-017/007)

Errementari lanari buruzko azalpenak. Negu partean, herriko igeltsu lantegirako tresnak egin izan ditu: mailuak eta pikatxoak, batez ere. Udaran, ganadu ferratzen pasatzen zuen ia egun guztia.

244. Ferratokia (VIL-017/008)

Ferratokiari buruzko azalpenak ematen ditu. Ferratokia non zegoen.

245. Hiru kotxe herrian (VIL-017/009)

Lehen ez zen ia trafikorik; noizean behin pasatzen zen kotxeren bat. Pello Villabonara bizitzera joan zenean, herrian hiru kotxe omen zeuden. Hirurak lantegietako nagusienak.

246. Eguraldi txarrarekin, ferraketan (VIL-017/010)

Baserritarrak oinez jaisten ziren abereekin herrira. Eguraldi txarra egiten zuenean, eguna abereak ferratzen pasatzen zuen.

247. Abereak lotzeko lekua (VIL-017/011)

Ferratokiaren atzean abereak edukitzeko edo lotzeko ukuilu bat zegoen. Espaloian ere askotan lotzen zituzten abereak.

248. Garai bateko Villabona (VIL-017/012)

Garai bateko Villabona nolako zen azaltzen du Pellok. Elizatik gora ez zen ezer ia, baserriren bat edo beste. Bost etxe eta aroztegia. Kale Nagusia eta Kale Berriari buruzko kontuak. Elizaren aurreko etxean, mikeleteak zeuden. Aurrezki kutxa zegoen mikeleteen azpiko lokalean.

249. Mikeleteak (VIL-017/013)

Mikeleteen eginkizunei buruzko azalpenak. Ijitoak.

250. Pio aguazila eta bandoa (VIL-017/014)

Villabonan aguazil bakarra zegoen; Pio aguazila. Udaletxean bizi zen. Igandeetan, meza ondorenean, bandoa jotzen zuen aguazilak. Bandoa euskaraz izaten zen; gerra ondorenean, ordea, gaztelaniaz.

251. Aiako oroitzapenak (VIL-017/017)

Umetan Aian bizi zeneko oroitzapenak. Pelloren familia eliz ondoan bizi zen. Ama serora zen. Mutil kozkorra zela, meza laguntzen ibiltzen zen. Aiako eskolan, sasimaisua. Etxean, amak irakasten zizkien dotrina eta errezoak. Eskolan ere dotrina ikasten zuten.

252. Ama, serora; Pello, monagilo (VIL-017/018)

Aian, Pelloren familia eliz ondoan bizi zen. Ama serora zen. Amaren elizako eginkizunak zein ziren esaten du. 9 urtetik 11 urtera bitartean monagilo lanetan ibili zen Pello.

253. Umetako jolasak (VIL-017/019)

Ume garaiko jolasak: kamiketan, xibarekin, txorro-morroka...

254. Asto ferrak egiten hasi (VIL-017/021)

11 urte zituela, Aiatik Villabonara joan zen bizitzera amaren ahizparen etxera. Osaba, aita bezala, errementaria zen. 12 urterekin asto ferrak egiten ibiltzen zen sutegia libre zegoen bakoitzean.

255. Herriko eskola (VIL-017/022)

Herriko eskolan ibili zen Pello. Udaletxeko lehenengo solairuan zegoen mutilen gela; neskak, berriz, pisu bat gorago. Mojen ikastetxeari buruzko azalpenak ematen ditu.

256. Mataderia eta udaletxe azpia (VIL-017/023)

Mataderia non zegoen azaltzen du. Udaletxe azpiko arkupetan pilotan ibiltzen ziren mutilak. Txanda librean ibiltzen ziren.

257. Eskolan ikasitakoak (VIL-017/024)

Eskolan zer ikasten zuten kontatzen du. 14 urtera arte ibiltzen ziren herriko eskolan. Gero, lanera. Dirua zutenak, Tolosako saletarren eskolan jarraitzen zituzten ikasketak.

258. Euskararen debekua (VIL-017/026)

Gerra osteko egoera du hizpide. Euskaraz egitea debekatuta zegoen. Eskolan gaztelaniaz aritzen ziren. Beharrak irakatsita ikasi zuen gaztelaniaz.

259. 'Eskailu'ren gau-eskolara (VIL-017/028)

14 urterekin ikasteari utzi, eta lanean hasten ziren. Batzuk gau-eskoletara joaten ziren. 'Eskailu' maisuarekin gau-eskoletan ibili zen Pello.

260. Herriko eskolako maisuak (VIL-017/029)

Sei urterekin hasten ziren eskolan. Bien bitartean, etxean ikasten zuten. Herriko eskolako maisuak: Cuevas 'Maisu ttikia' eta Etxebeste. Neskek maistra zuten.

261. Villabonako lantegiak (VIL-017/030)

Herriko hainbat lantegi aipatzen ditu: Salvadora eta Portu paper-lantegiak, Subijanako ehun-lantegia eta SACEM. Azken lantegi horretan, ofizioa ikasi eta lana egiten zuten gazte askok. Biztanle adina lanpostu zegoen Villabonan.

262. SACEM lantegia (VIL-017/031)

SACEM lantegiari buruzko azalpenak ematen ditu. Noiz jarri zen martxan. Erreminta-makinak egiten zituzten.

263. Saizar etxea (VIL-017/033)

Saizar etxea non zegoen eta nolako zen kontatzen du.

264. Subijanako ehun-lantegia (VIL-017/036)

Oihala egin eta tindatu egiten zuten lantegian. Estanpazioa ere egiten zuten. Andoainen zegoen beste ehun-lantegia, eta zaldi pareak gurdiaekin ibiltzen zen bi lantegien arteko garraio lanetan. Kotxeroa.

265. Portu paper-lantegia (VIL-017/038)

Portu paper-lantegiari buruzko kontuak. Idi-pareak gurdian garraiatzen zuen pasta Andoaindik Villabonara. Emakumeak aritzen ziren papalak prestatzen. Papera trenez bidaltzen zuten gero.

266. Tranbia (VIL-017/039)

Donostia eta Tolosa artean tranbia ibiltzen zen. Trena baino mantxoagoa zen.

267. Baserritarrak trolebusean Donostiara (VIL-017/040)

Inguruko baserritarrak trolebusean joaten ziren Donostiara baserriko generoa saltzera. Astoak eta zaldiak non lotzen zituzten kontatzen du.

268. Esnedunak eta "letxeria" (VIL-017/041)

Asteartetan azoka izaten zen Villabonan. Etxez etxe esnea partitzen zutenak. Saldu gabe geratzen zen esnea "letxeriara" eramaten zuten. Esnetegia non zegoen aipatzen du. Esnetegian gurina egiten zuten. Esne-saltzaileak barazkiak ere ekartzen zizkien hala eskatutakoan.

269. "Abellanerua" (VIL-017/042)

"Abellanerua": iluntzero tabernaz taberna ibiltzen zen hurrak saltzen. Plazatik gora joanda denda txiki bat zuen gizon hark.

270. "Barkillerua" eta erroskilleroa (VIL-017/043)

Barkillo potea bizkarrean zuela batetik bestera ibiltzen zen barkillo saltzailea. Barkillero eta erroskillero gehienak Tolosatik joaten ziren. Erroskilleroak karameloak ere saltzen zituen.

271. "Antxo freskua!" (VIL-017/044)

Antxoa denboran, zinkezko barrinoa burua hartuta joaten ziren arrain saltzaileak Oriotik Villabonara. Oinez egiten zuten bidea, eta bi edo hiru saltzaile ibiltzen ziren.

272. Bertsopaperak (VIL-017/045)

Igandetan, meza ondorenean, bertsopaperak saltzen aritzen ziren bertsolariak. Bertsolariak inguruko herrietakoak ziren, bertakorik ez. 'Tximela' Villabonan bizi zen bertsolaria aipatzen du.

273. Izengoitiak (VIL-017/046)

Izengoitia jartzeko ohitura handia zegoen lehen. Herriko hainbat pertsonaren izengoitiak aipatzen ditu: 'Tximela', 'Kirkirra', 'Generala', 'Txintxua', 'Bakalluxa'...

274. Herriko dendak (VIL-018/003)

Denetik saltzen zuten herriko dendetan: jakiak, oinetakoak, kafea, argizaria, kandelak, edaria... Denden izenak: Perez, Itsaso, Marbe, Txokolo, Aiestaran...

275. Txokolateria (VIL-018/004)

Txokolorenean txokolatea egiten zuten.

276. Ixkiña eta Exekielen taberna (VIL-018/005)

Herriko tabernak: Ixkiña, Exekielen... Ixkiña tabernan jaten ematen zuten, eta fama handia zuen.

277. Urrizpe sagardotegia (VIL-018/006)

Urrizpe sagardotegia non zegoen aipatzen du. Alkizako Urrizpe baserrikoa zen sagardotegiko nagusia. Etxerako sagardo bila joaten zen jendea botilekin. Basoko kobratzen zuten. Sagardotegiko giroa: etxetik kaxuela eramanda.

278. "Villabonak ttonttorra goian" (VIL-018/007)

Villabonari 'Petit Paris' zergatik esaten zioten azaltzen du. Garai batean, pilotari asko zen herrian, eta uda batean bueltatzen zirenean apain jantzita etortzen omen ziren. Ongietorria emateko txistulariek jotzen zuten.

279. Amasarrekin pikea (VIL-018/008)

Amasarren eta villabonatarren arteko pikea. Lehen pike handiagoa zegoen. Zein herri den lehenagokoa. Elizei eta lursailei buruzko azalpena.

280. Kaletarrak eta baserritarak (VIL-018/009)

Kaleko jendearen eta baserritarren arteko harremana du hizpide.

281. Zubimusu eta Urtzabal (VIL-018/010)

Zubimusu zubia egin zuteneko pasadizoa. Zubia non egingo herriko bi dendariren artean sortutako gorabehera; biek nahi zuten zubia beren negoziotik ahalik eta gertuen egitea. SACEM aldeko zubia 1933an egin zuten. Urtzabal: erreka gaineko pasadizoa, baserritarrek auzolanean egina.

282. Garai bateko Villabona II (VIL-018/012)

Garai bateko Villabona nolakoa zen azaltzen du. Baratze asko zegoen. Ixkiña taberna, Itsaso denda, "Ietxeria", Botikako etxea, Ulako etxea, Zubiaurre baserria, "Axtuenia"... aipatzen ditu.

283. Arotzak (VIL-018/013)

Herrian baziren bi arotz. Lardamuño arotzak baserriko erremintak egiten zituen.

284. "Joakin perratzallia" eta errementeria (VIL-018/014)

Pelloren osaba Larraulgoa zen. Larrauldik Villabonara joan eta Joakin Sagastiberri errementariarekin ikasi zuen ofizioa. Gero, etxea eta errementeria erosi zizkion, eta beste batekin sozio jarri zen. Pellok osabarekin ikasi zuen ofizioa.

285. Ferra egitea (VIL-018/015)

Pello errementerian lanean hasi zenean, ferra nahikoa egiten zen. Osabaren errementerian egiten zituzten inguruko errementarientzako ferrak. Burdina xafla batetik trokelarekin ferrak nola egiten zituzten azaltzen du. Gero, lantegiak hasi ziren ferra egiten. Gerra denboran, material falta handia izan zen.

286. Sei neurritako ferrak (VIL-018/016)

Ferra motei buruzko azalpenak ematen ditu. Aberearen azazkalaren arabera ferra jartzen da. Sei neurritako ferrak. Zaldiei lau ferra; behiei eta idiei, zortzi. Azazkalak adina ferra.

287. Ferra jartzea (VIL-018/017)

Abereari ferra nola jartzen zaion azaltzen du. Ferra hotzean josten da. Ferraren zuloak: iltzeak sartzeko.

288. Aberren zauriak (VIL-018/019)

Ferratzaileek abereei ferrak jartzeaz gain, hanketako zauriak garbitu eta sendatzen zizkien. Azazkalak moztea.

289. Burdinazko ferratokiak, gerokoak (VIL-018/020)

Ferratzeari utzi zitzaion garaian, baserri batzuetarako burdinazko ferratokiak egin zituen. Gorpilak ere jartzen zizkien batetik bestera mugitzeko. Lehenago, ordea, ferratokiak egurrezkoak izaten ziren.

290. Egurrezko ferratokia (VIL-018/021)

Ferratokia nolakoa zen azaltzen du: egurrezko egitura fijoak. Aberea lotzeko uhalak, hankalekua, kateak... aipatzen ditu. Aberea ferratzerako garaian, hankak nola lotzen zizkien.

291. Fraisoroko zezenak (VIL-018/022)

Pellok ferratzen zituen abere handienak Fraisoroko zezenak ziren. Bertan zuten ferratokia eta hara joaten zezenen bat ferratu behar zenean. 20 zezen inguru zituzten, eta baziren 1.000 kilotik gorakoak.

292. Ferra motak (VIL-018/024)

Ferra abere motaren eta haren neurriaren arabera izaten da. Behi-ferra, idi-ferra, zaldi-ferra eta asto-ferra erakusten ditu. Ferra egiteko kortea. Ferra doitzea.

293. Asto-ferra (VIL-018/025)

Asto-ferra nola egiten den azaltzen du.

294. Ferren zuloak (VIL-018/026)

Ferren zuloei buruzko azalpena. Ferra gehienek alde bakoitzean hiruna zulo izaten dituzte. Behi-ferrek, bost.

295. Iltzeak (VIL-018/027)

Ferrak josteko iltzeak: 4 eta 7 zentimetro artekoak. Pelloren garaian, iltzeak kanpotik ekartzen zituzten. Lehenago, ordea, errementariak berak egiten zituen iltzeak. "Iltzekua": iltzearekin abereari mamia harrapatzea.

296. Sutegirako erregaia (VIL-018/028)

Kok ikatza erabiltzen zuten sutegian sua egiteko. Donostiatik ekartzen zuten. Kok ikatzaren ezaugarriak aipatzen ditu.

297. Barandilak-eta egiten hasi (VIL-018/029)

Uda partean, ferratzen izaten zuen lan gehien. Neguan, baserriko tresnekin aritzen zen gehiago. Eta gerora, etxegintzak indarra hartu zuen garaian, barandilak-eta egiten hasi zen. 1969an ferratokia tokiz aldatu zuen. Lanaren bilakaera. Serenoarekin izandako pasadizoa.

298. Serenoa (VIL-018/030)

Serenoari buruzko kontuak. Tabernak ixteko agindua ematea.

299. Ferratokiko argindarra (VIL-018/031)

Argindarrari buruzko kontuak. Egunez indarrrik ez zegoen garaian, gauez aritzen ziren ferrak egiten. Egunez ura bildu eta gauean botatzen zuten argia.

300. Sua, dutxa eta komuna (VIL-018/032)

Lurreko sua ezagutu zuen etxean. Gero, ekonomika etorri zen. Etxean ura bazuten, baina ur berorik ez. Ekonominan berotutakoa izaten zen. Dutxarik ez zuten; palankanan garbitzen zuten gorputza. Etxe askotan, komuna balkoian egoten zen.

301. Kale baserriak (VIL-018/034)

Villabonako kale baserriak. Zubiaurre baserrian esnea saltzen zuten. Ganadua herriko zer tokitan ibiltzen zen kontatzen du. Baratzeak eta oiloak.

302. Soldaduak Villabonan sartu (VIL-018/036)

Pello Aiatik Villabonara bizitzera joan eta lau hilabetera hasi zen gerra. Gerraren hasierako oroitzapenak. Nafarrak Villabonan sartu bezperan, mikeleteak etxez etxe ibili ziren abisua ematen. Baziren herritik alde egin zutenak. Soldaduak iritsi zireneko oroitzapena. Soldaduei bidea oztopatzeko, Zubimusu zubian leherkariak jarri zituzten. Jendea arrosarioa erreztatzeko elkartu.

303. 40 egunez bi soldadu etxean (VIL-019/002)

Gerrako kontuak. Asturiasen borrokan ibili zen tropa bat Villabonara joan zen deskantsatzera. Soldaduak herriko etxeetan egon ziren. Pelloren etxean bi soldadu egon ziren. 40 egun egin zituzten herrian.

304. Egoitza politikoak eta fusilamenduak (VIL-019/003)

Gerra etorri zeneko herriko giro politikoa. Abertzaleak, karlistak, komunistak... zeuden herrian. Komunisten egoitza eta batzokia non zeuden aipatzen du. Batzokian aurre samarrean ibilitako hainbat herritar fusilatu egin zituzten.

305. Gerra denborako "sakeoak" (VIL-019/006)

Gerra etorri eta herritik ihes egin zutenen jabetzen harrapaketez ("sakeoez") hitz egiten du. Perez dendakoek alde egin zuten Villabonatik, eta dendatik arropak eta jakiak harrapatu zizkien.

306. Nazionalek herri bat hartzean, kanpaia jotzera (VIL-019/007)

Gerrako kontuak. Nazionalek herri bat hartzen zutenean, eskolatik kanpandorrera bidaltzen zituzten kanpaia jotzera.

307. Pelaioak eta margaritak (VIL-019/008)

Erreketeek umeak instruitzen zituzten plazan. Desfileak. Pelaioei trajea debalde ematen zien. Pello ez zen pelaioetan ibili. Margariten jantzia: kaki kolorekoa uniformea eta txapela gorria. Atzeguardian zeuden soldaduak bisitatzera joaten ziren.

308. Emakumeei ilea moztu (VIL-019/009)

Hirualdeta etxeok alde egin zuten Villabonatik, eta erreketek kuartela jarri zuten etxe horretan. Herriko bi emakume abertzaleri ilea moztu zien, eta kalean jende gehiena ibiltzen zen orduan kuartelera joanarazten zien sinatzera.

309. Gorriek atxilotutakoak (VIL-019/011)

Gorriek herriko bi gizon atxilotu zituzten. Gizon baten bila joan, eta ihes eginda zelako semea eraman zuten. Herriko botikari zaharra ere atxilotu egin zuten. Biak itsasontzi batean eduki zituzten preso. Egun batzuen ondoren, asko utzi zituzten.

310. Herritarren arteko salaketak (VIL-019/012)

Jarrera politiko desberdina zuten herritarren arteko salaketak. Zorrak.

311. Olio litroa, 16 durotan (VIL-019/013)

Gerra ondorena du hizpide. Errazionamendua eta estraperloa. Litro bat olio lortzeko zortzi egun pasatu behar izaten zituen lanean. Egunean 10 pezeta irabazten zituen, eta olio litroak 16 duro balio zituen estraperloan.

312. Errazionamendua eta estraperloa (VIL-019/014)

Gerra ondorena du hizpide. Errazionamenduko ogia. Errotak itxi. Alkizan errota bat irekia zegoen, nagusia karlista omen zen. Ezkutuan errotara joaten zirenak. Artoa txikitzeko makina. Morokila.

313. Estraperloko ogi zuria (VIL-019/015)

Estraperloko ogi zuria noiz hasi zen aipatzen du. Dirua behar zen ogia erosteko. Urte askotan egon ziren ogi zuria jan gabe. Okindegiek ere ez zuten libre ogia saltzea.

314. Kaletik baserrira, jan truke (VIL-019/017)

Gose denboran, kaletar asko baserrietara joaten zen lanera, jatekoaren truke. Boniatoa.

315. Villabonako euskara (VIL-019/019)

Villabonako euskara eta inguruko herrietako euskarari buruz hitz egiten du.

316. Gazta eta haragia salduz (VIL-020/005)

Bizimodua behietatik ateratzen zuten eta artoa eta babarruna ere etxerako izaten zuten. Etxeko esnearekin gazta egiten zuten, gehienez amak. Gazta nola egiten zuten azaltzen du. Txapazko ontzietan edukitzen zituzten prentsan. Bezero ezagunak zituzten gazta saltzeko. Txekorrak hazi eta harakinari saltzen zizkioten.

317. Inaurkinaren bila mendira (VIL-020/006)

Sorotik belarra ekartzen zuten. Garoa eta orbela, inaurkina, menditik ekartzen zuten, gurdiarekin. Galtzerdi lodiekin edo galtzekin joaten ziren. Behiak gizonezkoek jezten zituzten.

318. Herri eskolan Joakina maistrarekin (VIL-020/008)

Herriko eskolan ibili zen, udaletxearen gainean. Hiru gela izaten ziren, neskentzako bat eta mutilentzako bi. Maistrak Joakina zuen izena eta irakasle ona zen. Adin guztietako neskak gela berean izaten ziren. Dotrina ere eskolan ikasten zutela uste du. Dena erdaraz ikasten zuten.

319. Sacem, Subijana eta Portu lantegiak (VIL-020/014)

Sacem lantegira gazte asko joaten zen lanera. 1940an egin zuten. Burni-lana egiten zuten. Eskola zeukaten bertan. Gizonezkoak joaten ziren bertara. Subijana oihal-lantegia zen eta emakume askok egiten zuen lan bertan. Portu berriz, paper-lantegia zen.

320. Ferratzailearen lanak (VIL-020/016)

Ferratzailea Peio Iribar zen. Batzuetan bertara joaten ziren eta beste batzuetan bera etortzen zen etxera. Lanerako erabiltzen zituzten abereak ferratzen zituen eta etxekoei zaurien zainketak.

321. Trenbideko pasalekua (VIL-020/018)

Trenbidea pasatzeko lekua egoten zen eta bertan gizonezko batek hesia zabaltzen zien. Esnea banatzen aritzen zenean ere handik joaten zen. Erremolke batekin ibiltzen zen. 80 litro inguru saltzen zituen egunean.

322. Karta-jokoan eta dantzari (VIL-020/033)

Gaztaroan karta-jokoan aritzen ziren. Erromerietara gutxi joaten ziren. Hamasei-hamazazpi urterekin hasten ziren festara joaten. Bizikleta bazeukan, gehienek bezala. Bandak jotzen zuen Villabonan eta inguruko herrixketatik

etortzen ziren. Helduta jotzeko musika izaten zen. Soltean aritzeko ttunttuneroak jotzen zuen.

323. Elkartasuna eta auzolana (VIL-020/041)

Elkartasunez bizi ziren lehen. Lantegietara jende asko joaten zen lanera eta horrek eragina zeukan besteekiko harremana gutxitzerakoan. Gurdi-bideak auzolanean egiten ziren. Lokatza maiz kendu behar izaten zuten. Festara joateko oinetakoak aldatu egiten zituzten eta gordeta utzi.

324. Villabonako eta inguruko industria (VIL-021/002)

Arantxaren aita Portu paper-lantegian egiten zuen lana. Lantegiari buruzko azalpenak. Salvadora paper-lantegia. Subijanako ehun-lantegia. SACEMgo lanbide eskola eta lantegia. Ez zen lan faltarik. Gaztetik hasten ziren lanean.

325. Larrea auzoa (VIL-021/004)

Larrea auzoari buruzko azalpenak. Baserri giroko auzoa zen; baratzeak eta abereak zituzten.

326. Txerri-hiltzea, odolkiak eta txorizoak (VIL-021/005)

Arantxaren aita etxean hiltzen zuen txerria. Arantxak odolari eragin behar izaten zion. Odolkiak eta txorizoak egiten zituzten. Nola egiten zituzten kontatzen du.

327. Garbitokia eta medikuaren etxea (VIL-021/007)

Gaur egun Arantxa bizi den tokian, lehen garbitoki publiko bat zegoen. Garbitokia bota eta medikuaren etxea egin zuten.

328. Herriko medikuak (VIL-021/009)

Don Enrike baino lehenago beste mediku bat egon zen Villabonan; Ganzarain. Kontsulta non zegoen azaltzen du. Aurretik, Arantxaren ume garaian, Don Jesus zen medikua.

329. Dendak (VIL-021/011)

Herrian denda txiki asko ziren. Arantxak aipatutako batzuk: Perez janari-denda, Laskurain kooperatiba, Sansinbarrenarena, Txokolo...

330. Gaztainak biltzera (VIL-021/012)

Etxeko fruituak jaten zituzten. Gaztaina denboran, aita gaztainadi bat hartzen zuen eta Arantxa eta anaia gaztaina biltzera joaten ziren aitarekin. Gaztaina pila biltzen zuten, bere morkots eta guzti. Gaztainak etxera nola garraiatzen zituzten kontatzen du. Ganbaran jasotzen zuten bildutakoa. Danbolinean erreta jaten zituzten gero.

331. Uzta ganbaran jasotzen zuten (VIL-021/013)

Ganbaran jasotzen zuten patata, babarruna, artoa, gaztaina eta sagarra. Iluntzetan, babarruna aletzera.

332. Tomatea eta piperra poteetan jaso (VIL-021/014)

Tomatea eta piperra boteilaratzeko (enboteilatu) ohitura zuten. Tomatea nola prestatzen zuten azaltzen du.

333. Aitak dolarea egin (VIL-021/015)

Sagar asko biltzen zuten. Aitak dolarea egin zuen, eta etxean sagardoa egiten zuten. Auzokoak ere etxeko dolarera joaten ziren sagardoa egitera. Sagardoa nola egiten zuten kontatzen du. Legarreta baserrian ere bazen dolarea.

334. Tabernak (VIL-021/016)

Herriko hainbat taberna aipatzen ditu: Ixkiña, Fasus, Txurulo eta Turko.

335. Tabernak eta emakumeak (VIL-021/017)

Herriko emakumeak ez ziren tabernara joaten. Villabonan udara pasatzen zuen Donostiako emakume bat neskamearekin tabernara joaten zela kontatzen du.

336. Emakumeak gonarekin (VIL-021/021)

Emakumezkoak gonarekin ibiltzen ziren beti. 40 urte inguru zituela hasi zen prakak janzen.

337. Jostuna: formakuntza eta ogibidea (VIL-021/022)

Amasan eta Villabonan ibili zen eskolan. Gero, Maria Alustizarekin aritu zen josten Villabonan. Handik Donostiara joan zen. Goizetan, jantzigintza ikastera joaten zen; arratsaldetan, Anita Etxarri jostunarekin josten zuen. Hiru urte egin zituen Donostian. Urte askotan aritu da jostun lanetan.

338. Maritxu Alustiza jostuna (VIL-021/024)

Eskola bukatutakoan, josten ikasten hasi zen. Arantxaren amak nahiago zuen alaba josten hastea lantegira lanera joatea baino. Maritxu Alustizarekin hasi zen josten. Etxetik eraman behar izaten zuten jostekoa.

339. Singer josteko makina (VIL-021/025)

Etxean Singer josteko makina zuen. Gero, beste bat erosi zuen altzariarekin.

340. Joste kontuak (VIL-021/026)

Donostian egon zen denboran, astelehenetik larunbatera izebaren etxean egoten zen. Igandetan, Villabonara joaten zen. Alkandorak nola josten zituen azaltzen du.

341. Janzkera eta elizaren eragina (VIL-021/027)

Aldizkarietatik hartzen zituen arropak egiteko ideiak eta patroiak. Figurinak. Moda. Eskoterik ez eta soineko mangadunak. Elizaren eragina.

342. Oihal-dendak eta mertzeriak (VIL-021/029)

Oihalak non erosten zituen aipatzen du. Donostiako oihal-dendak: Sanariza, Sederías de Oriente, Arizala eta Sisi. Tolosako oihal-dendak. Kremaierak eta botoiak Tolosan erosten zituen. Tolosako mertzeriak: Ayerza eta Ezkurdia.

343. Jostun asko herrian (VIL-021/031)

Villabonan jostun asko ziren. Villabonatik gehienak Tolosara joaten ziren josten ikastera. Arantxa Donostiara joan zen han izeba zuelako. Neurrira egindako arropa.

344. Jostun lana eta etxeko zereginak (VIL-021/033)

Jostun lana eta familiaren uztarketa. Hirugarren umea eduki zuenean utzi zion josteari. Umeen arropak berak josten zituen.

345. Lasagabaster oihal-denda (VIL-021/034)

Donostiako Lasagabaster oihal-dendari buruzko hitz egiten du. Askotan joaten zen hara umeei arropa egiteko oihala erostera. Urtarrilean oihala prezio hobean jartzen zuten, eta ilara egoten zen kanpoan.

346. Haurren arropak (VIL-021/035)

Haurrak nola janzten zituen. Etxean egindako arropa izaten zen. Ohitura: umea tenteago ibiltzeko gerriko (faja) bat jartzen zitzaion. Gasazko pardelak.

347. Hilekoa eta haurdunaldia (VIL-021/036)

Hilekoaz-eta ez zien inork hitz egiten. Felpazko konpresak erabiltzen zituzten. Haurdunaldiak ezkutatu egiten ziren: umeak Paristik etortzen zirela esaten zien.

348. Elizan sartzea (VIL-021/037)

Umea eduki eta emakumeak ezin zuen etxetik atera. Elizan sartzea: umea izan zuen emakumeari apaizak eliz atarian ematen zion bedeinkazioa (barkamena) elizara sartu aurretik.

349. Teila buruan jarrita, etxetik irteteko (VIL-021/038)

Umea jaio eta berehala bataiatu behar izaten zen. Ama ez zen umearen bataiora joaten. Umea eduki eta emakumeak ezin zuen etxetik atera; atera behar izanez gero, teila bat jarri behar izaten zuen buruan. Elizan sartzea.

350. Misioak eta Aste Santua (VIL-021/039)

Aste Santuko aita Langarikaren sermoiak oroitzen ditu Arantxak. Umeak ekarri behar zirela esaten omen zuen. Prozesioak. Beldurra.

351. Pazkoakoa (VIL-021/040)

Pazkoakoa egiteko dotrina ondo jakin beharra zen. Dotrina ondo jakinez gero, txartel bat ematen zien eta txartel harekin joan behar zuten jauna hartzera.

352. Amasako eta Villabonako mojen eskolak (VIL-021/041)

Eskolan ikasten zuten dotrina. Amasako eta Villabonako mojen eskolan ibili zen Arantxa. Gurutzeko alabak kongregazioko mojen ikastetxeak ziren biak.

353. Eskolako kontuak (VIL-021/043)

Eskolako kontuak. Amasako mojen eskolan neskak eta mutilak ibiltzen ziren. Villabonan, berriz, neskak bakarrik ibiltzen ziren.

354. Mojekin paseora eta bezperak (VIL-021/045)

Jaiero mojekin paseora eta bezperetara joaten ziren.

355. Arrosarioa frantsesez (VIL-021/046)

Mojetan erdaraz ikasten zuten, eta arrosarioa frantsesez erreztatzen zuten. Euskaraz egitea galarazia zegoen. Zigorra: belauniko jarrita lurrean, besoak zabaldua.

356. Herriko hiltegia eta animaliak (VIL-022/002)

Villabonako hiltegia udaletxe azpian zegoela azaltzen du Arantxak. Herriko harategietara saltzen zuten. Eskatu egin behar izaten zuten gibela edo bestelakoak, agortu egiten zirelako. Oilaskoak eta untxiak etxean izaten zituzten eta bildotsak ere etxean hazi eta hiltzen zituzten.

357. Txerri hiltzen Gasteizen (VIL-022/003)

Etxean txerria hazi beharrean Gasteizera joan, txerria erosi eta bertan hil zutela kontatzen du Arantxak. Etxera ekarri eta hesteak garbitu ondoren, "mondonguak" egiten zuten, odolkia baino lodiagoak izaten zirela azaltzen du. Arkumea ere etxean hiltzen zuten.

358. Errazionamendua (VIL-022/005)

Gerra ondoren errazionamenduarekin ematen zizkieten talo bezalako opilak gogoratzen ditu. Ogia jateko preziatua zen. Taloa ere jaten zuten, nahi baino gutxiagotan. Irina erosi behar izaten zuten etxean bildutakoa oiloentzako izaten zelako. Olio eskasia ere izaten zen.

359. Billabona gerraostean (VIL-022/009)

Billabona nolakoa zen azaltzen du Arantxak. Billabonan etxe gutxi zeuden gerra osteko garaian. Ferratokia ere bazegoen herrian.

360. Tranbia herritik irteteko (VIL-022/011)

Tranbia erabiltzen zuten herriz herri mugitzeko, trena urrutiago zegoen eta gutxitan erabiltzen zuten. Tranbiak atzerapen handia izaten zuela gogoratzen du Arantxak. Autobusen aurretik, tranbia kendu zutenean, argindarrarekin zebiltzan autobusak izan ziren. Bizikletak ez ziren ohikoak izaten; lanerako erabiltzen zuten nagusiek baina umeez ez zuten izaten.

361. Umetako jolasak (VIL-022/013)

"Bulaketan" eta txingoka nola jolasten zuten azaltzen du Arantxak. Kaniketan, txapekin, kromoekin eta tabekin jolasten zen. Tabekin nola ibiltzen ziren azaltzen du.

362. Harrapaketan eta aulki jokoan (VIL-022/015)

Txikitan taldean egiten zituzten jolasak gogoratzen ditu. Begiak itxita zapiekin edo aulki jokoan ibiltzen zen Arantxa.

363. Billabonan dantzan (VIL-022/018)

Billabonan banda izaten zen eta inguruko herrietatik jende ugari etortzen zen jai egunetan. Dantza lotua zein soltekoa jotzen zuten. Hamalau urterekin hasi ziren irteten erromeriara baina goiz bueltatzen ziren etxera fama txarrik ez izateko. "Accion Catolica" izeneko eskolan ikasten zutenek debekatua izaten zuten dantza lotuak dantzatzea.

364. Saltzaileak baserriz baserri (VIL-022/023)

Arraina saltzera etxera joaten zitzaizkien; antxoak eta sardinak izaten zituzten eta oinez ibiltzen ziren saltzaileak, etxez etxe. Zorroztalea eta lapikoak konpontzen ere ibiltzen zirela azaltzen du Arantxak. Villabonatik Donostiara joaten ziren etxez etxe jostun lanetan aritzera ere.

365. Neskame lanak (VIL-022/024)

Neskame lanetan neska asko joaten ziren Villabonatik Donostia zein Tolosara. Villabonan uda pasatzen zuen emakume baten neskamearen anekdota kontatzen du. neskameen baldintzak nolakoak ziren aipatzen du Arantxak.

366. Neskame lanetik oso ikasiak (VIL-022/025)

Neskame lana fabrikakoa baino nahiago izaten zuten askotan. Neskame izatearen abantailez hitz egiten du: neskek asko ikasten zutela eta ondo hezitako pertsonak izatera iristen zirela aipatzen du.

367. Santiagoak eta San Martinak (VIL-022/026)

Santiagoak nolakoak ziren azaltzen du Arantxak. Gonbidatu asko izaten zen, eta kanpoko jende asko etortzen zela gogoratzen du. Bertan lo egitera geratzen ziren. Filarmonika eta orkestra izaten ziren, herri kirolez gain. San Martinak baserritarren jaiak izaten omen dira. Amasako ohituren inguruan eta dantza-sokaren inguruan hitz egiten du.

368. Moja izateko baldintzak (VIL-022/030)

Mojen lana gogorra izaten zela azaltzen du Arantxak. Janari falta ez zuten izaten baina beti lanean aritzen ziren eta ez zuten ezer irabazten. Moja sartzeko dotea eman behar izaten zuten eta herentzia ere apezpikuarentzat izaten zen. Herriko neska baten anekdota kontatzen du.

369. Villabonako pilotariak (VIL-022/032)

Villabonako frontoia berezia da, "erreborea" deitua. Frantsesak etorri izan dira betidanik jolastera, bertakoez gain. Gaur egun pilotariak fama gutxiago dutela iruditzen zaio. Anjelito Ugarte eta Arratibel pilotariak gogoratzen ditu.

370. Villabonako mojen ikastetxea (VIL-023/003)

Villabonako mojen ikastetxean egin zituen ikasketak umetan hasi eta 14 urtera arte. Handik atera eta eskola partikularretan ibili zen. Gero, mojetara itzuli zen kontabilitatea eta takigrafia ikastera. Mojen ikastetxea non zegoen aipatzen du. Bere amak ere ikastetxe horretan ikasi zuen.

371. Uniformea (VIL-023/004)

Gerra ostean, uniformea ibiltzen hasi ziren mojen eskolan. Laboreak zituzten egunetan, aurreko mantal beltza jantzten zuten. Igandetan, goma plizatu beltza jantzita joaten ziren mezatara eta bezperetara.

372. Zigorra: eskailerak garbitzea (VIL-023/006)

Villabonako mojen ikastetxeko kontuak. Mojei buruz hitz egiten du. Ikasle garaiko oroitzapen onak ditu. Igandetan, herriko plazan musika egoten zen, eta debekatuta zuten hara joatea. Beti norbait egoten zen zaintzen. Zigorra: eskailerak garbitzea. Lan gogorra zen: eskailerei alanbrea pasa, argizaria eman, zepiloa pasatu...

373. Mojen debekuak (VIL-023/011)

Igandetan, herriko plazan musika egoten zen, baina mojek ez zien uzten hara joaten. Bekatua zen. Igandero, bezpeteratara eta mojekin paseora joaten ziren. Ez zien uzten galtzetinak janzen; galtzerdiak izan behar zuten.

374. Komunioa (VIL-023/012)

1939an egin zuen komunioa. Gerra denbora zen. Maiteren aita kartzelan zegoen. Diru eskasia zegoen. Koloretako arroparekin egin zuen komunioa. Baziren soineko zuriarekin egiten zutenak. Ume garaiko oroitzapen onak ditu.

375. Bonbardaketa Donostian pasatu (VIL-023/015)

Bost urte zituen gerra hasi zenean. Donostian pasatu zituzten hilabete batzuk, utzitako etxe batean. Bonbardaketa zenean, gordelekura korrika joaten zirela gogoratzen du. Gordelekua: beheko okindegiko sotoa.

376. Aita gerran (VIL-023/016)

Maiteren aita gerrara joan zen. 28 urte inguru zituen aita soldadu joan zenean.

377. Aita preso (VIL-023/017)

Maiteren aita gerrara joan zen. Harrapatu egin zuten, eta kartzelan egon zen hainbat urtez. Bilbon (bi tokitan), Burgosen eta Astorgan egon zen preso. Bilbon preso egon zen denboran, ama bisitan joaten zitzaion. Aita aske gelditu eta estazioan ikusi zueneko oroitzapena.

378. Gosetea (VIL-023/019)

Gerra ondorenean, izugarrizko gosea pasatu zuten. Dirua izanagatik, elikagaien gabezia. Errazionamendua. "Ogia, oso txarra". Alkate batek bi edo hiru kamioikada patata ekarri zituen herrirako. Estraperloa.

379. Aita, ama, aitona eta izeba kartzelan (VIL-023/020)

Gerra denboran, Maite eta anaia amonarekin bakarrik gelditu ziren etxean aldi batez. Aita, ama, aitona eta izeba atxilotuta egon ziren. Aitona Zarauzko komandatziara eraman zuten, eta egun batzuen buruan bueltatu zen etxera. Izebak zortzi egun egin zituen atxilotuta. Ama, berriz, Donostiako Prim kaleko San Jose babesetxean egon zen zortzi hilabetez. Inbidiak eta salaketak.

380. Villabonatik Donostiara joan (VIL-023/025)

Gerra hasi zenean, Villabonatik Donostiara joan zen Maiteren familia. Aitonak Donostian egiten zuen lan, eta hari utzitako etxe batean egon ziren. Amonak Subijanakoko ehun-lantegian egiten zuen lana Villabonan. Donostiatik bueltatu zenean, ordea, ez zuten lantegian hartu.

381. Amona, ehun-lantegian (VIL-023/026)

Maiteren amonak Subijanako ehun-lantegian egiten zuen lan. Gaztetan hasi eta gerra iritsi zen arte egin zuen lana ehun-lantegian. Gerra hasi eta Donostiara joan zen familia. Amona Donostiatik bueltatu zenean, ez zuten lantegian hartu.

382. Aitona, argazkilaria (VIL-023/027)

Maiteren aitona argazkilaria zen. Donostiako argazkilaritza etxe batean egiten zuen lan. Etxea non zegoen azaltzen du. Lehenago, ordea, paper-lantegian aritu omen zen.

383. Kale Nagusiko umeak (VIL-023/031)

Umetako jolasak: sokasaltoan, txorro-morroka, buleka, bote-boteka, "a hirus"... Mutilekin jolasean ibiltzen zirelako marimutilak zirela esaten zien.

384. Garai bateko Villabona (VIL-023/032)

Bere ume denboran Villabona nolakoa zen azaltzen du. Dena baratzeak ziren.

385. Etxea, denda eta kapera (VIL-023/034)

Maiteren familia bizi zen etxeari buruzko azalpenak. Etxearen beheko partean, denda txiki bat zegoen. Lehenago, ordea, kapera txiki bat eta Santio bideko ostatu bat omen zeuden.

386. Udaletxea, alondegia eta abere-hiltegia (VIL-023/037)

Gaur egun liburutegia dagoen tokian zegoen abere-hiltegia. Astelehenetan hiltzen zituzten abereak. Udaletxea nola antolatuta zegoen aipatzen du: udala, aguazila eta eskolak (umeak, neskak eta mutilak).

387. Mutilekin dantzan egitea (VIL-023/042)

Igandetan, Villabonako plazan musika egoten zen, baina mojek ez zien uzten hara joaten. Gaizki ikusia zegoen mutilekin dantza egitea. Maitek Villabonatik kanpora egiten zuen dantza mutilekin: Lazkaoko, Hernaniko edota Andoaingo jaietan.

388. Ume garaia (VIL-024/002)

Amasako mojen eskolan ibili zen. Umetako jolasak: buleketan, harrapaketan. Karakolak bildu, eta tranbiaren pasabidean lagatzen zituzten tranbiak zapaltzeko.

389. Guardia Zibila (VIL-024/004)

Subijanako ehun-lantegiko ordutegia: 06:00-14:00 edo 14:00-22:00. Guardia zibilekin harremana ona zuten.

390. Subijanako ehun-lantegia (VIL-024/006)

Subijanako ehun-lantegiari buruzko azalpenak. Ehungailuan aritzen zen Milagros. Lau makina zeuden. Laneko gorabeherak.

391. Ehungintza eta estanpazioa (VIL-024/007)

Subijanako ehun-lantegiari buruzko azalpenak. Ehungailuez gain, estanpadorak ere baziren lantegian. Gizonak eta emakumeak aritzen ziren lanean.

392. Subijana ehun-lantegiko nagusiak (VIL-024/010)

Subijanako ehun-lantegiko nagusiei buruz hitz egiten du. Milagrosek bost urte egin zituen lantegian lanean.

393. Astean, 35 pezeta (VIL-024/011)

Subijanako ehun-lantegiari buruzko azalpenak. Astean, 35 pezeta irabazten zituen. Jatekoa prezio merkeagoan eskuratzen zuten lantegiaren bidez. Irabazitako dirua amari ematen zion.

394. Ollero etxea (VIL-024/013)

Ollero etxean bizi zen Milagros. Autobia egin zutenean, etxea bota egin zuten. Etxe inguruak nolakoak ziren kontatzen du.

395. Ardiak (VIL-024/014)

Ollero etxean bizi zereneko kontuak. Ardiak zituzten, eta Milagrosen osaba Aralarren egoten zen ardiekin, larrean. Ardientzako borda zuten etxe ondoan.

396. Fraisoro aldeko larreetara ardiekin (VIL-024/015)

Milagros ardiak gobernatzen ibiltzen zen. Hara eta hona ibiltzen zen ardiekin. Fraisoro aldeko larreetara joaten zen ardiekin.

397. Gazta egitea (VIL-024/017)

Gazta nola egiten zuten kontatzen du. Zumitzezko moldeak erabiltzen zituzten. Gazta ketzeko txabola bat zuten. Keak kolorea ematen zion gaztari.

398. Gazura eskean (VIL-024/018)

Gazta eta ardi-esnea saltzen zuten. Gazta egiten zutenean, jendea gazura eske joaten zitzaien etxera.

399. Gazta, esnea eta mamia saldu (VIL-024/019)

Gazta eta ardi-esnea etxetik saltzen zuten. Villabonako bi-hiru etxetara mamia eramaten zuten.

400. Arkumeak (VIL-024/020)

Garai batean ezin zen arkumerik saldu. Kontrabandoan saltzen zen.

401. Familiari buruzkoak (VIL-024/021)

Osaba-izebekin hasi zen Milagros. Osaba-izebekin hiru alaba eta semea izan zituzten, baina aurretik familia izateko arazoak zituzten eta Fraisorotik mutil bat ekarri zuten.

402. Amasako mojen eskola (VIL-024/025)

Amasako mojen eskolan ibili zen Milagros. Ondo portatzen ez baziren, mojen gonetara lotzen zituzten kateorrazekin. Eskailerapean ere jartzen zituzten zigortuta. Eskolan erdaraz egiten zuten.

403. Ahizparekin josten ikasi (VIL-024/026)

Milagros osaba-izebekin hazi zen. Aitak ahizpa Donostiako eskola batean sartu zuen, eta ahizpak josten ikasi zuen han. Gero, osaba-izebek eskolatik atera eta Villabonan bizi izan zen Milagrosen ahizpa. Ahizpak irakatsi zion josten.

404. Ume arropak josten (VIL-024/027)

Milagrosek ahizparekin ikasi zuen josten. Kanporako josten zuten. Ume arropak egiten zituzten. "Nido de aveja".

405. Laboreak (VIL-024/028)

Amasako mojen eskolan laboreak egiten zituzten arratsaldeetan. Bainikak.

406. Eskolako kontuak (VIL-024/030)

Amasako mojen eskolari buruzko kontuak. Lau moja zeuden eskolan. Brodatzen irakasten zuten. Matematikak, irakurketa eta dotrina ikasi zituen mojekin.

407. Bi komunio (VIL-024/031)

Bi komunio egin zituen: bat sei urterekin, bestea hamaikarekin. Biak Amasako parrokan.

408. Lehengusuei bazkaria eramatera (VIL-024/032)

Eskolatik atera eta etxera joaten zen bazkaltzera. Belarretan ibiltzen ziren lehengusuei bazkaria eramatera joan behar izaten zuen. Belar ondua.

409. Gaztaina bila (VIL-024/033)

Gaztaina biltzera joaten ziren. Gaztaina pila bildu eta nagusiak kendu zizkienekoa. Pirrilla eta Irura aldera joaten ziren gaztaina bila.

410. Txerri-hiltzea (VIL-024/034)

Txerrientzako ezkurak biltzen zituen. Etxean hiltzen zuten txerria. Harakina joaten zen bertara.

411. Txerrimuniak (VIL-024/035)

Familiartekoei txerrikia oparitzeko ohitura: txerrimuniak. Izeba bat joaten zen odolkiak eta txorizoak egiten laguntzera.

412. San Nikolas Egunean kantu-eskean (VIL-024/036)

Abenduaren 6an, San Nikolas Egunean, San Nikolas aldera joaten ziren. Hango etxeetan kantu-eskean ibiltzen ziren eskolara joan aurretik. "San Nikolas coronado..." abesten du.

413. Garbitokia eta arropa garbitzea (VIL-024/040)

Garbitokia non zegoen eta nolakoa zen azaltzen du. Milagrosek Ollero etxe ondoko errekan garbitzen zuen arropa.

414. Ura eta garbitasuna (VIL-024/041)

Etxean bazuten ura. Ekonomikan berotzen zuten ura. Gorputzaren garbiketa. Ez zuten errekan bainatzeko ohiturarik. Ardiak erreka ez pasatzeko langa bat jartzen zuten. Milagros langa haren gainetik pasatu zen, eta lehengusuak jo egin zuela gogoratzen du.

415. Arrain-saltzaileak (VIL-024/043)

Arrain-saltzaileak herrian jakineko tokian egoten ziren saltzen. Etxez etxe ere ibiltzen ziren.

416. Pregoia (VIL-024/044)

Udaleko langile batek irakurtzen zuen pregoia. Danborra jotzen zuen.

417. Garbitokia eta medikuaren kontsulta (VIL-024/045)

Herrian beste garbitoki bat non zegoen aipatzen du. Arrain-saltzaileak non egoten ziren. Medikuaren kontsulta non egon zen.

418. Villabonako mojen eskola (VIL-025/003)

Pedroren gurasoak ezkondu eta Zizurkilera joan ziren bizitzera. Hiru anai-arrebek ikasi zuten Villabonako mojen eskolan. Villabonako mojen eskola eta Amasarako bidea non zeuden azaltzen du.

419. Zizurkilgo eskola (VIL-025/004)

Villabonako mojen eskola bukatu eta Zizurkilgo eskola publikoan ibili zen. Eskola non zegoen azaltzen du. Maisua: Juan Imaz 'Eskailu'.

420. Mojetan, komunioa egin arte (VIL-025/006)

Villabonako mojen eskolari buruzko azalpenak. Neskak eta mutilak bereizita ikasten zuten. Mutilak komunioa egin arte ibiltzen ziren ikastetxe horretan. Neskak, 14 urtera arte.

421. Dotrina (VIL-025/007)

Zizurkilen bizi arren Villabonan egiten zuen bizimodua. Villabonako elizara joaten zen dotrina ikastera. Mojen eskolan ere ikasi zuen katekesia.

422. 'Viva España' eta 'Cara al Sol' abestu behar (VIL-025/008)

Zizurkilgo eskolatik ateratzen zirenean, 'Viva España' eta 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten atarian. Pasadizoa: maisuak bere semea banderarekin jo zuen ez zuelako 'Cara al Sol' abestu nahi. Zelatariak.

423. Eskolan, etxean eta kalean erdaraz (VIL-025/009)

Mojetan erdaraz ikasten zuten. Etxean eta lagunartean erdaraz egiten zuen. Euskaraz egitea galarazia zegoen. Gerora, lanean eta bikotearekin ikasi zuen euskaraz hitz egiten.

424. 13 urterekin, SACEMen hasi (VIL-025/010)

Lehenengo, bertako eskolan ikasle moduan ibili zen, eta gero langile moduan. Maisuen izenak aipatzen ditu.

425. SACEMen eta akademian (VIL-025/012)

13 urterekin, SACEMen hasi zen. Goizetan, mekanika ikasten zuten; arratsaldetan, matematika eta marrazketa lineala. Handik atera, eta Villabonako akademiara joaten zen.

426. 400 langiletik gora SACEMen (VIL-025/013)

SACEM lantegiari buruzko kontuak. Zenbat langile ziren. Beti langile bila omen zebiltzan.

427. Villabonako lantegiak (VIL-025/014)

Pedro gaztea zela, Villabonan zeuden lantegiak: SACEM (mekanika), Subijanako ehun-lantegia, Salvadora eta Portu paper-lantegiak. Adunan, torlojugintzan aritzen ziren.

428. Lan faltarik ez (VIL-025/015)

Lantegietako jendea Hernaniko tren-geltokira joaten omen zen maletekin jaisten zen jendeari lana eskeintzera. Kanpotik lanera etortzen zen jendea.

429. Soldata kontuak (VIL-025/016)

Lanean hasi zenean zenbat irabazten zuen aipatzen du. Astean, 48,50 pezeta irabazten zituen. Ofizial egin zenean, aparteko ordu bakoitza 17,50 edo 18 pezeta ordaintzen zien. Beti aparteko orduak sartzen: 10, 11 eta 12 orduko lanaldiak.

430. SACEM lantegiko kontuak (VIL-025/018)

SACEM lantegian doitzaille ("ajustadore") lanetan ibili zen. Nolako eta norako makinak egiten zituzten azaltzen du. Makinaria elektrikoa sartu eta lana jaisten hasi zen.

431. Lan-ibilbidea (VIL-025/019)

SACEM lantegitik Tolosako paper-lantegira joan zen, mekanikari. Zortzi urte egin zituen paper-lantegian. Handik harrobiko makinaria egiten zuen lantegi batera joan zen. Lantegia itxi, eta Kelsen lantegian aritu zen mantenu lanetan erretiroa hartu zuen arte.

432. Jendea lanera etorri (VIL-025/021)

Villabonako lantegietan lan asko zegoen, eta kanpotik jendea etorri zen lanera. Herria hazten joan da. Pedroren ume garaian, 1.500 biztanle inguru ziren. Kanpoko jendearekin harremana.

433. "Hildakoak bisitatzera" (VIL-025/024)

Umetako kontuak. Arrebarekin joaten zen eskolara. Errepideetan ia ez zen trafikorik. Herrian norbait hiltzen zen bakoitzean, arrebarekin joaten zen hildakoaren etxera, "bisitatzera". Hildakoari ur bedeinkatua botatzen zioten.

434. Ama, Aizpurunean (VIL-025/025)

Pedroren amak Aizpurunean egiten zuen lana. Espartzuzko zakuak josten zituen.

435. Non bizi izan diren (VIL-025/026)

Pedroren aitak biltegia ireki zuen Andoainen, eta bere kasara hasi zen lanean. Orduan, Aizpurunetik Zizurkilera joan ziren bizitzera. Gero, Villabonako Kale Nagusian lau bizitzako etxea erosi zuen aitak.

436. Zubiaurre baserria (VIL-025/028)

Pedroren aita Zubiaurre baserrian jaio zen. Errenteroak ziren. Baserri handia zen: dolarea, artoa txikitzeko makina... zituen. Baserri inguruak nolak ziren aipatzen du. Paper-lantegira pasta eramaten zuten idi-pareei buruzko kontakizuna: zubia ezin igota ibiltzen ziren.

437. Baserrira egunero (VIL-025/029)

Umetan, egunero joaten ziren Zubiaurre baserrira. Labe handi bat zuten baserrian. Baserrian egiten zuten ogia eta gazta.

438. Behi-esnea saltzen (VIL-025/030)

Zubiaurre baserrian zazpi behi zituzten. Behi-esnea saltzen zuten baserrian bertan.

439. Errazionamendu garaia (VIL-025/031)

Baserrian ez zuten jatekorik falta. Aitonak errazionamendu doblea jasotzen omen zuen. Baserriko generoa trukatzeko zuten azukrea eta olioagatik. Errazionamenduko olioak.

440. Txerrikiaren kontserba (VIL-025/032)

Etxean bost lagun bizi ziren, eta urtean txerri bat jaten zuten. Txerrikiari gatzak ematen zioten ondo kontserba zedin. Txerriaren gantza urtu eta lurrezko ontzietan edo maskurietan jasotzen zuten.

441. Baserriko sagardoa (VIL-025/033)

Zubiaurre baserrian dolarea zegoen, eta bi urtean behin egiten zuten sagardoa. Bazituzten sagastiak, baina sagar hura etxerako izaten zen. Sagardoa egiteko sagarra Zizurkildik erosten zuen Pedroren aitak.

442. Pitarra (VIL-025/034)

Pitarra zer den azaltzen du.

443. Sagardoa nola egiten zuten (VIL-025/036)

Zubiaurre baserrian sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Sagar-patsa erabiltzen zuten lurra ongarrizteko.

444. Garai bateko Villabona (VIL-025/037)

Pedro umea zela Villabona nolakoa zen azaltzen du. Dendak, sagardotegia, estankoa eta garbitokia non ziren aipatzen du.

445. Garbitokiak (VIL-025/038)

Berdura plazaren ondoan arraina saltzeko postu batzuk zeuden, eta haien atzean garbitokia zegoen. Garbitoki handia eta biribila zen. Beste hiru garbitoki ere aipatzen ditu.

446. Errotak (VIL-025/040)

Etxeondora bidean errota bat zegoen. Asteasura bideko errotak aipatzen ditu: Akezkoa, Pello errota, Sotoerrota... Pedroren etxekoak Akezkoa errotara joaten ziren.

447. Gari-sorotik txoriak uxatzen (VIL-025/041)

Zubiaurre baserrian artoa eta garia egiten zuten. Gari-sorotik txoriak uxatzeko harriz betetako pote bat astintzen ibiltzen zen Pedro.

448. Goserik ez, baina inbidia bai (VIL-025/042)

Beste umeei txokolatea edo txorizoa ikusitakoan inbidia pasatzen zuten. Taloak. Arrautza bat eta litro erdi esnez egindako tortila hiru lagunentzat.

449. Abereak (VIL-025/043)

Zubiaurre baserrian zer abere zituzten: txerriak, oiloak, untxiak, akuriak... Erreka aldean arrautzak jarri zituen oiloaren pasadizoa. Baserriko bizimodua zuten.

450. Ferratokiak (VIL-025/044)

Villabonan hiru ferratoki zeuden. Ferratokiak non zeuden eta ferratzaileak zein ziren aipatzen du. Aberea ferratokira eramatea. Zizurkilgo ferratzaile bat ere aipatzen du.

451. Aitak emakume bat errekatik atera (VIL-025/045)

Pedroren aita goizean goiz joaten zen erreka ondoko baratzerara lanera. Errekara eroritako emakume bat uretatik atera zueneko pasadizoa kontatzen du. Baratzeko lanak egin eta lantokira joaten zen lanera.

452. Harrobiak (VIL-025/049)

Aizpuruneko harrobiak non zeuden azaltzen du.

453. Aizpurunekoa II (VIL-025/050)

Pedroren familia Aizpuruneko etxean bizi izan zen. Lehenago etxe hartan nagusia bizi izan zen. Aizpurunean emakume asko aritzen zen espartzuzko zakuak josten.

454. Jendetza ibiltzen zen astearteroko azokan (VIL-026/001)

Herrikoak ziren plazan arraina saltzen zuten arrantzaleak. Baserritarrek asteartero saltzen zituzten barazkiak.

455. Trapu-saltzaileak, txatarreroak... maiz (VIL-026/003)

Labanak zorroztera joaten ziren oinez herrira.

456. Serenoa ia erre kara bota zutenekoa (VIL-026/004)

Aguazila danborrarekin ateratzen zen kalera bandoa jasotzera.

457. Atea sokaz irekitzen zuten (VIL-026/005)

Ez zuten lapurren beldurrik garai hartan, beti irekita egoten ziren atea.

458. Udaletxeak egurra saltzen zien biztanleei (VIL-026/006)

Ez zuten ikatzik erosten, egurra baizik.

459. Larunbatetan ere lanera (VIL-026/007)

Goizeko zazpietatik ordubietara egiten zuten lan. Arratsaldetan baratzean aritzen zen aita eta amarekin.

460. Zesta-punta Villabonan (VIL-026/008)

"Paris pequeño" esaten zitzaion Villabonari. Familia askotan zesta-punta jokalariren bat egoten zen.

461. Mendian asko ibiltzen zen (VIL-026/009)

Eskalatu ere egiten zuten, Ionazko botekin. Loatzo mendi elkarteko kide izan zen.

462. Anboto, Pirineoak... ezagutu zituzten (VIL-026/010)

Mendi taldearekin eta koadrilarekin joaten ziren mendira, autobusa alokatuta edo trenez.

463. Autoa, bizikleta eta tranbia (VIL-026/011)

Lehenengo bizikleta eduki zuen, ondoren motorra. Tranbia ezagutu zuen, bat Tolosatik eta bestea Donostiatik ateratzen ziren, baina oso mantsoak ziren hauek. Egunean bi edo hiru zeuden.

464. Autobusak "gurpildun tranbiak" (VIL-026/012)

Autobusak bere emaztearen lehengusina harrapatu zuen. Trenetik jende asko erortzen zen.

465. Uholdeak (VIL-026/014)

1954.urte inguruan uholdeak egon ziren, atalondo guztia estaliz.

466. "Jendea baino taberna gehiago" (VIL-026/015)

Tolosatik ekartzen zituzten gozoak dendetara. Taberna eta sagardotegi asko zeuden. Hamar ordutik lanean egon ondoren, afaldu eta txikiteoan ateratzen ziren.

467. Taberna batetik bestera (VIL-026/016)

Tabernak itxi eta elkartera joaten ziren afaltzera.

468. Emakumeak eta tabernak (VIL-026/017)

Gizonekin bai, baina emakumeak ez ziren bakarrik tabernara joaten. Elkarteetan beranduago hasi ziren sartzen.

469. Emakumeak beti gonaz (VIL-026/018)

470. Aza-hostoan banatzen ziren zerri puskak (VIL-026/019)

Zerri zatiak ematen zizkieten elkarri.

471. Abereak txabolan zituzten (VIL-026/020)

"Odolkiak ordainetan" esamesaren jatorria azaltzen digu.

472. Neskak eta dantza lotua (VIL-026/021)

Neskak bakarrik dantzan ibil zitezkeen, baina mutilekin ez.

473. Tolosan ezagutu zuen emaztea (VIL-026/022)

Kalabazak eman zizkion emazteak.

474. Saharan soldadu (VIL-026/023)

Asko argaldu zen soldadutzan beroa zela eta. Dirua ematen zieten soldadutzan egoteagatik. Dirua jasotzean korrika jatetxeetara joaten ziren.

475. Estolda azpian bonbardaketatik salbu (VIL-027/003)

Gerratik Oriora eta Mundakara egin zuten ihes. Behin, mendian zela, hegazkinak etorri ziren Gernika bonbardatzera eta estolda azpian ezkutatu zen.

476. Bizkaia-Kantabria-Frantzia (VIL-027/004)

Bilbora joan ziren Mundakatik, eta ondoren Castrourdialesera.

477. Anaia zaharrena gudari (VIL-027/005)

Teruelen egon zen anai zaharrena. Hamar anai-arreba ziren orduan.

478. Frantsesak laguntzera joaten ziren (VIL-027/006)

Eskuineko jende asko zegoen Frantzian. Elizara zapia eta txanoa jantzita joaten ziren. Herrira bueltatzean, txapelgorriak ezagutu zituzten, eta falangistek euskaraz ez hitz egiteko esan zieten.

479. Ezkutuan, baina euskaraz (VIL-027/007)

Bai familian eta baita lagunekin ere euskaraz egiten zuen Davidek, eta Andoain Villabona baino euskaldunagoa dela dio.

480. "Gerran irabazten da dirua" (VIL-027/008)

Laborde fabrika militarizatu eta diru asko irabazten hasi zen. Daviden moduan, Martin Ugalde ere bertan ibili zen lanean.

481. Nolakoa zen Martin Ugalde? (VIL-027/009)

Villabonako emakume batekin ezkondu zen Martin Ugalde. Venezuelara joan zen eta bertan hasi zen idazten.

482. Gernikako bonbardaketa, kasualitatea? (VIL-027/010)

Dena antolatuta zutela kontatzen du, gazte batzuk planoak egiten ibili zirela, bonbak nora bota erabakitzen.

483. Txorien afizioa I (VIL-027/011)

Aitari txoriak asko gustatzen zitzaizkion, eta eskolako maisu batek txoriak diseatzeko aukera eman zien, afizioa garatzeko aukera izan zuen horrela.

484. Txorien afizioa II (VIL-027/012)

485. Marokon ere txoriak (VIL-027/013)

Txoriak sarek nola harrapatzen zituzten kontatzen du.

486. San Martin egunean festa Laborden (VIL-027/014)

Txoriak askatzen zituzten San Martin egunean.

487. Txorien migrazioak (VIL-027/016)

Txorien pase edo migrazioez dihardu.

488. Gaur egungo arrantza (VIL-027/017)

Errekak eta itsasoa bere iritziz nola birpopulatu behar den kontatzen du.

489. Txoriak ligaz harrapatzea (VIL-027/019)

Zuhaitz adarretan ziriak jarriz ehizatzen zituzten.

490. Txoriak Marokotik Madrilera (VIL-027/020)

Marokon soldadu egon zen garaian, bertakoek harrapatzen zituzten txoriak Madrilera bidaltzen zituztela kontatzen du Davidek.

491. "Kaiolarik gabeko etxerik ez zen" (VIL-027/021)

Garai batean oso ohikoa zen etxean txoriak edukitzea, gaur egun zakurrak dituzten bezalaxe.

492. Txori emeak eraztun bidez markatzen zituzten (VIL-027/022)

493. Txoriak harrapatzeko sareak (VIL-027/023)

Sare japoniar batzuk eman zizkieten txoriak harrapatzeko. Modu hau oso "garbia" dela dio.

494. Txori berezirik inoiz harrapatu al duzu? (VIL-027/025)

495. Txorien izenak eta bariazioak (VIL-027/027)

Txolarra, horma-txoria... Herrien arabera izenak aldatu egiten dira.

496. Non ikasi dituzu txorien izenak? (VIL-027/029)

Aitarekin eta liburuen bidez ikasi ditu txorien izenak.

497. Txoriak ikusteko egiten zuen goardia soldadutzan (VIL-027/031)

Soldadutzara joan zenean, txoriak ikusteko egiten zituen goardiak. Egun batean, portuges bat topatu zuen txoriak harrapatzen.

498. "El tío de los bichos" (VIL-027/032)

Intsektuak aztertzea ere gustatzen zitzaion, batez ere tximeleta eta kakalardoak. Behin Correoseko nagusiaren bisita jaso zuen, jasotako intsektuak ikusi nahian.

499. Erreka zikinak gerraostean (VIL-028/004)

Gerraostean material kimikoa erabiltzen hasi eta errekek zikintzen hasi ziren. Usaina zela eta, emakumeek joan egin behar izaten zuten haurdun zeudenean.

500. Izainak tortillan (VIL-028/011)

Garai batean farmazian sartzen zituzten izainak. Andoaingo gizon bati afaltzeko jarri zizkion bere emazteak, gaizki ulertuta.

501. Plazako eskola eta Amasakoa (VIL-029/002)

Juan Marik lau urte Urnietan pasatu zituen umetan. Villabonako plazako eskolan egon zen eta ondoren Amasan eta berriz ere Villabonan. Benitoren ustetan zintzoak Villabonan utzi eta bihurriak Amasara bidali zituzten. Amasako maisua Don Gascon frantsesa zen, eskola hobeto erakusten zuena. Villabonako irakasleak frankistak ziren. Mojen eta apaizen ikastetxeak ere bazeuden. Benito plazako eskolan ibili zen.

502. Eskola, aguazilaren etxea eta idazkaria (VIL-029/003)

Amasako eskolak non zeuden azaltzen du. Herria nahiko bildua zela dio Juan Marik. Udaletxean bigarren solairuan zegoen eskola. Aguazila ere bertan bizi zen eta beheko solairuan idazkaria egoten zen. Eskolako irakasleak kanpotarrak ziren eta "Cara al Sol" abestu behar izaten zuten. Irakasle baten barregarrikeriak.

503. Umetan auzoen arteko lehia (VIL-029/005)

Umetan auzoka ibiltzen ziren eta elkarren kontra borrokan. San Juanetan bakoitzak bere auzoan sua egiten zuen. Auzoen arteko lehia izaten zuten. Menditik egurra ekartzen zuten.

504. 1952ko izoztea (VIL-029/006)

1952an izozte handia izan zen eta ingurua erre egin zuen. Otsail osoa izotzetan pasatu zuten. Egur asko usteldu zen.

505. Haurtzaro zoriontsua (VIL-029/007)

Izozteaz geroztik, urtero pinua aldatzen aritzen ziren. Laranja eta opil bat ematen zieten eta ondoren zinemara joaten ziren Cantinflas ikustera. Haurtzaroan oso pozik bizi zirela diote. Oraingo umeen bizimoduari buruzko iritzia ematen dute.

506. Don Roman eta Don Epifanioren izaera eta jokabidea (VIL-029/008)

Zintzilika ibiltzen ziren batetik bestera. Don Roman apaizak ume guztiak maite zituen eta denak zintzoak zirela esaten zien. Hilero konfesatzera joanda, denak barkatzen zizkien. Don Epifanio agintaria zen eta ez zuten berarekin konfesatu nahi izaten. Adinean gora egindakoan, sexuari buruz galdetzen zien apaizak.

507. Dotrina ikasterakoan tranpak (VIL-029/010)

Dotrina elizan jasotzen zuten: katekistak eta apaizak arduratzen ziren. Bi liburu izaten zituzten. Benitok anekdota bat kontatzen du.

508. Ostegun santuko eta etxeetako gaubelak (VIL-029/011)

Aste Santuan prozesioak egiten ziren. Ostegun santu gauez elizan txandak egin behar izaten zituzten gazteek, Jaungoikoa zaintzen. Etxeetan norbait hiltzen zenean ere, gaubela egiten zuten. Edan egiten zen eta mozkortu eta bertsotan ere aritzen ziren.

509. Goitibeherak, tiragomak, txori kabiak... (VIL-029/013)

Goitibeherak eta tiragomak egiten zituzten eta haiekin aritzen ziren. Txori kabitan asko ibiltzen ziren. Etxe guztietan izaten ziren. Harrobian behetik gora ibiltzen ziren.

510. Orduko Villabona eta umeen gaiztakeriak (VIL-029/014)

Villabona nolakoa zen kontatzen dute. Trolebusean egiten zituzten gaiztakeriak kontatzen dituzte. Baserritarren astoak askatu egiten zituzten umeek.

511. Kaleko giroa (VIL-029/015)

Herriko labaderoan kaleko emakumeak aritzen ziren. Baserritarrek bakoitzak bere izaten zuten. Esnea etxeetara banatzen zuten eta barazkiak saltzen zituzten. Labadero ondoan eta Txokolonean lotzen zituzten astoak. Hiltegia eta Alondegia udaletxe azpian izaten ziren. Dendak izendatzen dituzte.

512. Letxeria, hiltegia, ferratokia... (VIL-029/016)

Txokoloren letxeria zegoen eta baserritarrek esnea ekartzen zuten. Gurina egin eta saltzen zuten. Baserritarrek hiltegira eramaten zituzten txekorrak. Umeak begira ibiltzen ziren. Sei harategi zeuden. Ferratokia eta burdindegia non zegoen kontatzen dute. Zezena non egoten zen kontatzen du.

513. Nagusiagoekiko tratamendua (VIL-029/019)

Benitoren aitak udaletxean sartzeko ere txapela kendu egin behar izaten zuen. Guraso askori berorika egiten zieten seme-alabek. Apaizei denek egiten zieten. Errespetu handiagoa zegoen lehen baina jo ere asko egiten zituzten gurasoek seme-alabak.

514. Irratia eta aparatu berriak (VIL-029/025)

Benitok hamabi urte zituela irratia ekarri zuen etxera eta miraria iruditzen zitzaion. Telefonoa, telebista, kamera... izugarritzko aurrerapenak direla dio.

515. Villabonako lantegiak (VIL-029/027)

Subijanan oihalak egiten zituzten, koloretakoak eta arinak. Barrutik nola banatuta zegoen kontatzen dute. Paper-lantegia, torloju-lantegia eta Sacem. Gaur egunean lantegiek formakuntza ez bideratzeak pena ematen dio Juan Mariri.

516. Gustoko ofizioa garaiz (VIL-029/029)

1959-1960 inguruan Espainiatik obretara lanera etortzen hasi ziren; lantegietara geroago. Orduan gazteei zenbat ordaintzen zitzaaien kontatzen dute. Lehen hemezortzi urterako ofizioa ikasita edukitzen zuten. Lehen gustoko ofizioa aukeratzeko bidea izaten zuten. Igeltseritzan izan diren aldaketak aipatzen dituzten.

517. Osteguna: "día de bragas" (VIL-030/001)

Goizetan lanean eta arratsaldean ikastera joaten ziren. Emaztearekin ostegun eta igandetan egoten ziren. Emakume asko neskame lanetan zebiltzan orduan. Gaur egungo eta haien gaztetako parranda mota oso desberdina dela diote.

518. Sexua bekatu? (VIL-030/002)

Don Romano apaizak ez zien inoiz sexua bekatua zela esan.

519. Etxean sexua "tabu" (VIL-030/004)

Ez zuten sexuari buruz hitz egiten.

520. Haurdunaldia ezkutatu egiten zen (VIL-030/005)

Etxeetan haurdunaldiak ahalik eta gehien ezkutatzen saiatzen ziren.

521. Soldadutza aurretik haurdunaldirik ez (VIL-030/007)

Arazotsua izaten zen soldadutzara joan aurretik emaztea haurdun uztea, urte eta erdiz kanpoan egon behar baitzuten gizonak, jorنالik irabazi gabe.

522. Seme zaharrenak ezin etxera ezkondu (VIL-030/008)

Etxe arruntetan seme-alaba zaharrenak etxetik kanpora ezkontzen ziren. Baserrietan, aldiz, kontrara.

523. Garai bateko lanbideak I (VIL-030/011)

Serenoaren lana kendu dute gaur egun. Honek gauzez egiten zuten lan, tabernak itxiz.

524. Serenoak giltzak edukitzen zituen (VIL-030/013)

Serenoa makilaz ibiltzen zen kalean, tabernak ixten eta jendea etxera bidaltzen.

525. Pregoilariak bandoa jotzen zuen (VIL-030/014)

Erderaz egiten zuen pregoilariak. Lekurik jendetsuenetan irakurtzen zuen bandoa.

526. Mikeleteak (VIL-030/015)

527. Garai bateko lanbideak II (VIL-030/016)

Txurro eta izozki saltzaileak herriz herri ibiltzen ziren. Barkilleroak izozkia ere saltzen zuen.

528. Igandero dantza eta banda (VIL-030/017)

Kalabaza mordoa jasotzen zituztela diote. Dantza lotua egiten zuten.

529. Villabonan taberna asko (VIL-030/019)

Txikiteorako ohitura handia zegoela diote, egunero-egunero lanetik atera ondoren eta etxera joan aurretik. Emakumerik ez zebilen tabernetan.

530. Emakumea eta galtza (VIL-030/022)

Emakumeek galtza jartzea zigortzeko modukoa zela kontatzen dute.

531. Villabona eta pilota (VIL-030/025)

Pelotari zenbait kanpora joaten ziren bizitzera, Ameriketara, besteak beste.

532. Jende asko joan zen kanpora lanera (VIL-030/026)

Batez ere, Ameriketara joan ziren.

533. Villabonako bertsolariak (VIL-030/028)

534. Ipuinak eta istorioak (VIL-030/030)

Sorgina eta "sacamanteca" pertsonaiek ematen zieten beldurra.

535. Atez ate kantuan (VIL-030/032)

Eguberritan etxez etxe aritzen ziren kantuan, baita San Nicolas bezperan ere.

536. Sarasola bertsolaria (VIL-030/035)

537. Bertsozaletasuna (VIL-030/036)

538. Lehengo eta oraingo festak (VIL-030/038)

Senideak bisitan etortzen ziren jaietan. Garbantzua jatea berezia zen, herriko jaietan jaten zituzten.

539. Villabonako zinema (VIL-030/040)

Cantinflas zen gehien ikusten zuten filma. Ostegunetan jartzen zuten zinema.

540. Batetik bestera autobusez (VIL-030/041)

Egunez autobusez mugitzen ziren, gauez, ordea, oinez.

541. Gauza gutxirekin konforme (VIL-030/042)

Garai batean oso gutxirekin konformatzen zirela kontatzen dute. Gaur egungo gazteek gauza gehiegi dutela diote.

542. Auzolana baserritarren artean (VIL-030/043)

Baserritarren artean laguntza ematen zioten elkarri.

543. Arrain-saltzaileak Villabonan (VIL-030/044)

Bai buru gainean eta baita gurdiarekin ere arraina saltzen ibiltzen ziren Villabonan.

544. Zozo hego-gorria (VIL-031/001)

Zozo hego-gorriaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpenak.

545. Zozoa (VIL-031/002)

Zozoaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpenak.

546. Benarriza (VIL-031/004)

Benarriz edo xarlazalearen kantua, irudia eta honi buruzko azalpena.

547. Karnaba (VIL-031/006)

Karnabaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena.

548. Karnabari buruzkoak (VIL-031/007)

Karnabak habian hartu eta etxean hazi egiten zituzten. Kaiolan karnabak zergatik hiltzen diren azaltzen du. Arrak abesten du.

549. Txori arren dotorezia (VIL-031/008)

Arra dotoreena izaten da, emeak erakartzeko. Pertsonetan alderantziz izaten da orain baina ez da hala izan beti; marrazkilari eta eskultoreen adibideak jartzen ditu.

550. Txoka (VIL-031/010)

Txokaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena.

551. Txantxangorria (VIL-031/012)

Txantxangorriaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena. Euskal Herriko txoririk maiteena, lehendabizi esnatzen dena eta azkena lotaratzen dena.

552. Txantxangorria oso maitea Euskal Herrian (VIL-031/014)

Txantxangorria oso maitea izan da. Basagizonentzat iratzargailua izaten zen. Papar gorriaren kontua azaltzen du. Neguan ere gogor mantentzen da.

553. Pintxina edo txonta (VIL-031/016)

Pintxina edo txontaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena.

554. Urretxindorra (VIL-031/018)

Urretxindorraren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena.

555. Txirta (VIL-031/020)

Txirtaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena.

556. Txorrua (VIL-031/021)

Txorru-txoriaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena. Aitari gertatutakoa kontatzen du.

557. Otatxiboa edo lezkaria (VIL-031/023)

Lezkari edo otatxiboaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena.

558. Ahatea (VIL-031/025)

Ahatearen kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena. Garai batean gutxituta zeudela eta, nola atera zituzten. Ilobekin gertatutako pasarte barregarria kontatzen du.

559. Urre-txirria (VIL-031/027)

Urre-txirriaren kantua, marrazkia eta honi buruzko azalpena.

560. Pagausoa (VIL-031/029)

Pagausoaren marrazkia eta honi buruzko azalpena. Etxalarren nola ehizatzen dituzten kontatzen du.

561. Usapala (VIL-031/030)

Usapalaren marrazkia eta honi buruzko azalpena.

562. Eskinosa (VIL-031/031)

Eskinosoaren marrazkia eta honi buruzko azalpena.

563. Eperra (VIL-031/032)

Eperraren marrazkia eta honi buruzko azalpena.

564. Mokokerra (VIL-031/033)

Mokoker edo pikuokerraren marrazkia eta honi buruzko azalpena.

565. "Ezkur urtea elur urtea" (VIL-032/002)

Ezkundu zen urtean elurte bat egon zen, non tenperatura zero azpitik 15 gradura iritsi zen. Ondorioz, ia zuhaitz gabe gelditu ziren inguruan.

566. Villabonako Subijana lantegia (VIL-032/003)

Kotoi-industria zegoen Villabonan, baita paper-fabrika eta tailer asko ere.

567. Villabonan arrosarioa erdaraz (VIL-032/004)

Andoain euskaldunagoa zen Villabona baino. Aita Larramendiren eraginaz hitz egiten du.

568. Villabonako dendak (VIL-032/005)

Kandelak egiten zituzten, tindategiak... Bi paper-lantegi zeuden.

569. Lehengo lanbideak (VIL-032/006)

Villabonako ferratzailea, pregolairia,

570. Txikiteoa eta arrain-saltzaileak (VIL-032/007)

Taberna eta sagardotegi ugari zegoen inguruan. Oriotik arraina saltzera etortzen ziren emakumeak, neurria platera zelarik.

571. Lan ugari lantegietan (VIL-032/008)

Kanpoko jende asko etorri zen herrira lanera.

572. Lantegiak gerran aberastu (VIL-032/009)

Laborde lantegia gerra garaian aberastu zen, jende ugarik egiten zuen bertan lan, espoletak ekoizten.

573. Kanpotarrak ongi integratu al ziren? (VIL-032/011)

Bananduta egoten ziren kanpotarrak eta bertakoak, kanpotarrak Francoren aldekoak baitziren gehienak.

574. Aita nazionalista (VIL-032/012)

Gerra garaian, David umea zela, Ihes egin zuten Andoaindik. Oriora joan ziren lehendabizi, eta ondoren Mundakara. Mendian zirela, alemaniarren hegazkinak ikusi eta ezkutatu egin behar izan ziren.

575. Gudariak etxean (VIL-032/013)

Frantziara joan ziren Mundakatik. Lagunek Errusiara egin zuten ihes. Martin Ugalde Laborden langilea zen, eta Venezuelara joan zen gerra pasatutakoan.

576. Elizara txapela buruan (VIL-032/014)

Frantzian komunistek laguntzen zituzten. Elizara joaten ziren. Eskuindarrak txapela jantzita joaten zirela ikusi eta amak ere txapelak egin zituen elizara joateko.

577. Frantzian familia osoa erbestean (VIL-032/015)

Ama eta alabak neskame lanetan ibiltzen ziren. Aita, ordea, ospitalean ibili zen erizain.

578. Frantziatik itzultzean ezin euskaraz hitz egin (VIL-032/016)

Frantziatik itzuli ziren, txapelgorriek besoa altxatzeko eskatu zieten. Falangista batek Davidi euskaraz ez hitz egiteko esan zion.

579. Txapelgorriak musikaritzat (VIL-032/017)

Flechas y Pelayoseko txapelgorriak musikaritzak jo zituzten David eta lagunek.

580. Erbestetik bueltan, arazorik bai? (VIL-032/018)

Etxea zigilatu egin zieten, dirudik ez baitzuten. Hortaz, senide baten etxean egon ziren bizitzen. Senideei eskerrak biziraun zuen familiak.

581. Inguruko eskolak: tolosakoa, La Salle. (VIL-032/019)

La Sallen "cara al sol" abestu behar izaten zuten. Irakasle arabar batek Zeledoni buruzko abestiak irakatsi zizkien.

582. Labordeko lehenengo langileetako bat (VIL-032/020)

Hamalau urterekin hasi zen Laborde lantegian lanean. Lanbidea ikasteko eskola zabaldu zuten bertan, eta David hara joan zen.

583. "Nazionalistak eta karlistak muturjoka" (VIL-032/022)

Herria bertan ideologikoki bananduta zegoen. ABESTIA.

584. Aitak kargurik al zuen? (VIL-032/024)

Aitak kotoi-lantegian egiten zuen lan. Batzokira joaten ziren bera gaztea zenean.

585. Zeutara joan zen soldadutzan (VIL-032/025)

Barakaldoko lagun bat egin zuen soldadutzan. Bere aita nazionalista zela jakinaraziz gutun bat bidali zuten Zeutara.

586. Anaia zaharra gudari (VIL-032/029)

Teruelen barrena ibili zen bere anaia, "batallon de trabajadores" barnean.

587. Emaztearen aita fusilatu egin zuten (VIL-032/031)

Frantziara ihes egin zuten paper-lantegiko zenbaitek, eta, emaztearen aita, Euskal Herrira bueltatu nahian, fusilatu egin zuten.

588. Txorixo izaki beldurgarria eta "sacamantecas" (VIL-032/033)

Jende aberatsak egiten zuen odol transfusioa dela eta asmatu zen "sacamantecasen" ipuina. Txiroen odola aberatsentzat zen.

589. Zizurkilen gauez "sacamantecas" eta sorginak (VIL-032/034)

Jendea mozorrotu eta kalera irteten ziren jendea beldurtzera.

590. Gerra garaiko Villabona (VIL-033/002)

Mila eta bostehun biztanle zituen Villabonak gerra hasi zenean. Garai hartan herria nolakoa zen deskribatzen du. Errotari buruzko azalpenak.

591. Etxeondo eta Ameztotarrak (VIL-033/003)

Etxeondo eta Ameztotarrei buruzko kontuak aipatzen ditu. Etxeondon jende asko bizi zen.

592. Evaristaren kontrako errepresioa (VIL-033/005)

Evaristari egin zioten errepresioa azaltzen du: kalean Espainiako banderarekin ibilarazten zuten eguerdiko hamabietan, "viva España" esanaraziz. Errepresioa jasan zuen beste familia bati buruzko kontuak.

593. Ilea moztu zioten emakumeetako bat (VIL-033/007)

Juliana de la Cocherari ilea moztu zioten. Non bizi zen kontatzen du. Txokolo bi ziren eta non zeuden kontatzen du. Txokolorenean txokolatea egiten zuten.

594. Txokolo gozotegia eta Benito Arratibel (VIL-033/008)

Txokolorena gozotegia zen eta baserrietako esnea jaso eta saltzen zuten. Erroskilak egin eta azoketan saltzen zituzten. Benito Arratibeli buruzkoak aipatzen ditu.

595. Cardenalekoa bigarrenez atxilotu zutenekoa (VIL-033/010)

Gerra garaian eskolarik ez eta beti kalean ibiltzen zen. Hiru koskatan eseritzen ziren. Cardenalekoa bigarren aldiz atxilotuta nola eraman zuten ikusi zuen eta zehaztasunez kontatzen du.

596. Tolosako hilerrian hil zituzten villabonarrak (VIL-033/011)

Tolosako San Blas auzoko hilerrian hil zituztenak, Villabonan lurperatu zituzten. Izenak ematen dituzte.

597. Margariten jokabidea (VIL-033/013)

Valeriano Saizar kartzelan ez zela egon dio. Emaztea eta alaba etxean geratu ziren. Karlistetako margaritek zer egiten zuten eta nortzuk ziren esaten du.

598. Jose Mujika Laborda fusilatua (VIL-033/014)

Jose Mujika Laborda, beste fusilatuetako bat. Hari eta bere familiari buruzko kontuak kontatzen ditu.

599. Maximino Erostarbe fusilatua (VIL-033/015)

Maximino Erostarbe fusilatu egin zuten. Non bizi zen azaltzen du. Errepublikarra eta jatorra omen zen. Porturenean lan egiten zuen.

600. Joxe Garmendia fusilatua (VIL-033/016)

Joxe Garmendia fusilatu egin zuten. Errepublikarra zen.

601. Salatariak eta beldurra (VIL-033/017)

Fusilatuei buruzko kontuak. Etxeniketarretako bat fusilatu zutenean, familiaren lagunek bazterrera utzi zuten, beraiek ere fusilatzeko arriskua baitzegoen. Ezin zen gaiaz hitzik ere egin. Salatari asko zeudela dio, zein ziren ere jakitzen ez zena.

602. Kurutx Iribarren fusilatua eta Para Arratibeli errepresioa (VIL-033/018)

Kurutx Iribarren fusilatu egin zuten. Haren bi alabak Hotel Londresean hil ziren, bonbengatik. Emaztea Paka Arratibel zen eta nolako errepresioa jasan behar izan zuen kontatzen du, ez baitzioten lanik egiten ere uzten. Batzokia zegoen lekuan "auxilio social" jarri zuten eta han agintzen zuena Esperanza Laskurain zen, karlista. Paka Arratibelek sukaldari lanak egin zituen han azkenean.

603. Pepe Ubarretxena falangista (VIL-033/020)

Pepe Ubarretxena hernaniarra falangista Villabonara ezkondu zen eta hura izan zen Maria Doloresek falangistaz jantzita ikusi zuen aurrenekoa. Diru faltua egitearren, bi atxilotu zituzten. Villabonan karlistak ziren gehienak; falangistak gutxi.

604. Pilar asteasuarrari ilea moztu zioten (VIL-033/030)

Asteasuko Ibilla baserriko neska, Pilar, Subijanarenean sukaldari zegoen. Anaia hil zioten Asteasun eta berari ilea moztu zioten. Haren ordeztu eta ilea itxuratu bitartean, Maria Doloresen amona joaten zen sukaldari lanak egitera.

605. Maximino Erostarberen emaztea eta amona (VIL-033/034)

Maximino Erostarbe hil zutenean, Portutarrek alargunari lanera joateko deitu zioten, errepublikarrak baitziren. Amona zaintzeko bizilagunak txandakatzen ziren.

606. Inaxio senarra mehatxupear (VIL-033/040)

Bere senar Inaxiok Juanito Barberi kontuak eskatu zizkion anaiari buruz kartzelara bidalitako txostenengatik. Mehatxu egin zion Inaxiori ere, kartzelara bidaliko zuela esanez.

607. Lehengusu tolosarrari hiletarik ez (VIL-033/046)

Bere lehengusu tolosar bat gudari joan eta Bizkaian hil zen frentean. Izebak semearendako hileta eskatutakoan, Don Braulio Maria Arozenak ukatu egin zion, "gorrientzako ez dago" esanez.

608. Don Mateoren astakeriak (VIL-033/047)

Don Mateo Arizmendi oso gaiztoa zela dio. Jendea hiltzen ari zirela eta poza agertu zuen pulpitorik. Baztarrika Amasako apaiza oso karlista zen.

609. Gerra bukatuta, lana ukatua (VIL-033/052)

Santoñan atxilotu zituztenen izenak irakurri eta haiei buruzko kontuak aipatzen ditu. Herriko jende askok Villabonan lanak egin ezin eta Hernanira joaten ziren lanera.

610. Federiko Urdanpileta errepublikarra (VIL-033/053)

Ardura politikoak egotzi zizkietenen izenak irakurri eta haiei buruzko kontuak aipatzen ditu. Federiko Urdanpileta Salvadora lantegiko jabea zen eta dirua ematearen truke libratuko zela uste du, errepublikarrak baitziren eta Errepublika garaian alkate izan baitzen.

611. Gerra hasi aurretik atxilotutako karlistak (VIL-033/057)

Ardura politikoak egotzi zizkietenen izenak irakurri eta haiei buruzko kontuak aipatzen ditu. Gerra hasi aurretik karlistak atxilotu eta Bilbora eraman zituzten. Izenak ematen dituzte.

612. Nazionalak sartu zirenekoa (VIL-033/058)

Nazionalak etorri zirenean, elizondoan zegoen petrilaren gainean igota. Gurutze eta dominekin jantzita etorri ziren oinez. "Que vienen los navarros" esaten zuten. Etxe ondoan batzokia zeukaten eta hiru gau zaintzan eman zituen Maria Doloresen aitak fusila hartuta.

613. Ezkurdiatar familia osoa atxilotuta (VIL-033/059)

Ezkurdiatarren familia osorik atxilotu zuten. Barbek amona zeramatela ikusi zuenean, etxera itzultzeko agindua eman zuen. Kartzelaratu zituztenen izenak irakurri eta haiei buruzko kontuak aipatzen ditu. Antonio Arratibel ezkertiarra zen.

614. Don Salbador oiartzuarra deserriraturua (VIL-033/063)

Don Salbador Irigoien apaiz oiartzuarra oso abertzalea zen eta atzerriratu egin zuten. Don Leandro herriko parrokoa abertzale sutsua zen, Erostarbe etxearen behekaldean bizi zena. Kotxeak harrapatuta hil zen.

615. Gorriekin topo mendian (VIL-034/002)

Gorriekin topo egiten zuen mendian. Bere aita eta osaba segan aritzen ziren mendian eta amak jatekoarekin bidaltzen zuen haiengana.

616. Tiroz hildakoa menditik behera (VIL-034/003)

Karlistak eta gorriak elkarri tiroka ibiltzen zirela gogoan du. Tiroz hildako bat gorriek menditik jeitsi zutela gogoratzen da.

617. Babarruna eta patata udaletxera (VIL-034/004)

Babarruna eta patata udaletxean entregatu egin behar izaten zuten. Hamar senide, aita-amak, osaba eta aitona bizi ziren etxean.

618. Gerran hildakoak eta fusilatuak (VIL-034/005)

Gerran hildakoak eta fusilatuak izendatzen ditu.

619. Erreketeetako bat soldadutzan teniente (VIL-034/006)

Beldurrez egon ziren nazionalak etorritakoan. Apaizak alde egin zuen Amasatik eta kartzelaratu egin zuten. Irurara mezetara zihoazela, erreketek gurutzatu zituzten. Gerora jakin zuen soldadutzan teniente izan zuena zela erreketek haietako bat. Soldadutza bi urte eta erdiz egin zuen Nafarroan.

620. Gerra garaian Barbek agintzen zuen (VIL-034/009)

Villabonan seirehun soldadu egon ziren gerra garaian eta hartu egin behar izaten zituzten etxeetan. Negua bertan pasatu zuten. Barbe izeneko batek agintzen zuen orduan. Izugarriak egin omen zituen. Alkate egon zen gero.

621. Bi gudari etxean (VIL-035/003)

Gorrietako bi lagun izan zituzten etxean eta amak afaria ematen zien. Karlistak bazetozela eta haiek alde egin zuten. Nazionalik ez zuten etxean izan, herrian bai.

622. Nazionalak ikusitakoan, ihesi (VIL-035/004)

Nazionalen batailoi handia goraka ikusi zutenean, senide guztiek korrika alde egin zuten beldurrez. Igande arratsalde batez kainoikadak bota zituzten. Soroan zuloa egin zuela gogoan du.

623. Babarruna eta patata udaletxean ustelduta (VIL-035/005)

Gose handirik ez baina miseria pasatu zutela dio. Dena garesti zegoen eta dirurik ez zeukaten. Gainera, babarruna eta patata entregatu egin behar izaten zuten. Urte batean, babarrun guztia udaletxean usteldu zela kontatzen du. Etxean txerria hiltzen zuten eta txekorrak saldu egiten zituzten.

624. Alkizako erro tara irinetara (VIL-035/007)

Taloea eta esnea jaten zuten. Irinetara gauez joaten ziren mendiz mendi hiru lagun. Villabonako hiru erroak prezintatuak zeudenez, Alkizaraino joaten ziren. Iruran ere bazen erroa eta joaten ziren.

625. Errazionamendua eta ordaina (VIL-036/003)

Familia bakoitzak leku bat zeukan errazionamenduko produktuak erosteko. Artoa eta babarruna eramane behar izaten zuten baserritarrek eta diru pixka bat ematen zieten ordainetan. Kalkuluak nola egiten ziren kontatzen du.

626. Herrian sortutako janaria, Alemaniara (VIL-036/005)

Dirua zutenek, ez zuten beti ogirik lortzen, irinik ez baitzen. Janaria Alemaniara eramane zutela esaten zuten.

627. Babarruna alondegira (VIL-036/006)

Baserritar bakoitzak babarruna alondegira eramane zuen. Entregatzeko nahikoa ez bazuten, erosi egin behar izaten zuten.

628. Errazionamenduarekin negozioa (VIL-036/008)

Errazionamendua banatzen zutenek, negozioa egiten zuten. Oliao kontrabandoan saltzen zen. Kafea beste zerbaitekin nahastu eta handik apartatzen zutena, saldu egiten zuten.

629. Patata sailera lanera derrigortuta (VIL-036/010)

Udaletxeak norbaiten lurretan patata saila egin behar zela erabakitzen bazuen, baserritarrek egun bat debalde lan egin behar izaten zuten eta gainontzeko egunetan jornalarekin aritzen ziren batzuk. Garoa eta otea zegoen lurrak izaten ziren. Gurdi zimaurrea eramatera derrigortzen zituzten baserritarrak.

630. Errepublika garaiko ogia eta ondorengo gosea (VIL-036/011)

Arrautza gutxi izaten zen etxeetan eta saltzeko bat ere ez. Kalean kakauesak jaten zituela jendeak kontatzen du, besterik ez baitzen. Errepublika garaian hiru kiloko ogi zuri-zuria egiten zuten.

631. Mila pezetako isunak (VIL-036/015)

Gerra garaian isunak izan ziren nazionalak sartu zirenean, ez ondorenean. Mila pezeta ordaintzeko eskatu zieten askori, abertzale izatearren. Jendeak gosea pasatu zuen eta ogiaren gosea denek.

632. Errazionamenduko ogia eta okindegiak (VIL-036/016)

Berrogeita hamargarren hamarkadan erosi ahal izan zuten ogia. Irina etortzen zenean egiten zen ogia errazionamenduan. Orduko okindegiak izendatzen ditu.

633. Soldadu nazionalak etxean (VIL-036/020)

Etxe bakoitzean bi soldadu izan zituzten berrogei egunez. Lo egiten zuten etxeetan baina jatekorik ez zieten ematen. Udazkena zenez, arto zuritzen aritzen ziren etxean. Atsedean moduan egon omen ziren.

634. Claudio Saizarren kontrako errepresioa (VIL-036/024)

Claudio Saizar langileen batailoira, soldadutzara eta erbestera bidali zuten. Nor zen azaltzen du. Dokumentazioak dioena eta errealitatea ez datozela bat dio.

635. Saizar eta Etxenike fusilatuak (VIL-036/026)

Valeriano Saizar eta Etxenike nola fusilatu zituzten kontatzen du.

636. Nafarroako sarraskiaren berri bazen (VIL-036/028)

Nafarroan erreketeei kontrako pila bat hil zituztela jakina zen Villabonan. Horregatik beldurrez ihes egin zuen jendeak.

637. "Barrio Rojo" auzoa (VIL-036/034)

"Barrio rojo" izena jarri zioten auzoari eta harrotasunez esaten zuten bertakoak zirela. Gernikako arbola abestearren bere adinekoei Barbetar batek kargu hartu zien.

638. Ilea moztu eta zigortu zituztenak (VIL-036/036)

Ilea moztu eta zigortu zituzten emakumeen izenak ematen ditu. Berak ez zuen ikusi.

639. Nekazari Bazkunako ikurrinaren istorioa (VIL-036/037)

Nezakari Bazkunako argazkiari begira. Argazkian agertzen den ikurrina lurperatu egin zuten baina Barbek zirkulu karlista lokalera eraman eta han eduki omen zuten.

640. Aitari kartzelara bisita (VIL-037/002)

Santoñako kartzelan egon zen Teresaren aita. Gero, Ondarretako kartzelara eraman zuten. Aitaren anaia ere, osaba, kartzelara eraman zuten.

641. Errazionamenduko ogia (VIL-037/004)

Ogi zati txiki bat ematen zieten errazionamenduan. Familiako kopuru zehatz bat ematen zieten.

642. Ama andoaindarra (VIL-037/005)

Ama andoaindarra zen. Aitak gaztetan besoa moztu zuen, eta besamotz gelditu. Ama neskame joan zen, eta 25 urterekin ezkondu egin zen.

643. "Belarrimotz" (VIL-037/006)

Gerratik ihesi joan zen familia osoa, eta bueltakoan euskara ahaztuta itzuli zen Teresa Villabonara. Herriko udaletxeko eskolara joaten zen beste umeeekin batera, eta "belarrimotz" deitzen zioten euskara ez jakiteagatik.

644. Gerraosteko gosea (VIL-037/008)

Osaba batek lagundu zion Teresaren amari, diru eta janari kontuetan. Gosea pasa izanaz gogoratzen da Teresa.

645. Apaizak aitari errieta (VIL-037/012)

Herriko apaizak errieta egin zion aitari mezara joaten ez omen zelako. Beste behin Amasako apaizak Teresaren anaiari lanean ikusi nahi zuela esan zion, beti alferkerian zebilela ulertaraziz.

646. Amasako apaizak auzoari "barrio rojo" izena jarri (VIL-037/014)

Teresaren auzoan ezin zuten Amasako Joxe Baztarrika ikusi ere egin, ezta hark Billabonako jendea hura ere. Auzoari "barrio rojo" izena eman zion, baita elkarrizketatzailearen amari errieta egin ere, musu bat eman izanagatik.

647. Errazionamenduaren funtzionamendua (VIL-037/016)

Kartilla eskuan hartuta joaten ziren familiari zegokiona jasotzera. Irina ere erosi ohi zuten ondoren errotan txikitzeko.

648. Herritik ihes (VIL-037/020)

Sei urte zituela osabaren Donostiako etxera joan ziren oporretan. Hara joan eta ez zen Billabonara itzuli.

649. Bilbora ihesi (VIL-037/021)

Bilbora ihes egin eta etxebizitza bat okupatu zuten., Ledesmako 14. zenbakian.

650. Izeba abertzalea (VIL-039/002)

Izebari buruz ari dira pasarte honetan. Euskal Herria oso maite zuen, eta oso abertzalea zen bera.

651. Alderdi eguna (VIL-039/004)

Izeba beti joaten zen alderdi egunera, eta erbestean zeudenei ere dirua bidaltzen zien, laguntzeko.

652. Izeba zigortuta (VIL-039/005)

Izeba espetxean egon zen, mojetan. Behin Espainiako bandera hartuta herriari buelta ematera behartu zuten izeba, espainiarra zela onartu nahi ez zuelako.

653. Salaketa faltsuak (VIL-039/007)

Inbidiagatik, ohikoa zen herriko batek beste bat salatzea, kontu politikoak aitzakiatzat hartuz.

654. Amonak gauez lan (VIL-039/010)

Amona alargun gelditu zen, sei seme-alabarekin. Familia mantentzeko Subijana lantegian egiten zuen lan, gauez.

655. Ikararekin bizi ziren (VIL-039/011)

Esango zutenaren beldur bizi izan ziren urte askoan zehar.

656. La Pirenaica irratia (VIL-039/012)

Ezkutuan entzuten zuten La Pirenaica irratia, familia osoa bilduta.

657. Donostiako manifestazioak (VIL-039/013)

Abertzaletasunaren munduan sartzen hasi ziren, beti ere beldurrez, eta Donostiako manifestazioetara joan ohi ziren bi ahizpak.

658. "Zerri zikinak!" (VIL-039/019)

Behin ama, Guardia Zibil baten alabarekin eztabaidan hasi zen, alaba hura Arantxa eta Izaskunen izebarekin sartu baitzen.

659. Politikak aitari lana kendu (VIL-040/003)

Aita frantziara exiliatu zen. Ondoren Villabonara itzuli eta paper-fabrikan lanean hasi zen. Tolosatik iristen ziren salaketak zirela eta, lanik gabe gelditu zen.

660. Muturreko errepublikarra (VIL-040/005)

Aita muturreko errepublikarra zen, justizia soziala helburu zuena.

661. Aita errepublika itzuliko zelakoan (VIL-040/007)

Aitak errepublika itzuliko zelako ustea zuen. Igandero lagun errepublikarrekin elkartu eta egoeraz hitz egiten zuten.

662. Lana lortzeko karlista izan behar (VIL-040/010)

Subijanak aitari txapela gorria jarri beharko zuela esan zion, lana mantentzeko.

663. Aitaren ihesaldia (VIL-040/012)

Aitak goiz batean, beldurtuta, etxetik atera eta ihes egin zuen kostaldera. Mutrikun egin zuen gaua arrantzale batzuen etxean. Handik Frantiara joateko laguntza eman zioten.

664. Aitona fusilatu (VIL-041/002)

1936. urtean aitona fusilatu egin zuten, errepublikarra zelako. Tolosako kartzelara eraman zuten atxilotutakoan. Fiantzarekin atera eta hilabete beranduago Ondarretako kartzelara eraman zuten. Bera-bidasoan fusilatu egin zuten.

665. Amona alargun (VIL-041/004)

Aitona abertzale izateagatik atxilotu eta fusilatu egin zuten Beran. Amona alargun gelditu zen, eta kostata egin zuen aurrera semeekin. Osaba ere Martutenen egon zen preso, autobusari harri bat botatzeagatik.

666. Osaba atxilotu zutenekoa (VIL-042/003)

Arrasaten artzapez zegoela, atxilotu eta Ondarretako kartzelara eraman zuten.

667. Osabaren heriotza (VIL-042/005)

Oiartzungo kanposantuan hil zuten bere osaba. Askotan jaoten zen Klarita kanposantura. Lehenik eta behin Ondarretara eraman zuten, baina isilpean. Gero jakin zuten Oiartzunen hila zela.

668. Euren hilobia egitera behartuta (VIL-042/007)

Osaba, fusilatu aurretik, bere hilobia egitera behartu zuten falangistek.

669. Umetan jakin-min handikoa (VIL-052/003)

Oso ume mugitua zen Amaia, jakin-min handikoa eta bihurria. Nerabezaroan daukan akordua da irakurzalea zela eta idaztea gustatzen zitzaiola. Gurpil, pilota eta baloi zalea zen.

670. Bertsozaletu zenekoa (VIL-052/005)

Villabonako ikastolan bertsozalea zen irakaslea izan zuen; hitzarekin jolas egiten zuen eta kantuz aritzea asko gustatzen zitzaion Amaiari. Tolosako Laskorain ikastolan bertso-eskolaren berri izan zuen eta izena eman zuen bertan.

671. Areto futbolearen eta zelai handian (VIL-052/007)

Ama futbolzalea zen. Txandalaz gain, dena ordaindu behar izaten zuten; aldageletatik bizkor alde egin behar izaten zuten... Futbol-aretoan beste taldeetakoak jokalaria nagusiagoak izaten ziren. Errealeko nesken taldea sortu zenean, Lasarten jokatzeko atezain zelai handian, eta hautatzaile batek proposamena egin zion Errealera joateko, harik eta adina jakin zuen arte (nagusiegia).

672. Emakumeen futboleko lehen urteetako baldintzak (VIL-052/008)

Gogoan dauka Errealeko nesken taldea hasiberria zenean, bere lagun bat partaide zela eta eztabaidak izaten zituztela, Amaiak ez zuelako orduko baldintzekin futboleko aritze hura asko estimatzen.

673. Pilotan, erraketekin eta palaz (VIL-052/009)

Pilotan eskuz eta erraketekin ibiltzen zen umetan; helduagotan, palaz ere bai. Umetako pasarte bat dauka gogoan, mutila ez izatearren parte hartzen utzi ez zioteneko.

674. Mundialetan palaz jokatzeko (VIL-052/010)

Palan egindako ibilbidea kontatzen du; mundialean jokatu zueneko.

675. Jendaurreko lehen bertsoak (VIL-052/011)

Jokin Sorozabal irakasle izan zuen Tolosako bertso-eskolan. Villabonako berdura-plazan ikasitako bertso batzuk kantatu zituen. Hurrengo, eskolarteko txapelketan abestu zuen jendaurrean. Egoskorra delako jarraitu duela bertsoan azaltzen du, ez bereziki ona zelako.

676. Bertsoan ikasten, mutilekiko aldea (VIL-052/012)

Bertsoan, egiten zuena txukun samar egin nahi izaten zuela gogoan dauka. Mutilekiko aldea kontatzen du.

677. Hernaniko bertso-eskolan lagun-talde ona (VIL-052/013)

Etxean ordu asko ematen zituen errimak eta lantzen. Tolosako bertso-eskolatik Hernanira pasatu zen. Lagun-talde ona egin zuen han. Estitxu eta Ixiar Eizagirre, Maialen Lujanbio ere bazeuden. Adintsuko mutilekin zegoen Amaia taldean.

678. Euzkitze zalea (VIL-052/014)

Nerabezaroan Euzkitze zuen gustuko, bere bertsokerarengatik. Urte askoan jarraitu eta miretsi izan du.

679. Jendaurrean oso maitatua (VIL-052/016)

Jendaurrean oso maitatua sentitu izan da gaztetatik. Maialenen ordezkotik ibili behar izan zuenean, oso gaizki pasatu zuen. Amak babesa eman zion. Ez dauka gogoan bertsoan gaizki pasa izana neska izatearren, baina irakurketa sakona egin behar izan zuen.

680. Bertsolari gazteak leku eske (VIL-052/017)

Gogoan dauka behin sentitu zuela beste neska bat lekua kentzera zetorrela. Sentipen horrek, bere lekua babestu nahian, orain gustuko ez dituen hainbat jarrera harrarazi zizkion. Beste bertsolari batzuekin landu du gaia, ez baita bakarra izan.

681. Bertsolari gazteekiko beldurra eta inbidia (VIL-052/018)

Beldurra eta inbidia sentitu zituela konturatu da gerora, askotariko gorputz, kantaera eta ahosdun emakume bertsolariak azaltzen hasi zirenean.

682. Bertsotarako tresna, umorea (VIL-052/020)

Bertsotan bere buruarengan estimatzen zuen balorea umorea zen, baita kanpotik estimatzen zutena ere. Berritzen ez asmatu izanagatik rol jakin batera lerratuta geratu zela uste du. Gizonezkoen artean batzuetan oso ondo sentitu arren, beste batzuetan ez zegoen eroso. Uste izan zuen egokitu beharra berea zela.

683. Emakume gai-jartzaileekin, barruak mugitzen (VIL-052/023)

Oholtzan beti neska bakarra izatearen horrek normalki ez zion trabarik egiten baina gogoan du entzule moduan emakume gai-jartzailea tokatzen bazen, zerbait mugitzen zitzaiola barruan.

684. Oholtzan jarrera aldatu zuenekoa (VIL-052/025)

Urte askoan bere sexu joera definitu ezinda ibili zen. Min hartzeko beldurrarengatik, ausart eta batzuetan erasokor ere jokatu izan duela dio. Oraingo bikotearekin hasteak, feminismoaz ikasteak, beste emakume bertsolari batzuekin bizipenak partekatzeak eta bestek, sekulako lasaitua eman zion. Oholtzan tonua, jarrera eta hurbiltzeko modua aldatu zituela esaten zioten, nahiz eta berak hasieran ez nabaritu.

685. Ahalduntze bertso-eskolan, korapiloak askatzen (VIL-052/026)

Ahalduntze bertso-eskola sortu aurretik ere, hainbat topaketa egin izan zituzten, baina gune hartan gai asko atera zituzten eta bakoitzak bere bidea egiteko lekua izan zen. Deserosoa izan arren, korapilo asko askatu zituzten.

686. Emakume bertsolari gazteekiko miresmena (VIL-052/029)

Emakume eta gizon bertsolarien arteko arrakalaz ari da. Neskak miresten ditu, badakitelako zer nahi duten eta feminismoaren gaia landuta daukatelako, besteak beste.

687. Virginia Imazekin ikastoaroan, barruak irauli (VIL-052/031)

Virginia Imazekin asteburu pasa egin zutenekoa kontatzen du, barruak irauli baitzizkion. Hogei urtean egoera asko aldatu dela azaltzen du, feminismoari dagokionez.

688. Azken urteetan, gai-jartzaile (VIL-052/032)

Gai-jartzen kasualitatez hasi zen, lehenengoz Tolosan. Askok gozatu du gai-jartzen. Orain mugitzen ari zaio dena, bidea aurkitu nahian. Bertsotan sentitzen zituen hutsuneei erantzuna ematen saiatu zen gaiak jartzerakoan.

689. Bertsolari moduan gorabeherak (VIL-052/033)

Bertsolari moduan, gorabeherak bizi izan ditu.

690. Euskal Herriko txapelketa eta bikotekidearen haurdunaldi gogorra (VIL-052/034)

2013ko Euskal Herriko txapelketa izan zenean, bikotekidearen haurdunaldi gogorra bizitzen ari zen. Bazekien edozein zirrikitu aurkituz gero, gai horri kantatuko ziola.

691. Gai-jartzailearen garrantzia (VIL-052/035)

Bizitzan zehar familia eredu asko ezagututa, bertsotarako gaietan aipatu nahi izan ditu. Gai-jartzaileak jartzen ditu gaiak saioen erdiguneetan.

692. Amatasun prozesua (VIL-052/037)

Bost neska dira etxean, bi ama eta hiru alaba. Amatasun prozesua zelakoa izan zen azaltzen du: intseminazioa, haurdunaldi multiplea, abortua, adopzioarako aukera, harrerakoak...

693. Intseminazioa eta hormonak hartzea (VIL-052/038)

Intseminazio eta hormonatze-prozesua nola bizi izan zuten kontatzen du.

694. Ama biologikoa ez izan arren (VIL-052/039)

Ama biologikoa ez izateak bere bikotekideari hainbat eskaera egiteko beharra sentiarazi zion: haurra motxilan eramaten uztea, gurditxoari bultza eginez joatea, bere abizena aurrenengo jartzea...

695. Egiatzko ama eta bigarren mailakoa? (VIL-052/040)

Askoren begietara Ainara da ama, ez Amaia. "Zein da egiatzko ama?" galderari erantzun behar izaten dio. Zaintzarik luzeenak berak egin ditu. Bigarren mailako amatzat hartu izan dute. Hainbat pasarte kontatzen ditu.

696. Familia ereduetakoa aniztasuna, umeentzat naturala (VIL-052/042)

Asteasun askotariko familia ereduak daudela kontatzen du. Umeek oso modu naturalean bizitzen dute aniztasun hori. Ikasleei intseminazioaren kontua eta berak bizi izandakoa kontatu zienekoa.

697. Familia eredu desberdina izatearren, beldurrak (VIL-052/043)

Alabari barre eta burla egingo ote zioten beldur zen. Babestu nahi izateak, umeari arreta horretan jartzea eragiten du. Umeek normalki natural bizitzen dute egoera.

698. Hezkidetza oso zaila (VIL-052/046)

Hezkidetza oso zaila dela azaltzen du. Etxekoaz gain, ingurutik jasotzen dutena oso indartsua da. Hainbat adibide ematen ditu.

699. "Bollo" bertso-saioak (VIL-052/050)

2018an Saioa Alkaizak bertsoetan dabiltzan zenbait bollerari galdetu zien ea horrelako saio bat egitera animatuko liratekeen. San Ferminetako saioa izan zen aurrenekoa. Gai-jartzailea eta bertsolariak denak bollerak izan ziren. Beste giro bat sortzen da.

700. "Bollo" bertso-saioetako umorea (VIL-052/051)

Bollo bertso-saioetan heteroarauari buruzko umore konpartitua daukatela dio.

701. Emakumeen eta "bollo" bertso-saioen berezitasunak (VIL-052/052)

Emakumeen bertso-saioetan segurtasuna eta askatasuna sentitzeak gusturago kantatzea dakar. "Ez da kasualitatea" saioa horrelakoa da. Gizartean gizonezkoen gaiak unibertsalak dira eta emakumeen gaiak emakumeenak. "Bollo" bertso-saioak are ertzekoagoak dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com